

1. *Gratien Adema*. Zaldubi
Saindu batzuen biziaz. 2007
2. *Pierre Charritton*
Pierre Broussain. 2007
3. *Pierre Lhande*
Yolanda eta beste euskarazko
idazlanak. 2007
4. *Gratien Adema*. Zaldubi
Artzain beltxaren neurtitzak. 2008
5. *Antonio Arrue*
Idaztiak & Hitzaldiak. 2008
6. *Domingo Agirre*
Gutun bilduma. 2008
7. *Txomin Peillen Karrikaburu*
Biziaren Hitzegia. 2009
8. *Gorka Aulestia*
Estigmatizados por la guerra. 2009
9. *Jean-Louis Davant*
Zuberoako literaturaz. 2009
10. *Gratien Adema*. Zaldubi
Kantikak. 2009
11. *Santiago Ezkerra Beltza* Lizarrusti
Bizitza eta lanak. 2009
12. *Gratien Adema*. Zaldubi
Prediku Zenbait. 2009
13. *Martin Maister*
Jesü Kristen imitazionea. 2010
14. *Gorka Aulestia*
Escritores euskéricos
contemporáneos. 2011
15. *Gratien Adema*. Zaldubi
Alegiak eta bertze neurtitzak. 2011
16. *Gratien Adema*. Zaldubi
Bertze prediku batzuk. 2011
17. *Junes Casenave-Harigile*
Xiberoko antzertia edo pastoralak. 2011
18. *Txomin Peillen Karrikaburu*
Jon Mirande, olerkaria. 2012
19. *Jean-Louis Davant*
Antoine D'Abbadie, Abbadiaz. 2012
20. *Gratien Adema*. Zaldubi
Gaineratekoen bilduma. 2012
21. *Ernest Daudet*
Amodiaren Martirra. 2013
22. *Jean-Baptiste Coyos*
Zubererazko istorio, alegia eta ipuin
irri-egingarri. 2013
23. *Pierre Charritton*
Le fondement moral des droits culturels
de l'homme (kultura eskubideen oinarri
etikoak). 2013
24. *Pierre Dourisboure*
Bahnar deitu salbaia. 2014
25. *Mongongo Dassanza*
Albaitaritzako idazlanak (1692-1892).
2014
26. *Ignazio Omaetxebarria*
Euskara barrutik. Estudios de lingüística
vasca. 2016
27. *Resurreccion Maria Azkue*
Ardi galdua. 2018
28. *Jakes Sarrailet*
Janpierra Lexardoarteren bizitzea edo
Basabiñuaren trajeria. 2018
29. *José Agerre Santesteban*
Biografía de Arturo Campión. 2019
30. *Adrien Gachiteguy*
Laborantzak. Laborantzatik hobeki
bizitzeko. 2019
31. *Joakin Bermingham*
Joakin Berminghamen solasak. 2020
32. *Emil Larre*
Emil Larre 1926-2015
Lekukotasun, kantu eta idazki. 2020
33. *Jean-Louis Davant*
Ozaze Jaurgainean. 2020
34. *Jon Casenave*
Euskal literaturaren historiaren historia
Gurea nola konda? 2020
35. *Jean Elizalde* Zerbitzari
Zerbitzariren lan hautatuak. 2021
36. *Txomin Peillen Karrikaburu*
Ene bertsoen bilduma. Errimarik ez,
arrazoirik ez / Recueil de versification.
Sans rimes ni raisons. (1951-2021). 2021
37. *Jean-Louis Davant Iratxabal*
Blanca eta Viana.
Nafarroako Blanca trajeria. 2021
38. *Allande Socarros* (1957-2021)
Euskal idazlan eta lekukotasun. 2022
39. *Henrike Knörr* (1947-2008)
Idazlan hautatuak. Textos escogidos. 2022
40. *Adolfo Arejita*
Faktoriako geziak. Egungo gizarte-
kontzeptu berriak euskaraz nola eman:
hautuak eta arrazoiak. 2022



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



EUSKALTZAINAK izeneko bilduma berrian euskaltzain izan diren eta direnen obrak eta eurei buruzko azterketak argitaratuko dira, Akademiaren historiarako esanguratsu gertatu diren hainbat egileren lanak ere alboratu gabe.



EUSKALTZAINDIA

40

EUSKALTZAINAK BILDUMA



EUSKALTZAINDIA



ADOLFO AREJITA

FAKTORIAKO GEZIAK

Egungo gizarte-kontzeptu berriak euskaraz nola eman:
hautuak eta arrazoiak

FAKTORIAKO GEZIAK

ADOLFO AREJITA



ADOLFO AREJITA OÑARTE-ETXEBARRIA

Bilbon (Bizkaia) jaio zen, 1953ko irailaren 7an. Aita, Mendatako semea izan zuen eta ama, Morgako alaba.

Derioko Seminarioan ikasle zela euskal hizkuntzara zaletu eta gaztetxotatik gure hizkuntza lantzen hasi zen. Ondoren, Deustuko Unibertsitatean egin zituen goi-ikasketak (Filologia Erromanikoa).

Euskal irratigintzan jardun zuen gaztetan Bilbo Herri Irratian (FM), eta gerora ere aldizka eta tarteka landu izan du kazetaritza-jarduna eta -generoa.

Deustuko Unibertsitateko irakasle izan da 1980. urtean hasi eta oraintsu arte, Euskal Filologia adarrean.

Euskal Filologia doktoretza lortu zuen, Juan Antonio Mogel bizkaitar idazle klasikoaren lanaren tesia aurkeztuta.

Unibertsitatetik at ere, irakasle-lanean jardun izan du beste erakunde batzuetan: EHU, IVAP-EAEEn eta berariaz eta luzaz Labayru Fundazioaren euskaldunentzako udako zein neguko euskara eskoletan.

Labayru Fundazioan eginiko ibilbide luze horretan, kargu asko izan ditu: zuzendari izan da urteetan, eta erakundearen Artezkaritza buru, egun. Fundazioaren Euskara Arloaren arduradun izan da, erakundea 1977an sortu zenez gero.

Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen 1983an eta euskaltzain oso 2004an.

Akademiaren EHHA (*Euskararen Herri Hizkeren Atlas*) egitasmoaren zuzendari izan da 2005. urtean hasi eta bukatu den arte.

Gaur egun Euskaltzaindiaren idazkaria da, 2020ko urritik hona.

Oro har, euskararen gramatika, lexikografia, herri-literatura, testu literario zahar eta modernoan edizioak eta euskararen estilo ona kazetaritzan izan dira arduraz eta gogoz landu dituen lan-ildo nagusiak. Hainbat argitalpen ditugu horren lekuko.

ADOLFO AREJITA

FAKTORIAKO GEZIAK

Egungo gizarte-kontzeptu berriak euskaraz nola eman:
hautuak eta arrazoiak

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren
Azkue Bibliotekako katalogoan:
www.euskaltzaindia.eus/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en
el catálogo de la Biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:
www.euskaltzaindia.eus/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles
sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la Langue Basque:
www.euskaltzaindia.eus/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka,
Royal Academy of the Basque Language:
www.euskaltzaindia.eus/azkue



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



Hizkuntza-orraketa:

Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

© Adolfo Arejita

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabetunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo copyrightaren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Diseinua: Ikeder, S. L.

ISBN: 978-84-126313-1-9

Lege gordailua: BI-01629-2022

ADOLFO AREJITA

FAKTORIAKO GEZIAK

Egungo gizarte-kontzeptu berriak euskaraz nola eman:
hautuak eta arrazoiak

EUSKADI IRRATIAren Faktoria magazineko
euskara-jardun laburren idatzizko edizioa
[Bilbon, 2019-02-03 / 2022-06-30]

EUSKALTZAINDIA

BILBO
2022

AURKIBIDEA

Sarrera: Andres Urrutia	XI or.
Sarrera: Andoni Aldekoa	XIII or.
Aurkezpena: Adolfo Arejita	XV or.
 I. [2019. urteko testu-bilduma]	1 or.
[1] Denbora ala <i>eguraldia</i> ?	3 or.
[2] Gaztelaniazko «mediador», «intercesor» eta «enlace» gisako izenak	5 or.
[3] Intonazioa leku-izenetan: <i>Gáres</i> ala <i>Garés</i> ?	7 or.
[4] « <i>Tasunkeriaren</i> » kontrako txertoa... ..	8 or.
[5] <i>Balio</i> tan jarri esamodua	11 or.
[6] <i>Osasun-besia</i>	12 or.
[7] <i>Pintza</i> izenaren esanahia	15 or.
[8] Zalantzazko <i>*datozen orduetan</i> formula eta horren kidekoak	16 or.
[9] «Backstop» anglizismoa	19 or.
[10] <i>Mintzidatzia</i> hitzaren sorkuntza	21 or.
[11] «Abocada a elecciones» erdal esapidea	24 or.
[12] <i>Desafekzioa</i>	25 or.
[13] <i>Klima-larrialdia</i>	26 or.
[14] <i>Darra</i> i aditz trinkoa	28 or.
[15] «Impertinente»	30 or.
[16] <i>Zauskada</i>	31 or.

[17]	«Reincidencia»	33 or.
[18]	<i>Itzuli izanagatik</i> gisako egiturak	35 or.
[19]	<i>Arrakala digitala</i> esamodua	37 or.
[20]	«Pintada» eta <i>osasun-besia</i>	39 or.
[21]	<i>Errelatoa</i> eta <i>errelatorea</i> ; eta bide batez, <i>aintzatetsi...</i>	41 or.
[22]	<i>Txirrina</i> jo eta <i>geldialdi eskatua!</i>	43 or.
[23]	«Brindis al sol»	45 or.
[24]	<i>Jasangarria</i>	47 or.
[25]	<i>Dezepzioa</i>	48 or.
[26]	<i>Anbizioa</i>	49 or.
[27]	<i>Zorionak</i> eta <i>urte berri on!</i>	50 or.
[28]	Aurtengo hitz entzutetsuena(k)	52 or.

II. [2020. urteko testu-bilduma] 55 or.

[1]	«En estampida»	57 or.
[2]	Gaztelaniazko «papa» eta gure <i>aita santua</i>	59 or.
[3]	«Gilipollas» birao-hitza	61 or.
[4]	«Postureo»	63 or.
[5]	San Balendin egunean: <i>maiteminduta!</i>	66 or.
[6]	«Carroñerismo» politikoa	69 or.
[7]	<i>Haragia</i> eta <i>okela</i>	71 or.
[8]	<i>Anaitasuna</i> edo <i>baurridetasuna</i>	74 or.
[9]	«Coronavirus» hitza	76 or.
[10]	Pandemiaren <i>erpina</i>	78 or.
[11]	<i>Froga</i> edo <i>proba</i> , aspaldiko zalantza	80 or.
[12]	<i>Telelana</i> eta beste «tele-» batzuk	82 or.
[13]	<i>Kogobernantza</i> eta <i>aldebakartasuna</i>	85 or.
[14]	«Colindante»	87 or.
[15]	«Tracking» ingelesez, «trazabilidad»	88 or.
[16]	<i>Zesioa</i> eta <i>transmisibilitatea</i> gaztelaniaz; eta euskaraz?	89 or.

[17]	«Ingreso Mínimo Vital» edo «Renta Mínima Vital»	91 or.
[18]	<i>Arnastu?</i>	93 or.
[19]	«Estado de alerta»	96 or.
[20]	«¡Toco madera!»	97 or.
[21]	Birusaren «cepa» berriak	98 or.
[22]	Txertatu	100 or.
[23]	«Temporeros» eta «temporales»	101 or.
[24]	<i>Deitu ala konbokatu?</i>	102 or.
[25]	«Zu eta ni, maskara beti» eslogana	103 or.
[26]	<i>Harat eta baratago</i>	104 or.
[27]	«Rastreadores»	106 or.
[28]	«Negacionistas»	108 or.
[29]	<i>Tuperkada?</i>	110 or.
[30]	<i>Bertanbeheratu?</i>	112 or.
[31]	«Second gentleman»	114 or.
[32]	«Vacuna» eta «vacunología»	116 or.
[33]	Elurra <i>gatzatu</i> egin liteke?	118 or.
[34]	<i>Gabonzabar</i> eta <i>Urteberri</i>	119 or.

III. [2021. urteko testu-bilduma] 121 or.

[1]	Dibertsoa eta dibertsitatea: <i>anitza?</i>	123 or.
[2]	«Vial»	125 or.
[3]	<i>Egunsentia</i>	127 or.
[4]	«Antidisturbios»	130 or.
[5]	«BAI bakarrik da baietz» eslogana	132 or.
[6]	<i>Errege-etxea</i> ala <i>Erregina-etxea?</i>	133 or.
[7]	Elurra	136 or.
[8]	<i>Flipatu</i>	138 or.
[9]	«Temerario»	141 or.
[10]	«Novato» eta «novatada»	143 or.

[11]	Azterketa sasoian: <i>txuletak?</i>	145 or.
[12]	Sumendien inguruan hamar hitz	146 or.
[13]	Gaztainak	149 or.
[14]	<i>Hotz handia</i>	152 or.
[15]	<i>Ajea</i>	154 or.

IV. [2022. urteko testu-bilduma] 157 or.

[1]	«Otsaila, katu-hila»	159 or.
[2]	<i>Azanoria</i>	163 or.
[3]	<i>Neba</i>	165 or.
[4]	<i>Tipi-tapa</i>	168 or.
[5]	<i>Putero ala putazalea?</i>	171 or.
[6]	<i>Hondartzara!</i>	173 or.

Sarrera

«Ez lotsa, ez etsi... hitzak ederretsib!»

Irratiaren uhinetan egunero *bitzak* entzuten ditugunean, airean ari dira hegalarari, hitz egiten dugunean gertatzen den bezalaxe. *Scripta manent*... idatzi zuen behinola erromatar jakintsu hark eta horren lekukotza emateko bidea ere sortu.

Halaxeegin du oraingoan Adolfo Arejita euskaltzainoso eta Euskaltzaindiaren idazkariak. Idazle-lanetan jarri eta, aldian aldiko, astero eman izan dizkigun ohar eta irizpideak guztion eskura ekarri dizkigu, EUSKALTZAINDIAREN eta EUSKADI IRRATIAREN bidez. Bihoazkie bi-bioi eskerrik bizienak!

Tankera zehatzekoak direla ezin ukatu. Gehienetan, entzuleen galderei erantzun berehalakoa emateko moldatuak dira. Freskoak eta atseginak, alabaina. Hartara, egunean-egunean gure inguruan gaztelaniaz zein frantsesez ditugun kontzeptu berri horiek, euskal modu jatorrean nola adierazten diren azaldu digu *Faktoriako geziak* liburuaren egileak. Ez horrenbeste preskripzioz, konbentzimenduz baino. Errazkerietan jausi gabe, eta bai, ordea, erraztasunak ematen euskal hiztunari, duintasunez eta gogoz, eta batik bat egoki erabil dezan bere hizkuntza.

Erdarakadak sarri-sarri etortzen diren zaparrada kanpotar horien aurrean, zer egin? Hainbat kasutan, gaia euskaraz erabiltzea beharrezkoa da, eta aurrera joan behar. Hortxe dago koxka eta kezka. Eta horra ere, egilearen erantzuna, eskura ditugun baliabideak aipatuz, hiztegiak eta abar, besteak beste, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*, egun sarean dagoena. Aholkuak ere, ez urri, hala nola hots-hitzetan erabiltzearen aldeko abagunean.

Gaurkotasun handiko kontuak, beraz, eta guztioi dagozkigunak (nola esan bestela gaztelaniazko «postureo», «cogobernanza», «tuperrada», «negacionistas», «flipar», «pandemia»... gisako hitzak?). Hona hemen, bada, eguneroko jardunean dema latza bihurtzen ari zaizkigunak, erantzun egokien bidez eginak.

Bertuteak bertute, sasoi bateko geziak testu gazi eta koloredun bilakatu dira eta haizean ibilitako horiek letretako moldetan ipini. Kazetaritza, hezkuntza eta gizarte-eragileak aipatu ditu Arejitak ustezko hartzaileen artean. Euskaldun oro, esango nuke nik, hain zuzen ere, euskararekiko jakinmina duena.

Geziak baino, printzak ditugu horiek, tanta hautuak, agortu ezineko euskara jatorraren jarriotik eman zaizkigunak. *Haitzari ura dario* dio esaerak. Euskararen haitzari, zalantzarik gabe, orrialde hauen ur fresko eta gozoa dario.

Goresmenak ur horien bilatzaile izan den Adolfo Arejitari, eta betoz tanta gehiago, ur-isuri sendoa behar baitugu euskararen iturrian.

Andres Urrutia

Euskaltzainburua

Sarrera

EITBren 40. urteurrenaren txinpartak

Berrogei urteko ibilbidea bete du aurten EITBk aurtengo urte honetan euskal irrati-telebisten arlo luze eta zabala lantzen eta garatzen, ia hutsetik hasita.

Euskal hitza ez da gehigarri hutsala gure EITB izenean. *Euskara* hitz osoaren laburdura besterik ez da. *Euskara* geure hizkuntza legez indartu eta sendotzeko apustua sorreratik bertatik egin genuen, eta berrogeialdi luze honetan zardendu eta lirandu egin da gure arbola, 1982an erein eta apalik erne zen landaretxo.

Urte luzeon ondoren, kazetaritzan ez ezik, geure hizkuntzaren aldeko jardunean ere erreferente bihurtu gara, batez ere hitzez, hotsez eta irudiz. Eta etengabeko eta ahaleginezko lan horri, hemendik aurrera ere, *2030 Estrategia* planean zehaztu dugun bezala, gogoz eta borondatez ekingo diogu, iragana eta geroa uztartuz.

Geure eginbidean Euskaltzaindia lagun izan dugu beti, hasieratik gaurdaino, euskal hizkuntzaren eredu onaren iritzia eta aholkua jasotzeko orduan. Lankidetza iraunkor horren erakusgarri eta froga tipi bat da liburu hau.

EITBren Zuzendari Orokorra naizen aldetik, begi onez ikusi dut eta bat egin dut zinez ahalegin honekin.

Adolfo Arejitak ondu duen *Faktoriako geziak* liburuaren edukia, Euskadi Irratiaren euskara jardunaren ataltxo bat da; Faktoria magazinaren garapenean sortu diren hitz bitxien gaineko argibide eta gogoeta laburra bildu da berean.

2019-2022 bitartean eguneroko ahozko kazetaritza-zereginetan sortu edo azaldu diren kontzeptu berriei, erdal hizkuntzetatik gurera etorriak gehienetan, euskaraz zein ordain eman izan dute helburu irratsaiook. Kezka eta zalantza horiei erantzuten saiatu da egilea: asteen-asteen irratiz labor eta motz esan izan dituenak, idatziz eta orrazturik batu ditu *Faktoriako geziak* liburu honetan. Guz-tira 80 kontzeptutik gora landuta daude.

Euskaltzaindiaren ardurapean egin den ekimen hau guztiz egoki eta eraz dator, oraindixe eta etorkizunean ikusentzunezko eta digilitazazio munduan euskara bermatzeko ahaleaginean.

Andoni Aldekoa

EITBren Zuzendari Orokorra

Aurkezpena

Lanean abiatu ahala ezarri diot neure buruari, irratiz esan beharreko jardunak idatziz ipintzeko ardura. Eta horrexetan ekin diot, eskatu zaidan irrati-tarte baikoitzerako gaiak, laburzurrean baino ez bada ere, idatziz atontzen.

Gaztelaniaz ezaguna nuen aurretiko atsegin bat. Fernando Lázaro Carreter hizkuntzalariaren *El dardo en la palabra*. Hark Madrilgo *Informaciones* eta *El País* egunkarietan aldiro isurtzen zituen idatzizko artikulua liburutxo bitan bildu eta argitartu zituen: *El dardo en la palabra* (1977) eta *El nuevo dardo en la palabra* (2003).

Arrakasta handia izan zuten batak eta besteak, eta gaztelania hizkuntzaren egokitasuna eta zuzentasuna, batez ere kazetaritza idatzian, zaintzen lagundu zuten, eta arrakasta zabala jadetsi gizarte zabalean.

Idea horri atxiki natzaio, neure artikulua xumeok hobeto baliatzea bultzatzeko.

Arrazoia eta helburuak zehazten hasita, *hitzak* berez lilura sortzen duela gogora dezadan, euskaraz zein beste edozeinere hizkuntzatan; berariaz, hizkuntza maite duenari. Urrunago joan barik, gaztelanian bertan —*Fundeen* eguneroko proposamenak lekuko—.

Hedabideek egunean eguneango eta presa biziko zeregin bati aurre egin behar izaten diote: euskaraz nola aditzera eman, gaztelaniaz, ingelesez edo beste hizkuntzetan garatzen doazen kontzeptu eta adierazte premia berriak.

Erantzuna ematea beti dator *a posteriori*, baina beti ohi dator egoki, kontzeptu horiei egokituko zaizkien euskal ordainak edo euskal ordain aukerak bilatzeko gogoeta egitea.

Gogoeta puntualak dira, aldian aldikoak, corpus xume honetan bildu direnak: gai zehatz bati buruzkoak eta denbora-epe mugatuan emanak. Baina, zilegi bekik esatea, ahaleginez eta gogoz bilatuak eta eskainiak.

Aukerak eskaintzea gehiago bilatu da formula eta arau zehatz bakarrak baino, jokabide hau kazetari kezkatien bizkortasunerako gozoena izan ez arren. Estilo on eta duina zaintzeari begira zuzenduak daude batez ere.

Kazetaritza generoan erabiltzekoak direla jakinik egindako proposamenak dira, berariaz entzutezko kazetaritzara zuzenduak. Eta beti ere kontuan harturik, hizkuntza mintzatuak, denik formalena izanda ere, aukera diferenteak eskaini ditzakeela, adierazkizunari espresioa ematerakoan. Are gehiago euskararen kasuan.

Hezkuntza izan daiteke bilduma honen bigarren helburu bat. Gizarte-gaiei guztiz irekita egon behar duten hezkuntza programetan eta euskaraz adierazi behar direnetan, material lagungarria izan daitekeela pentsaturik jardun dugu.

Hirugarrenik, gizarte-eragileak aipa daitezke. Euskararen zaletasun-kezkak dituztenak, eta gizarte-zerbitzu eta lanetan partaide eraginkorrak direnak partikularki buruan ditugula ondu dugu lan hau.

Azkenik, euskarazale eta hizkera onaren zale, eta irakurzale diren guztiei opa diet azkenik, borondate onez taxutu dugun lan hau.

Esker ona agertu nahi diot EUSKADI IRRATIKO Faktoria magazinari eta bere lantaldeari, eurek eskaini ez balidate *ziri* hauek proposatu eta irratiz lantzeko aukera, liburu hau ez baitzen erneko. Maite Artola eta Iñaki Guridi, bata lehenengo eta bigarrena hurrengo, izan ditut goiz saio horren gidari eta solaskide, eta Jone Larrañaga harreman-kide. Bihoakie guztiei neure esker ona.

Eta ahurra bete esker eta goraintzi nire idatziari jorratu, orraztu eta edertua eman dion Nagore Etxebarria HIZBEAko teknikariari.

Adolfo Arejita

FAKTORIAKO GEZIAK

I ATALA

[2019. urteko testu-bilduma]

[1]

Denbora ala eguraldia?

- Entzule baten mezua jaso dugu, *denbora* hitza entzun duela behin eta berriro *eguraldia* erabili behar litzatekeen testuinguruan. Zein da zure iritzia?
- Denbora* hitza, ‘eguraldi’ esanguraz erabiltzea ez da *abozko* kontua bakarrik, eta ezin da baztertu *zuzentasunaren* izenean, neure iritziz. Ez da Bizkaira mugatzen ere. Euskararen sartalde zabalagoan ere, Gipuzkoa mendebaldeko eta Arabako bizkaiera eremuan ere *denbora* (*denporea*) esaten da. *Eguraldi* hitza, bestalde, kostaldean bizi da indartsuago barrualdean baino. Lekukotasun batzuk: «*Egualdi zantarra*» (Bermeo). «*Benidorren ga, egualdi ederretan*» (Ondarroa). «*Zelako egualdidxe / ebeldidxe ingo jok ba?*» (Markina). Baina Markinan bertan, guztiz normala da entzutea: «*Ze denpora ingo jok?*».

Hiztegietara bagoaz, Azkuek aspaldi bildu zuen *denpora* hitzaren lekukotasun ugari eta zabala. Eta Euskaltzaindiaren *Orotariko Euskal Hiztegia* corpusaren testigantza ugariagoa ageri da, bai hitzezkoa, bai idatzizkoa, *denpora* izenaren ‘eguraldi’ adierarena. Jakingarria da, bestalde, adiera horrek, Bizkaian barik, Iparraldean duela tradizioz zaharrena eta sendoen. Gipuzkoan ere bai pitin bat, baina askoz zabalagoa, nolanahi ere, Nafarroan, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Gipuzkera hizkeretan da urrien erabilia. Eremu horretan *eguraldi* hitzak batez ere dirauelako indarrean.

Iparraldeko eta ekialdeko tradizioan, idatziz sarri ageri dira, *denbora berdea*, *denbora goibela*, *denbora idorra*, *denbora gaitza*, *denbora mudakorra*, *denbora hotza* bezalako sekuentziak.

Jakingarria da, Euskaltzaindiaren Atlasean (*Euskararen Herri Hizkeren Atlas*) lekuko zuberotar batek emaniko testigantza: *denbora* era jeneralean darabiltela eurek, egun gehiagoren kontua denean, eta *eguraldia* eguneko, egun horretakoari buruz ari garenean, alegia.

Berban-berban esaten da gaur egun sartaldean, eguraldiaren eremuan, batetik: *denpora ona*, *denpora ederra*. . .; bestetik, *denpora txarra*, *denpora eskasa*, *denpora lorrina*. . .; eta berdin: *denpora hotza*, *denpora sargoria*, *denpora beroa*, etab.

Oñatiko esaera bat idoro dut Arantzazu inguruko lexikoa biltzen duen monografia batean, emakumeek esaten ei zutena lehenago: «*Denbora ona*,

bera fraka ta bera gona —andren esaera zaharra—» (Kandido Izagirre, *El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate...*).

Ez dezagun ahantz, hala ere, *eguraldi* [*egualdi*] hitza ere zaharra eta euskara ia osokoa dela. Ezaguna da Bizkaian errefrau bat, dioena: «*Euzkija ta eurijs, Martiko egualdija*». Markinaldeko bertsioan, *eguraldi* hitza sartaldeko hiztun gehienen artean zaharkiturik gelditu denez, eta *denpora* nagusitu, *denbora* [*denporie*] izen generikoak kendu dio lekua *eguraldia* izenari. Horixe da arrazoia, gaur egun hain gutxi entzuna izatea *eguraldia*, [*egualdidxe*], eta bai, oster, *denporea* [*denporie*].

Denbora | *denpora* izen generikoa dugu, denerakoa, latinetik hartua baita, *tenpora* hitzetik. Oraindik ere hala esaten dira: *kuarta-tenporak*. *Eguraldi* hitza espezifikoa da balio horrekin.

Bide batez gogora dezagun, badirela beste *denpora* modu espezifikoa batzuk ere. Sartaldean sarri entzuten da *aroa*: *aro ona*, *aro txarra*, *aro eskasa*. . . Erdialdean, gipuzkera eremuan, *giroa*. *Egunaroa* ere badugu; *gauaroa* ere bai, gau ederra dagoenean.

Amaitzeko, herri-literaturako bitxi batzuk. Ez al diezue gure panderu-joleei kantatzen entzun —behinola Maurizia Arteakoari, adibidez—, trikiti-soinuaren akabera kopla hau kantatzen? «Hauxe da akaberea, / akabera honen triste! / *Denpora txarrak* emonda / etzera doa jentea».

Edo, San Blas eguna gainean dugula, trikiti-soinuan lehenago kantatzen zen harako beste kopla ezaguna? «San Blas pasau dan urte bi, / Abadiñora nintzan ni. / *Denpora txarrak* emonda / enintzan ondo ibili».

Gure gomendioa, hizkera jasoa, hedabide, testu-liburu eta abarretan, «*tiempo atmosférico*» aditzera emateko *eguraldi* hitza lehenestea da, batez ere *denbora* hitzaren azpian esangura ezberdin asko direlako, eta *eguraldi* izenak, espezifikoa izanik, zehaztasun handiagoa eskaintzen duelako. Baina, hala ere, *denbora* hitzari ezin zaio inondiko hesirik ipini.

Anekdotak gisa esan nezake, ETBren lehenengo urteetan, *eguraldia* gora eta behera hasi zirenean, hitz hori entzuten hasi eta astebete garrenera itaundu ziola Uribe Kostako gizon heldu batek alabari: «*Eguraldia* zer da? *Denporea?*».

2019-02-03

[2]

Gaztelaniazko «mediador», «intercesor» eta «enlace» gisako izenak

—Gaur Iñigo Urkulluren Auzitegi Goreneko testigantza dela eta, oso erabiliak diren hitz batzuek zer pentsatua eman digute. Iruditu zaigu, Kataluniako krisian berak egin zuen *zubi-lana* aipatzerakoan, hitz ugari erabili duela eta beste batzuk erabiltzea sahiestu egin nahi izan duela.

- «Intercesor» izan zela esan du. Gure euskara zerbitzuak *artekari* erabiltzea gomendatu digu.
- «Mediador» izatea eskatu ziotela aitortu du. Hori, *bitartekari* izango dela iruditzen zaigu, ezta?
- «Enlace-lanak» egiteko ere eskatu omen zioten. *Zubigile*-edo?
- Jakin nahi genuke, «mediar» eta «intermediar» nola bereiz daitezkeen, bakoitzak zer funtzio betetzen duen...

—Izenak ditugu, batetik gaztelaniazko: «intercesor», «mediador», «enlace». Eta aditzak, bestetik: «mediar», «intermediar», «interceder».

Izenen artean «mediador» dugu erabileraz ezagunena. Kontuan harturik, «mediar» eta «intermediar» aditzak dituztela atzean, garbiena litzateke, *artekari* hautatzea bitarte-lana egiten duen *nor* horrentzat, *artekaritza*, bitartekotza egiten duenarentzat, eta jarduera edo ekintza bera adierazteko, *artekari izan*, *artekari egin*, *artekari jardun* erako aditz-multzoetara jo.

Baina non dago iltzea? *Bitartekari* irristatu dela terminologia modernoan eremu hori betetzeko. Morfologia bitxia duen hitza. Zeren *bitarte* eta *bitarteko* Hegoaldeko tradiziokoak dira ia osoan, baina -KARI Iparraldekoa dugu, ia osoan ere bai. Hibrido bat sortu dugu. Berez gardenagoa izango zen *bitartekari* izena ‘intercesor’ (edo ‘intermediador’) delakoaren eremurako gorde balitz, eta ildo horri jarraiki, *bitartekaritza* geneukake ‘intermediación’ adierazteko, eta ildo horretako aditz multzoak: *bitartekari izan*, *bitartekari egin* eredukoak, ‘intermediar’ aditzera emateko.

Tradizioz, nolanahi ere, ezagunagoak ditugu, ez -KARI atzizkiaz, baizik -KO atzizkiaz garaturiko eratorriak. Hala, *ararteko* eta *bitarteko*, horretan diharduten pertsonak izendatzeko; nahiz, bata eta bestea, eremu semantiko orokorrangoan baliatu izan diren tradiziozko hizkeran. Etxeberri Ziburukoak biak darabiltza ia jarraian: «*Ararteko* har dezala Birjina Ama saildua, / bai San Migel *bitarteko* guztiei agindua» (*Manual Devotionecoa*, I, 50). Hegoaldeko tradizioan *bitarteko* izan da forma nagusia, mintzairan ere den bezala. Herri-hizkeran ohiko galdera da: «Nor izango da auzi horretan *bitarteko*?».

Baina *bitartekari* hobesten bada «mediador» delakoaren ordaintzat, *bitartekaritza* ezinbestean ‘mediación’ adierazteko litzateke, eta *bitartekari* izan edo *egin*, gazt. ‘mediar’ adierazteko.

Arteko eta *bitarteko* izenen artean lehena dugu neutroa eta oinarritzkoa, eta bigarrena markatua. Eta ildo horretan, *artekari* eta *bitartekari* izenen artean ere gauza bera gertatzen da.

Zein bide hartu? Nik tradizioari hurbil jokatu nuke. Hau da, guztietan -KARI atzizkiari lehentasuna eman ordez, -KO atzizkiari ere zirriketua irekiko nioke lege-esparruko adiera jakin batzuetarako, eta *bitarteko* izenaren ondoan *arteko* izen neutroagoari ere leku egin. Eta jarduera abstrakturako, *bitartekotza* izenaren aldamenean *artekotza* orokorragoari ere bai.

2019-03-01

[3]

Intonazioa leku-izenetan: *Gáres* ala *Garés*?

—Zalantza sortu zaigu gure lantaldean, *Korrika* abiatuko den herria aipatzerakoan. Indarra non jarri behar dugun. *Garés* esatea gomendatu digute, bertakoek hala diotela-eta azpi-marratuz, baina boteprontoan *Gáres* esateko joera ere sumatu dugu, natural-natural irte-ten zaigu. *Gáres* ala *Garés*... Zer diozu?

—Patxi Zabaleta euskaltzainari eskatu diot iritzia: nafarra, legegizona, eta he-rritar askorekin harremanean dagoena Nafarroan, euskaldun zein erdaldun.

Bertan inguruetan, izen hori darabiltenean, *Garés* esaten diote, atze-into-nazioaz, eta ez *Gárès*, aurreko silaba markatuta. Gaur egun hango inguruetan galdua bada ere, ez da hainbeste denbora hiriko bertako eta ingurutakoak euskara mintzo zirela, eta haiek *Garés*, *Garésbidea* eta halako toponimoak era-biltzen zituzten. Urrunagoko nafar euskaldunek ere *Garés* esan izan diote. Pentsa daiteke, euskarazko intonazio zaharrak iraun duela gaztelaniara alda-tu denean ere: *Garés*.

Gaztelaniazko Puente la Reina izenaren atzean ere, *Larraina* euskal izen zaharra dagoela dirudi, desitxuraturik bada ere.

Garés hobetsiko nuke, hurbileko eta inguruko hiztunen legea hori delako, baina bestea txartzat jo gabe. Euskara barruan ere intonazio bat baino gehiagoz ahoskatzen diren leku-izenak hainbat dira. Baina hurbilekoen erabilerari lehentasuna ematea ziurragoa da beti. Ahoskera arau zorrotz ba-tez epaitu baino lehenago, leku-izenaren hurbileko hiztunen atxikimendu afektiboa zaindu behar da. Haiek, euskal zein erdal hiztunak izan, euskarara hurbiltzeko gogo-indar bat bezala da hori. Norbere herri, eskualde zein lurraldea hurbilago sentitzen ditugu, geure erara ahoskatzen ditugunean.

—Zein irizpidek finkatzen du zer silabatan jarri azentu-indarra?

—Irizpide zehatz bakarrik ez dagoela oro har esan daiteke euskaraz. Ohitura, usadioa, batez ere herri, eskualde edo lurralde horretakoena dela biderik seguruena deritzat. Horrix eutsiko nioke.

Bi silabako izenetan, atzeko azentua ugariagoa dela dirudi: *Lerín, Irún, Zeráin, Atáun, Larrún*. . . Baina bestera egiten dutenak ere badira: *Ártaun, Arratiako Diman*.

Hala, *Éibar* entzuten da euskaraz gehiago, baina bertako eta inguru zabal bateko hiztunek *Eibár* ahoskatzen dute, azentua atzean dela: *Eibárren, Eibárkoa*. Gaztelaniaz *Érmua* esaten dena, urrunagokoek berdin esaten dute: *Érmua*, baina bertako eta hurreko hiztunek, ostera, *Ermúé* esaten diote, hau da, *Ermúa*, azentua bigarren silaban dela.

Baina bestetik, *Garai* herria, gaztelaniaz ere *Garái* ahoskatua, Durangoaldeko hiztunek aurreko azentuaz ahoskatzen dute, eta horrez gainera hiztun zaharrek -A mugatzaile eta guzti: *Gáraidxe*, hau da, *Gáraia*, eta deklinaturik: *Gáraikoa* edo *Gáraidxen* (*Gáraian*).

Gipuzkoako Goierriin, kanpokoek *Zaldibi* edo *Zaldibia* ahoskatzen dutena, bertako eta ingurukoek *Záldibi* egiten diote, azentua aurrean dela.

Aholku gisa, dakigunean behintzat, ingurukoen ahoskera joera lehenes-
tea da zuhurrena. Eta ez dakigunean, hurbileko jendeari galdetzea, norbera
asmatzen ibili barik.

—Eta badago esateko modu bat baino gehiago? Ala araua zorrotza da?

Intonazioa leku-izenetan: *Gáres* ala *Garés*?

—Intonazio bat edo bi dira leku-izen batzuetan, euskara barruan ere. *Bizkaia* lurralde-izenaren kasua. Hitzunen artean zabalaren dabilena *Bízkaia* da dudatzeke, indarra lehen silaban dela. Baina Arratia —zati batean, behintzat— eta Nerbioi ibarretako hiztun zaharren legea *Bizkaíe* da, indarra bigarren silaban dela, gaztelaniazko ahoskera berbera: *Bizkaía*. Honetan gehiengoaren legea aplikatzea gomendatuko nuke.

Baina bada sasijoera bat: gaztelaniaren ahoskera itsumustuan imitatzea. *Donóstjara* doala esaten badizu batek, badakizu erdal ahoskera datzala azpian: «Voy a Donóstia». Baina *Donósti-a-ra* doala dioena euskaraz ari da. Badakizu, *Azpéitiara* doana ez dela euskaraz ari, baina bai *Azpei-ti-ra* doana. Euskaraz diptongorik nekez egiten dugu, gaztelaniaz barra-barra erabili arren.

Bergará darabilgu euskaldunok, ez *Bergàrà*. *Tolósá* eta ez *Tolòsà*, *Lekéitió* eta ez *Lekéitjò*.

2019-04-04

[4]

«*Tasunkeriaren*» kontrako txertoa...

—Honela diosku entzule baten mezuak:

«Gaur goizean honako *perla* hau bota duzue: "Espezieak *azkartasunez* desagertzen ari dira". 'Tasunkeriaren' kontrako txertoa hartu behar duzue, Elko kazetari estimatuok».

Azkartasun hori, argi eta garbi, okerra dela jabetzen garen arren, ariketa eginez jarri gara, zenbat -tasun alferrikako erabiltzen ote dugun: *poztasunez*, *pozik* beharrean, bizkortasunez, *bizkor* beharrean; *lasaitasunez*, *lasai* erabiltzea nahikoa denean... *Apaltasunez* esaten ote dugu *apal* esatea aski denean? *Egunerokotasuna* barra-barra erabiltzen da, *egunerokoan* esan beharrean. Eta hamaikatxo gehiago. Ez dakit inoiz horrelakorik esatera heldu garen baina, izan liteke, halakok *itsutasun-arazoak* dituela esatea, *itsu* geratzen ari dela esan beharrean?

—(I) -TASUN atzizkiaren erabileraz eta errendimenduaz hitz egingo dugu lehenengo.

Eratorikuntza tipo hau guztiz da emankorra euskaran, bai tradizio-ida-tzian, bai berbetan, eta berdin gaur egungo hitz-sorkuntzan ere: zientzia gaietan zein edozein arlotako kontzeptu berri askoren terminologian.

Emankortasun horren erakusle da, lexikalizazio finkodun eratorriez gain, eratorri libreak ere aise sortzen direla edo sor daitezkeela; sarri hiztegi-tan sarrerarik ere ageri ez dutenak. Hala: «*gizontasunik* batere ez du erakutsi» esaten den modu berean, esan daiteke: «*andratasunik*. . .». Era berean: «zure hitzen *gozotasuna*» esaten den legez, «... *eztitasuna*» esatea ere berez dator.

Atzizki hau emankor izatearen giltza, edozeren edo edozeinen kualitate abstraktua adieraztean datza: kualitate *neutroa* nolanahi ere, eta ez nahitaez *positiboa*, idazle eta gramatikari batzuek sinestarazi nahi izan digutenez. *Harrotasuna* onerakoa zein txarrerakoa izan daiteke. -TASUN neutroa den bezala, -KERIA markatua da, ezeste joerakoa: *barrokeria* beti da gaitzesgarria.

Ointzat hartzen den hitzaren esanahia positiboa edo negatiboa izan, horre-
xek baldintzatuko du -TASUN atzizkidun izena positibo edo negatiboa izatea.

Positiboen artean aipatzekoak dira: *edertasun*, *poztasun*, *sendotasun*. . . Baina negatiboak dira, edo izan daitezke, ordea: *erotasun* eta *zorotasun*, *itsutasun*, *itxi-tasun* edo *buru-itxitasun*, *egoskortasun* eta beste asko.

(II) Eta orain, aipatu duzun gehiegizko erabilera hori sakonduko dugu.

Gehiegizko erabileraren arriskua bada hizkera landuan, eta ondorioz testua astuntzekoa. Zertatik dator gehiegizko erabilera hori? Hona hemen arrazoi batzuk:

- Gaztelania eta beste hizkuntza jasoekin berdindu nahiak eraginda. Gazt. «actualidad» badago, euskaraz *gaurkotasuna* (hitz naturala, bestalde) edo *oraingotasuna* (ez hain naturala) erabiltzen dira.

- Erdaratik itzuli beharrak eraginda, gaztelania edo erromantze-hizkuntzen morroi garelako jotzen dugu batzuetan «*tasunkeria*» horretara.

Hizkuntzaren erregistro-mailak ere bereizi behar dira. Ez da berdin irratiz edo telebistaz hitzez esatea eta idatzizko dokumentu batean txertatzea, are gehiago, jakintza-eremu bateko kontzeptuak direnean. Hala, testamentu bat dela eta, ea *oinordeko* zaren galdetzea da bat, eta *oinordekotasuna* zuzenbidean azaldu edo ikastea beste bat: «derecho de sucesión», alegia. Gaztelaniaz «perpendicular» eta «perpendicularidad» kontzeptuak diren bezala, euskaraz ere *perpendikularitasun* izena gara daiteke, nahiz gordin eta astun samar gertatu. Zuta edo *zut izatea* hitzak errazago ulertuko lirateke, beharbada.

EITBren aspaldiko txosten batean irakurri nuen paragrafo baten atalburu hau: «*Informazioen objektibotasuna, egiazkotasuna eta inpartzialtasuna*» (2013). Atzizkidun eratorria saihesteko era bat izan daiteke, *objektibo*, *egiazko* eta *inpartzial izatea* berridaztea; hau da, *izate* aditzizenaz ordezkatzeari -TASUN atzizkia. Ahozkotik hurbilago sarritan.

Adjektibo kategoriako hitz bat erabiltzea izan daiteke -TASUN txertatu beharra baztertzeko aukera. Hala: «*Orokorrarri* begiratu behar zaio» esatea, *orokortasunari* garatzen ibili gabe.

Adberbioak erabiltzera ere jo daiteke batzuetan. Goian aipatu diren *poztasunez*, *bizkortasunez*, *lasaitasunez*, *erosotasunez* adizlagunen lekuan, *pozik*, *bizkor*, *lasai*, *eroso*, adibidez. Mezua labur eta zuzenago esateko modu bat.

Gaztelaniaz eta erromantze-hizkuntzetan izen sustantiboetarako joera dagoen kasu askotan, euskaraz beste egitura batera jo ohi dugu. Hain aspaldi ez dela, batzar orokor batean, kide batzuen artean zalaparta edo istilua sortu zela-eta, mahaiburua egiten zuenak erregutu zien: «*Isiltasuna, mesedez!*». Euskaldunoi errazago etortzen zaigu honelako formularen bat: *Isilik mesedez!*, edo: *Isilik egon, mesedez!*. Hitzunon estilo naturala, kasu horretan *isilik egon* aditz-lokuzioa erabiltzekoa gehiago da, *isiltasuna* izen abstraktora jotzekoa baino.

Estilo kontuaz ari gara, azken batean. Euskaraz dugun estiloa, batez ere hitzez ari garenean, labur eta zuzen esatekoa da, formalismo edo -TASUN gehiegi gabe. Euskararen iraungarrirako sendabide ona, neure ustez.

[5]

Baliotan jarri esamodua

- Gaztelaniaz, «poner en valor» boladan dago, eta kutsaduraz, gero eta gehiago entzuten ari gara euskarazko jardunetan ere. Zer deritzazu?
- Gaztelaniaz ere esamolde berria dugu «poner en valor» hori. Ingelesetik hitzez hitz hartua: «put in value». Frantsesez, orobat: «mettre en valeur». Alemanak libreago egokitu du: «Wert legen», hau da, '*balioa jarri, balioa ipini, balioa eman*'.

Zerbaiti, ekintza, jarduera, ideia edo asmo bati, aparteko arreta edo ardua jarri behar zaiola, bere ontasunak goratu, agerian edo nabarmen jarri —baina modurik positiboenean, jarri ere—, edo aupatu egin behar dela, baina halako erreibindikatzeko puntu batekin; horixe da esapide horrekin adierazi nahi dena. *Hezkuntza*, esaterako.

Nola adierazi edo egokitu euskarara egoki?

Balio hitzaz, izenaz, baliatzea dugu errazena. Eta aditz-lokuzio batera jo, *buts egin, hitz eman* direnen antzera.

Irrati-esatarien hizkuntza senaz bat nator, eta *baliotan jarri* edo *balioan jarri* edo *balioan ipini* formulei kalko estuegiak derizkiet neuk ere.

Badira beste era batzuk, begi argiagoraz ikusiko nituzkeenak. Hara batzuk:

- *Balioa eman* proposa daiteke; edo aditza aldatuz, *balioa nabarmendu, balioa goratu* edo besteren bat.

Xalbador bertsolariak *Odolaren mintzoa* liburuan dakarren esaldi bat: «Hizkuntzari ere *balioa ematen* zaio urrats hoier erakatsiz».

- *Balioa eragin* ere guztiz egokitzat daukat. Batetik aditza dugu, *balio eragin*, gazt. 'hacer valer, valorizar' esanahia duena (Toribio Etxebarria, *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*), baina *balio* izendunik ere proposa daiteke: *balioa eragin*, zeri edo hari.

EUSKADI IRRATIAK batzuetan darabilen *balioetsi* ere zuzen eraikia dago, *hautetsi, opetsi* eta halakoen bidetik, nahiz gizartean ez duen oraindik guztizko harrerarik irabazi. Baina aukera ona izan daiteke.

[6]

Osasun-hesia

—Jatorriz, frantsesez, «cordon sanitaire»; gaztelaniaz, «cordón sanitario». Euskaraz, nola beharko luke?

—Ingelesez ere «sanitary cord» esaten da, hitz-elkarketaren legea aplikaturik. Frantsesetik sartu da gaztelaniara eta italierara ere, kalko garbia eginik. Alemanez ere antzera, baina lehen izena desberdina: «Hygienekordon».

Hizkuntza guztiotan dago, bada, «cordón» hitzaren kontzeptua, irudiz gisa hartua. Euskaraz *soka*, *sokabibur*, *kordoi* edo *txirikorda* lirateke ordain hurbilak. Baina esanahi figuratua duenez, beste bide bat hartu hobe.

EUSKADI IRRATIAK darabilen *osasun hesia* zuzen eta egokia begitantzen zait: *hesi* izenak, bestalde, irudi gisa, *soka* edo ildokoek baino indar handiagoa du. Hitz hori bera etorri zitzaidan burura, gaztelaniazkoaren euskal ordaintzat. *Osasun lerroa* ere bideragarri da, baina *hesi* hitzak hobeto adierazten du mezua, askozaz ere.

Osasun langa, aukeran egon arren, beharbada ilunegia da adierazi nahi den horretarako...

—Idatzi, marraz ala marra gabe egin behar da?

—Bereiz idaztearen aldekoago naiz, izen biak banan idatzita. Baina gure gizartean agian joera handiagoa dago marratxoa ipintzeko. Bietara da posible: *osasun(-)hesia*.

—Hitzaren jatorriari begira, esamolde hau sortu zuten, gaixotasun kutsakor baten hedapena saihesteko jartzen zen hesia adierazteko. *Berrogeialdia* ere sinonimo bezala erabili izan da horretarako. Kasu honetarako balio al du? Edo *berrogeialdia* denbora-tarte jakin bat adierazteko eta osasunari lotuta erabiltzen da soilik?

—Halaxe da. Lehenagoko izurriteen garaian, erraz nahastu edo kutsatzen zen eritasunak oraturik zegoen jendea, giza komunitate hori, isolatu egiten zen,

mugimenduak galerazi, beste herri edo lurraldeetara zabaldu ez zedin eritasun hura. *Berrogeialdia*, gaztelaniaz «cuarentena», esaten zitzaion horri.

Berez balio dezake, baina ez erabat. Iraunkorragoa eta luzeagoa izatearen asmoa du *hesi* edo itxitura bat eraikitzeak, ez 40 eguneko aldia.

—*Lokarri* hitza erabilgarria da, gaztelaniaz «cordón sanitario» delakoaren hitz-katean?

—*Lokarri* hitzak lotura edo elkartzea egiteaz du zerikusi handiagoa, baina hemen justu kontrakoa adierazi nahi da: banatu, bereizi, isolatu egingo duen *lerro* bat, *itxututa* bat, *murru* bat jartzea.

Hesi hitzari guztiz egokia deritzat, *besitu* aditzak bezala *itxi*, *zerratu*, *barrutu* egiten baitu eremu bat. Errefrau zahar baten oihartzuna: «Ahuntzak garia ikusi, baina ez *hesia*» (*Refranes y Sentencias*, 359).

—Osasun-arrazoiak zirela medio sortu zuten esamoldea, baina askotan ezkutuko arrazoi politikoen aitzakian ere erabili izan da. Frantziak, 1822an *osasun hesi* hori ezarri zuen Piriñoetan. Horrela, saihestu egin nahi zuen Espainiar Estatutik Konstituzioaren aldeko ideiak zabaltzea. Eta Sobietar Batasunaren aurkako hainbat herrialdek ere ezarri zuten, komunismoaren hedapena oztopatzeko.

—Kontrako ideologiaren sarrera galarazteko *osasun hesia* jartzea dela-eta, Euskal Herrian, eta euskara tartean dela ere, gertatu da hori. Hiriart-Urruty idazleak idatzi zuen hor nonbaiten, Elizak Iparraldean euskara erabili eta bulztatu zuela, besteak beste, frantsesaren bidez Paris aldetik zetozen pentsaera ezkertiarrek galgatzeko.

«Euskaldun fededun» esaera guztiz ezaguna dugu gure artean. Esan ohi da, euskara, euskal hizkuntza, halako *osasun hesia* izan dela lehengo belaunaldietan, gaztelania edo frantsesa bezalako hizkuntza nagusiak arriskutzat ikusten zirelako, batez ere liburuen bidez, ideologia ezkertiarrek *hesitze*ko.

—Euskaltzaindiak noiztik darabil esamoldea adiera horrekin? Azken urteotan zabaldu ote da erabilerak?

—Bada esaera zahar bat, *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* zentzu fisikoan jasorik dakerrena, eta lehentxoago ere aipatu izan dudana: «Ahuntzak garia ikusi, baina

ez *hesia*». Baina irudizko balioaz ere bilduta dakar 2. adieran, honako adibideekin: «*Nolabaiteko hesiak jarri beharko dizkiogu gure biztegiari*». «*Itsasoaren hesi handia*». «*Gorrotzko hesi bat jarri dute euren artean*». «*Bihotzeko gurari gaiztoei hesia ipintzeko*».

Baina bete-betean sartzen dela esango nuke *osasun* kontuan ere aplikatzea: *osasun-hesia*.

2019-06-17

[7]

***Pintza* izenaren esanahia**

—Hauteskundeen bueltan, azken hilabeteotan sarri entzun dugun hitza, eta zalantza piztu diguna, *pintza* da. Bi aldeen arteko babesaz ari garenean, beste baten kaltetan, *pintza egitea*, *pintzarena egitea*... esan liteke? Nola esan beharko genuke euskaraz?

—«*Pinza*» hitzaren esangura propioa nahiko urrundua dago esamolde barruan darabilgunetik: «hacer pinza». Esanahi zuzena, zerbaiti eusteko darabilgun lanabes edo tresnarena, *pintza* edo *matxarda* izan daiteke. Baina lokuzioaren balioa bestelakoa da.

Era bat baino gehiago dago '*pintza egin*' edo '*pintzarena egin*' aditzera emateko. Aditz-lokuziorik neutroenak, *elkar hartu*, *bat egin* edo *bat hartu* izan daitezke. Baina aditz-lokuzio horri *atzetik* edo *ostetik* erantsita gardenago azaltzen da: *atzetik* edo *ostetik bat egin* edo *elkar hartu*. *Biko egin* edo *bikoa egin* lokuzioa ere entzun dut inoiz, antzeko esanguraz.

Eta bada beste aditz-lokuzio bat ere, *batzan ibili* edo *batzanduta egon*, beste baten edo batzuen isilean bi adosten direnean esaten dena: *Batzan dabiltzala* —edo *batzanduta daudela*— besteren kaltetan.

Askotan itzulpena hitzez hitz egitera jotzen dugu. Zuzenean itzuli ordeztu, ez ote litzateke beste modu batera esanda ulergarriagoa izango?

Ni horretan nago, behintzat. Zuzeneko itzulpenak, kalko errazak izan ohi dira. Beste ahalegin hau, ordea, hobe izaten da: euskaraz ari garenean, nola esaten dugu mezu hori bera? Erdarazko esamoldea ahaztu, zeinda ez balego bezala, eta guk geutara nola espresatuko genukeen hori pentsatu. Eraitza hobe ateratzen da ia beti.

2019-06-17

[8]

Zalantzazko *datozen orduetan formula eta horren kidekoak

—Denboraz ari garenean, urteaz, hilabeteaz, asteaz edo egunaz, gutxi-asko guztiok esaten dugu: *datorren urtean*, *datorren hilean* edo *hilabetean*, *datorren astean* eta abar. Berdina al da pluralean ere? *Datozen urteetan* ondo esanda al dago?

—*Datorren* berez-berez denbora-izenekin darabilgu, Iparraldean *heldu den* egiten den moduan. Denbora-tarte luze samarra adierazten duten izenekin batez ere: *datorren urtean*, *datorren bilean* | *hilabetean*, *datorren astean*, eta berdintsu *datorren neguan*, *datorren uztailean* edo *datorren igandean*. Baina *egun* denbora-izenarekin normalean ez dugu esaten *datorren egunean*, hain zuzen ere, gaurkoaren ostean *datorren* egunak bere izen propioa duelako: *bihar*; eta izen zehatzak dituzte baita hurrengo egunek ere: *etzi* eta *etzidamu*.

Asteko egun-izenekin, etorkizun direnekin ere, *datorren* darabilgu: *datorren astelehenean*, *datorren ostiralean* edo *datorren igandean*.

Iparraldean, ezagunena, *heldu den* dugu: *heldu den igandean*, *heldu den ortziralean*, baina beste egitura batzuez ere baliatzen dira hiztunak: *hurbilen ortziralean* edo *daugin igandean*, azkenengo hau zahar kutsukoa gehiagokoa.

Eta etortzeko dagoen egun hori zehaztugabe badago, zein aste-egun den ziur ez badakigu, edo gutxi gorabeherakoa bada, *datorren egun batean* esaten dugu, eta baita *gaineko* edo *gainerako egun batean* ere.

Goiza, arratsa, gaua bezalako izenekin ez dugu *datorren* erabiltzen. Oraingoaren hurrengo bada: *bihar goizean*, *bihar arratsean*, *bihar gauaz*. Eta bestela: *hurrengo goizean*, *ondoko gauean*, *hurbilen arratsaldean*...

Bide batez gogora dezagun, *datorren* eta *hurrengo* ez direla berdin erabiltzen denbora-egiturotan. *Hurrengo astean* diogunean, aurreko aste baten hurrengoaz ari gara. Baina *datorren astean* diogunean, aldiz, oraingo, hitz egiten ari garen aste honen hurrengo aipatu gura dugu.

Datorren horren harira, analogiaz *datozen* erabiltzen ere aspaldi hasiak gara, denbora-izenak pluralez eman nahi ditugunean. Hala garatu dira, he-dabideetan berariaz, hiztunen berezko berba-jarioan erabiltzen ez diren **datozen egunetan*, **datozen bileetan* | *hilabeetan*, **datozen urteetan* eta gainerako guztiak, gatzelaniaz ere «próximo, siguiente...» adjektiboekin egiten de-

naren txutxuan. Gaztelaniako «próximo | próximos» delako bitasunetik datorrelakoan nago nahasketa hori, osoan ez bada, zati batean behintzat. Bietara darabilgu gaztelaniaz: «el año próximo, los años próximos». Baina gaztelaniaz ere, «el año que viene» normala den arren, ez da hainbeste «los años que vienen» esatea.

—Zer aukera daukagu, bada, denbora-izenak pluralez darabiltzagunean?

—Hegoaldeko hizkeretan erabiliena *burrengo* dela esango nuke, aukeran *hurren* ere dugula, eta Iparraldean, batez ere, *geroko*. *Hurrengo urteetan* da singularreko *datorren urtean* delakoaren pluraleko ordain naturala; hau da, hemendik aurrerako urteetan. Pluralean ez dugu egiten singularrean ohi dugun *datorren* | *burrengo* partiketa. Pluraleko denbora-unitateak guztiak dira *burrengoak*, edo aukeran *gerokoak* edo *ondokoak*. Horregatik hobetsiko ditugu, beraz: *burrengo urteetan*, *geroko urteetan*, *ondoko urteetan*, *gainerako urteetan* edo dena delakoa, baina ez arren eta mesedez **datozen urteetan*.

Baina bada beste estrategia laburrago bat ere oraingoaren hurrengo denbora-tarteak izendatzeko, guztiz aintzat hartzekoa, eta hauxe da: plural hurbilaz baliatzea, -OTAN atzizkiaz, hartan ere, -ETAN atzizkia erabili ordeztu. *Egunotan*, *asteotan*, *hileotan* edo *urteotan* diogunean, testuinguruaren arabera izan daitezke oraintxe momentuon bizi ditugunak, edo hurren ditugun gerokoak. Denbora-erreferentzia laburren emateko modu arin eta eroso.

—Eta zer gertatzen da denbora laburra adierazten duten izenekin? *Orduak*, *minutuak*, *segundoak*, alegia...

—Denbora-tarte laburra adierazten duten izenekin ez da erabiltzen, ez *datorren* singularra, ez *datozen* plurala.

Egia da, denbora-tarte laburrak izanik, pluralez gehiago erabiltzen ditugula, baina edozein kasutan ere, beste egitura batzuk baliatuta egiten dugu. *Hurrengo orduan*, edo *burrengo orduetan*, edo *burrengo orduotan*, hurbiltasuna markatuz. Eta berdin: *burrengo minutuan*, *burrengo minutuetan*, *burrengo minutuotan*. Eta beste hainbeste *segundoekin*: *burrengo segundoetan* edota *burrengo segundootan*.

Ildo beretik, *geroko* erabilia: *geroko orduetan*, *geroko minutuetan*, *geroko segundootan*. . .

Eta beste aukera bat dugu, gorago aipatua, eta guztiz zabal dabilena: *ondoko | osteko orduetan, ondoko | osteko minutuetan, ondoko | osteko segundotan*; eta hurbiltasuna markaturik: *ondoko | osteko orduotan, ondoko | osteko minutuotan, ondoko | osteko segundootan*.

—Eta denboraz kanpoko eremuetan, zertarako erabili ohi dugu *datozen*?

—Denboraz kanpoko eremuetan, beste esanahi batzuetarako, arazo barik erabiltzen dugu *datozen*. Esan dezakegu: *gainera datozen arazoak, honez aurrera datozen lanak, ondoren datozen zereginak...* Esan daiteke: «*Datozen gertaerak ikusteko gaude oraindik*».

Lurralde batera bisita bat egitera bagoaz autoz esaterako, esan dezakegu: *Hurrengo datozen herriak ikusgarriak dira. Jendeagatik ere esan dezakegu: Hor aurrean datozen neska-mutilak ezagunak ditut*.

Hitz batez esanda, *datozen* erabiltzeak duen muga nagusia, denbora-izenekikoa da.

2019-06-27

[9]

«Backstop» anglizismoa

—Erresuma Batuen *brexite* delakoaren negoziazioetan indarberritu den hitza dugu, Ipar Irlandaren berezitasuna, merkataritza arlokoa, aditzera emateko. «Backstop» hitzak, berez, 'barrera', 'langa' edo 'hesia' adierazten du. Mailegu-hitza, ingelesetik hartua. Nola eman euskaraz? Hortxe gakoa.

—Frantsesak ingeles mailegua hartu du bere horretan. Nederlandarak ere bai. Alemanez, ordea, *Sperre* darabilte «barrera» hitzaren ordaintzat, eta adiera honetan: *Rücklauf Sperre*, euskaraz *atzerabide langa*, *atzerabide muga* edo *atzerabide barrera* itzul daitekeena. Hizkuntza hori, beste kontzeptu askotan bezala, garbizaleago ageri da, hizkuntzaren barne erroetatik ateratako ordain-hitzen zaleago. Euskara bera ere, kultura-hitz askotan jokabide horren zaleago ageri da gaur ere, XX. mendeko lehen hereneko aranismoaren bidetik izan ez arren.

Gaztelaniaz «*salvaguarda*» hautatu da adiera honentzat. Berez bestelako esanahia du «*salvaguarda*» hitzak: salbuespen egoera baten antzeko *babespe*, *zainpe*, *aterpe*, *estalpe* edo horrelako zerbait. Eta ulergarriago egiten da hitz honen bidez Irlandarako berezitasun proposamena.

—«*Backstop*» kontzeptua pitin bat azaltzea komeni da.

*Brexit*aren ondorioz, Irlanda barruan, Iparraren eta Hegoaren artean, muga gogorrik ez egotea da «backstop» horrek adierazten duena, aldi jakin batean behintzat; hau da, hori bermatuko duen aseguru-edo da «backstop» izenez deiturikoa. Hots, merkataritza- eta segurtasun-gaietan, Irlanda bien artean, Ipar Irlanda eta Irlandako Errepublikaren artean, muga zorrotzik ez ezartzea.

«*Backstop*» hitza esanahi bereziaz erabilia izan da testuinguru horretan eta Irlandako mugaren aferan, eta ez berez dagokion oinarritzko esanahiaz, 'barrera' esanguraz, alegia.

Izan ere, Ipar Irlandan hamarkadetan iraun duen gatazka hori amaitzea erabaki zenean, estatu bien arteko muga fisikoa ezabatzea hitzartu zen 1998ko Ostiral Santuko bake-akordioan.

Zer egin hitz horrekin euskararen kasuan, beraz?

—Zentzuzkoena, mailegua bera geuganatzeari deritzat, frantsesez egin den antzera; hain zuzen, *brexitaren* testuinguruan hitz horrek duen esanahi bereziagatik.

Euskara barrutik ordain bat edo batzuk proposatzekotan: *muga-salbuetsia*, *mugaren salbuespen-bermea* edo horrelako zerbait asmatu beharko litzateke.

2019-09-09

[10]

***Mintzidatzia* hitzaren sorkuntza**

—Donostiako Tabakaleran, Euskaltzaindiak lehengo asteko ostegun-ostiraletan egin berri dituen ingurune digitala eta euskararen estandarizazioaren inguruko jardunaldietan entzun den hitz bitxi samarra dakargu gaur: testu *mintzidatzia*. Zer esateko sortu da hitz hori: *mintzidatzia*?

—*Mintzidatzi* aditzik ez dugu euskaraz. *Mintzatu* edo *mintzo izan* aditzak bai, eta *idatzi* ere bai, baina *mintzidatzi* hitza oraintsu asmatua da. Eta asmatu da, hain zuzen, *whatsapp* bidez batik bat, eta gazteek gehienbat, hitz egiten den bezalaxe, *mintzatzen* garen legetxe, idatziz darabilten erregistroa izendatzeko.

Adibidez: *etxean* idatzi ordez [*etxien*]; *mendian* idatzi ordez [*mendiyan*], [*mendixen*]; *itsasoan* idatzi ordez [*itxasuen*], edota *orain* idatzi ordez [*oain*] edo [*oin*] egiteari ohi deritza *mintzidatzia*.

Gazteen artean indarra hartu du ahozkoaren fenomenoak, herri euskaldun sendoetan batez ere. Aipa daitezke, barbarako, Azpeitia, Eibar, Ondarroa, Tolosa, Leitza eta beste asko.

Mintzidatzi izen eta adjektibo modura irakurtzen dugu, baina ez nago seguru etorkizunean indarririk hartuko duenentz. Nolanahi ere, hitz elkartu berria da, deigarri eta kurioa; euskal gizartean, teknologia berrien harian eho den hitz berria, hizkera-fenomeno berri samar bati erantzuteko. Euskaradunok bizirik gauden seinale.

—Orain artean *idatzia* oinarritzat gehiago hartu izan dugu, eta orain hitzez darabilgun euskari arreta handiagoa jartzen hasiak al gara?

—*Idatzia* da beti prestigioa duena eta izan duena. Gaur eta lehen. Eta hiztegiak, lexiko corpusak, estilo-liburu edo gramatikak egin orduan, *idatzia* hartu izan da oinarritzat.

Euskaltzaindiaren kontsulta-corpus garrantzitsuenak ere idatziarenak dira batik bat. *Orotariko Euskal Hiztegia*, gure tradizio idatziaren ispilu da, *Euskal Klasikoen Corpora* (EKC), *Ereduzko Prosa Gaur* (EPG), azken 40-50 urteotan

idazten denaren ispilu, berdin *Lexikoaren Behatokia* eta abar. Euskaraz ditugun hiztegi eta corpusetan ere, beraz, idatzizko testuak aintzat hartu izan dira batez ere, direla idazle klasikoak, direla modernoak, eta oraintsuagoan, egunkari-aldizkarietako idatziak, edo administrazioan, eskoletan eta uni-berbtsitatean sortu eta erabiltzen diren testuak.

Gutxiago, ordea, *mintzoa*, hizketan, berbetan darabilgun hizkera. Kontua da, gaur egun, ahoz darabilgun estiloari gehiago erreparatzen hasita gaudela, balio handiagoa ematen, hori ere euskararen harrobitzat hartuta gaudelako. Joera hau albiste ona da neure ustez, zeren azken batean ezpainetan darabilguna da bizi dugun hizkuntza, eta berdin dio euskara, gaztelania edo galego hizkuntza izan.

Ahozkoaren estimazioa, euskarak bizirik eta bizitasunez irauteaz zeri-kusi estua duelako gertatu da neurri handi batean. Hitzez egiten dugun hori, gure hizketa naturala delako oinarrian, benetakoa. Idatzizkoa, ostera, mintzo garen horren ispilu landua da. Eta gazteen artean indarra hartu du, estimazioa irabazi du, batez ere harreman naturaletan, kalean, lagunartean eta abarretan.

—*Mintzidatzia* hitz asmatu berria da. Baina izango dira, bestetik, hitz zaharrak edo zaharkituak ere, gaur indarberriturik ageri direnak. Gure gizartea modernoagotu ahala, esanahi berriz erabiliak diren lehenagoko hitz zaharrak.

—Lehenago ere ezagutu dut nik, euskarak bere barruan zaharberritze fenomeno hau izatea. *Ibarri* edo *jaurri* aditz berezia da, ‘isuri’ esan nahi duena: ura, esnea. . . *jaurri*. Horretatik datorke *jaurleri* izena, ‘gobernadore’ esateko gerra aurrean erabili izan zena, eta hortik dator gaur egungo *Jaurlearitza* izena, ‘Gobernua’ esateko.

—Hizkuntzen artean euskarri digitalean diren aldeak adierazteko entzuten den hitz bitxi bat da: hizkuntzen arteko *arrakala* digitala.

—Fenomeno berbera da. *Arrakala*, zer da herri-hizkeran? *Arraildura* edo *pitzadura* esaten zaiona beste leku batzuetan. Hormetan, egurretan, kristaletan, buztinezko ontzietan gertatzen dira *arrakalak* jeneralki. Hormak, paretak, konpontzen edo berritzen ez badira, *arrakalatu*, *arraildu* edo *pitzatu* egiten dira.

Baina informatika-munduan finkatu den kontzeptua da, gaztelaniaz «brecha digital» deritzana. Horrexetarako berrerabili da hitz zahar hau, *arrakala digitala*, eta indarra hartu du.

Beste hitz bitxi samar bat, herri-berbetan gutxi entzuten dena, *ataza*, lehenengo ostiralean entzun nuen aspaldiko partez Kursaalean hitzaldi batean.

Ataza (*atazea*), Uribe Kosta aldeko euskaran entzuten den hitza da: ‘*ardura astuna*’, ‘*lantegi gogorra*’; bestela esanda: ‘*kezka*’, ‘*buruhaustea*’, ‘*eginbeharra*’, ‘*ahalegina*’. Lan bat *ataza barik* egitea, estutasun barik egitea da. *Ataza batean* zeregin guztiak betetzea, ahalegin bakarrean, bide batez bezala guztiak egitea da. Esakuntza baten hitzak dira: «*Egun bakotxak bere atazea*»; hau da, gaztelaniaz: «Cada día su afán».

Hitz hori, hitzez ingurune laburrean erabilia dena, biziberritu egin da gaztelaniazko «tarea» adierazteko, batez ere administrazio-munduan. Hala irakurtzen dira: *atazen* banaketa; *atazak* burutu; *atazak* kudeatu; *ataza* baten ardura duen pertsona.

2019-09-14

[11]

«Abocada a elecciones» erdal esapidea

—Hauteskunde errepikapenaz jo eta su aritu gara azken egunotan. Joan den astean ezin izan genion horri *ihes egin izan*; *erremediorik gabe* aritu ginen berriz ere; *beste aukerarik ez genuen izan*...

Itzulinguru horietan ibili ginen, bada, esamodu horiek erabiliz, «abocado» terminoa euskarara ekartzeko. «España, abocada a elecciones», horixe izan zen lerroburuetako bat. Eta lerroburuetan, behintzat, guk ez genuen asmatu...

—Gaztelaniaz ere, testuinguru horretan, «estar abocado a» aditz-esapidea gehiago erabiltzen da, «abocarse a» aditza baino.

Ordain ezagun eta soil batekin emango nuke euskaraz, hor adierazi nahi den hori: *behartua izan* edo *behartua egon*. Eta sartalderantz gehiago: *behartuta egon*. Hala: «Hauteskunde berriak *egitera behartua* da —edota *behartuta dago*— Espainia. Halaxe erabaki du funtziotan den lehendakariak».

Ezinbestean edo *ezinbestez* adberbioaz ere indartu eta borobildu daiteke perifrasi horren mezua: «*Ezinbestean* —edo *ezinbestez*— bozketak izatera deituko du Estatua». Edo baita: «*Ezinbesteak bultzatuta* —edo *ezinbesteak eraginda*— deitu dira bozketak».

2019-09-23

[12]

Desafekzioa

—Itxura duenez, azaroaren 10eko haustekundeetan abstentzioak dezente egingo du gora, politikarekiko gogaitze-maila gero eta handiagoa delako herritarren artean. Politikarekiko *desafekzioaz* hitz egiten da...

—Bide bat, denik errazena, eta ingeles, frantses, gaztelania eta erromantze-hizkuntzek darabiltena, zuzenean mailegutzat berori hartzea da: *desafekzioa*. Errazenera jotzea agian?

Bada, hala ere, beste modurik, *desafekzio* kontzeptuak ingurune horretan duen esanahia euskaraz zehatz emateko. Hitz bi hautatu ditut lehenik, beste gehiagoren artean aukerako ikusten ditudanak.

Bata, *hotz* hitzaren ardatzean, *hoztasuna* proposa daiteke, -TASUN atzizki neutroaz; eta hitz-oin beraz baliaturik, *hozkeria* ere bidera daiteke; hau markatua, eta aurrekoa bezain gustuko dudana: «Herritarrengan *hoztasuna* eragin duela hauteskunde kontu honek».

Bigarren aukera bat ere aurrera daiteke, bihurrixegoa: *gaitzestasuna*. Jendeak halako *gaitzeste* sentsazioa hartzen dion zerbait dela adierazteko. Plazido Mujikaren gaztelania-euskara hiztegi nagusian ageri da hitz hau, (AN) markaz.

Eta hirugarren aukera dugu, atze *hitzaren* oinaz bilbatutako *atzeraka* eragin aditz-lokuzioa, eta esan: *Politikak* atzeraka eragiten *dio jendeari*. Eta izen-eratorri bat garatuz: *atzetasuna*, Azkuek ‘desaliento, retraimiento’ modura itzultzen duen hitza.

Euskara ez da bere bide propioa urratu duen hizkuntza. Aleman hizkuntzak, kasurako, bere aukera propioa egin du: *unzufrieden* adjektibotik, *Unzufriedenheit*. Nahiz hitz hau ‘*nahigabea*, *atsekabea*’ adieraz ere erabiltzen den.

Euskara hiztegieta hitz honi eman zaizkion ordainak, ia guztiak, ez daitoz bat hemen adierazi nahi den kontzeptuaz.

Jesus Antonio Etkezarraga idazle eta kazetariak, *desafekzioa* dela-eta, anekdota hau kontatu dit: elizan, atzeko jarlekuan jesartzen ziren fede gutxikoei, «horreek *hotz* klasekoak dozak» esaten zitzaizela Zeanurin.

[13]

Klima-larrialdia

—Klima-larrialdia da, mundu guztia lau dardan jarri duen egoera kezkarria, batez ere belaunaldi gazteentzat. *Klima-larrialdia*, horrela esanda, ondo adierazita dago?

—*Klima-larrialdia* erabili mila bider hobe da, *emerjentzia klimatikoa* erdal kalkoan erori baino. *Klima* izena beste izen baten aurretik, izen-elkartua osatuz, hainbat hobeto, atzean *klimatiko* adjektibo modura erantsita baino. Maiztasun handiko izen-bikotea dugu *klima-aldaketa* delako hori, baina berdin jokatu genuke klimari buruz beste edozein fenomeno aipatzeko balitz ere: *hobetze*, *zakartze*, *zitalitze*, *epeltze* zein *gogortze* dela, edota beste edozein. Bide beretik hobetsiko genuke *politika-tirabirak* elkarketa egitura, *tirabira politikoak* erdal sundakoan hobendu beharrean.

Badira, hala ere, hainbat kasu, bitara jo dezakegunak: *klima-baldintzak* edo *baldintza klimatikoak*.

—Klimarekin zerikusi estua dute *ingurumen*, *ingurugiro* bezalako hitzek ere.

—Gaztelaniaz «medio ambiente» deritzagunaren euskarazko ordain gisa darabiltzagu gaur egun bi hitzok, *inguru* hitzarekin bilbatu. *Inguru* hitza, izan ere, *natura inguruari* loturik sarri darabilgu, eta gehiago pluralez: *inguruak*, *inguruetan*, *inguruetako*. . . Euskaltzaindiak *ingurumen* hitzaren alde egin du, baina *ingurugiro* baztertu barik, sinonimo gisa onartuta.

Tradizioz *ingurumen* beste adiera batzuekin erabili izan da, eta Iparraldean du sustraia. Batetik, zenbaki bat gutxi gorabehera emateko: *Berrogeita hamar urteren ingurumena*; hau da, gutxi gorabehera berrogeita hamar urte ditu. Eta bestetik, paraje, lurralde edo espazioa adierazteko, *inguruak*: *Ingurumen hartan ez zegoen gizon hura bezain indartsurik*.

Horretatik egokitu da hitz zahar baina baliagarri hori gaur egungo naturari buruzko kontzeptuetarako: *ingurumena babestu*, *ingurumenaren defentsa*. . . Baina ez dezagun ahaztu esparru askoz zabalagoan erabili izan dela hitz hori.

—*Biosfera erreserba naturala, parke naturala*... gure errepide hegaletan era ofizialean idatzita ikusten ditugun hitz-kateak dira, naturaren osasunari lotutako euskal hitzak.

—*Erreserba* hitza natura gaietarako ez dut gustuko. *Petrolio-erreserbak, indioen erreserbak*. . . *Erreserba* mota asko dira. Naturari gagozkiola, *erreserba naturala* baino nahiago nuke *natura babesgunea, biosfera gune babestua, natura babeslekua* edo horrelakoren bat.

Eta *parke naturala* delako horri ere ez diot jera onik egiten. Begi hobez ikusiko nituzke *natura parkea* ereduko hitz elkartuak, *parke naturaletara* jotzen ibili behar barik.

2019-09-30

[14]

Darrai aditz trinkoa

—Idatziz batez ere, sarritxo ageri den aditz bat dakargu gaur: *darrai*. Era honetako inguru-neetan erabiltzen dugu: *lanean darrai*, *aurrera darrai*... *Jarraitu* aditzaren forma bezala. Bestetik, hiztegietan-eta, *darraio* bezalakoak jasota daude. Ongi al daude? Zuzenak al dira?

—*Darraio* aditz zuzena da, eta, izan ere, aspaldikoa. *Darrai*, aldiz, xx. mendeko garbizaleen giroan zabaldu den adizki eredua da, berariaz Luis Eleizalde gramatikariak 1913an argitara zuen *Morfología de la conjugación vasca sintética* obraren eta haren jarraitzaileen eraginez. Gramatika bidez sartu zen gure literaturan, eta *darrai* horren uhainek gudu ostean ere iraun dute, eta gaur egun ere liluratxo eragiten dute, agian hedabideetan, literaturan baino gehiago.

Gudu aurrean, xx. mendearen lehen herenean modaratu ziren *darrai* eta *darraike* bezalako aditzak, lehenengoa ‘*jarraitzen du*’ orainekoa, eta bigarrena, ‘*jarraituko du*’ gerokoa adierazteko. Euskara garbiaren garaiak ziren, bai hiztegi kontuan, baita sintaxi arloan ere, eta zer esanik ez, aditzaren morfologiari dagokionean. Eta aditz trinko deritzenak zirela jatorrizko edo euskara zahar-raren giltzetariko bat, sinestuta zeuden hainbat. Eta aditz trinkoaren jaregite lehia horretan, zahar ezagun batzuei bizi berria emateaz gainera, artean eza-gutu gabeko adizki batzuk erabiltzen hasi ziren. Euskararen berpiztearen ardatzetariko bat zen, horretara, aditz-joko trinkoarena. Aspalditik zetorren ametsa: Pablo Astarloa eta Juan Antonio Mogel, besteak beste. Taxu berriko adizki trinkoen artean, *darrai* eta *darraike* zeuden. Beste batzuk ahaztuxego daude orain, baina *jarrai* erroko hauek arrakasta oparoa ezagutu dute.

Eleberri edo narrazio luzea atalka argitaratu izan denean euskal aldizkari batean, atal edo kapitulu batek ale bakoitzean jarraiera izango duela iragar-teko, *darraike* ipini izan da barrenean parentesi barruan.

Darrai adizkia gaur egun ere irakurtzen da idatziz noizbehinka; ahoz, aldiz, ez hainbeste entzuten. Aspaldi ez dela egunkari batean irakurria dut esaldi barregarri hau: «Basauri zurrumurruei kontra lanean *darrai*».

Jarraiki eta *jarraitu* aditzok hizkera landuan indartu dira batez ere, baina herri-hiztunen artean eguneroko berbetan nekezago erabiltzen dira. Hiztu-nen artean *segi*, *segitu* | *segidu* aditz maileguak kendu zien aspaldi lekua.

Eta ordezkoa hartze horretan, lehen ez zituen esanahiak ere erantsi zaizkio bidean. Esanahi esparru zaharrean, *jarraiki* | *jarraitu* norbaiten edo zerbaiten atzean joatea adierazteko erabili izan da. Baina *segitu* maileguak, ‘seguir’ gaztelaniaz, zeozertan, ekintzaren batean aurrera egitea, zerbait egiten jardutea adierazteko ere balio du. Hala, balio zaharra: *zuri jarraikiko natzaizu* (Iparraldea) edo *zuri jarraituko dizut* (Hegoaldea). Eta balio berria: *lanean jarraituko dugu*.

Zer gertatu zaio *jarraiki* aditzaren joko trinkoari? Hiztun euskaldunen ezpainetatik aspaldi galdua dugula. Bizkai alderdian iraun du luzaroen, XIX. mendearen erdi ingurura arte edo. Gero hortik ere aldendu da.

Idatzizko testuetatik ezagutu dugun aditz-joko trinkoa *nor-nori* erakoa izan da, ia osoan. Ezagutu ditugun adizki tipoak *darraio* erakoak izan dira, baina ez *darrai* tipokoak. Arrazoi garbia da: *jarraitzea*, tradizioz, norbait norbaiten edo zerbaiten atzetik joatea izanik, aurretik doan beste norbaiti *darraio*. Eta Iparraldean gaur ere horrelatsu da: *norbait norbaiti jarraikitzen zaio*. Aditz-joko zaharra beti izan dugu *nori* edo *zeri jarraitu*. Horrexegatik, adizki benetakoak beti izan dira: *darrait*, *darraizu*, *darraio*, *darraigu*, *darraizue*, *darraite* erakoak, edo euron aldaerak.

Bada XVI. mende amaierako errefrau bat, dioena: «*Inurriari harraio*»; gaztelaniaz: «*Sigue (tú) a la hormiga*». Bizitzarako eredu gisa, inurriaren atzetik joatea aholkatzeko. Eta hurrengo mendean Axular idazle handiak dakar: «[Konzientzia] bethi *darraiku*, gorputzari itzala *darraikan* bezala». Eta XIX. mendean bertan, Gerriko gipuzkoarraren adibidea (ordurako, *nork-nori* paradigmakoa bilakatua): «Bada soberbioak *darraio* deabruari».

Baina gaur egun *jarraitu* aditzari txertatu zaion beste balioa da: zereginen batean edo ibilbide batean aurrera egitea; gazt. ‘continuar, proseguir’. Baina, zergatik adierazi ez beste baliabideren batekin? Hor ez dugu *nori* edo *zeri* argumenturik. Halere, *darrai* adizki trinkoa sartu digute: *aurrera darrai*, *lanean darrai*, *bidean darrai*.

Nik neurez ez nituzke taxu berriko adizkiok, *darrai* tipokoak, bultzatuko. Nahiago dut: *aurrera goaz*, *lanean dibardugu*, *ibilian ari gara* edo beste esapideren bat. Hala ere, idazleen gogoia eta borondatea bestelakoa bada, sorkuntza berri horri leku egingo dio hizkuntzak.

[15]

«Impertinente»

- Eta errematean, zuk esaldi batean sententzia emateko galdetuko dizugu ondo asmatu ote dugun aste honetan «impertinente» hitza itzultzen... Josu Erkoreka politikariak esan zuen ezen, Puigdemontek 155 artikulua eta Euskadiko iragana lotuz egin zituen adierazpenak «desafortunadas e impertinentes» izan zirela. Bien ordaina, *ezegoki* da. Baina guk, «desegoki eta lotsagabeak» itzuli genuen.
- Guztiz bat nator *desegoki* eta *lotsagabe* hitz horiekin. Eta aukeran erabil daitezke gehiago ere. «Desafortunado» hitzaren eremukoak dira: *ezorduko*, *orduz kanpoko* edo *lekuz kanpoko* hitzak ere. «Impertinente» hitzaren esparrutik hurbilak lirateke: *ausartegiak*, *harroegiak*, *lotsa gutxiak*, *eragabeak*, bezalako adjektiboak.

2019-10-07

[16]

Zauskada

—«*Biolentziaren zauskada*», lehendakariaren ahoan entzundako hitzak dira. *Zauskada* hitz horrek atentzioa eman digu. Zer dugu hitz hori?

—Osagai bi ikusten dizkiot hitz horri: *zausk* hots-hitza eta -KADA atzizkia. *Zausk* onomatopeia deritzen horietarikoa dugu, eta eratorle gisa atzean duen -KADA horrek kolpe edo zartako esanahia erantsi ohi dio oin-hitziari.

Zausk egin aditz-lokuzioak, Azkueren esanean, gaztelaniazko ‘emocionarse, impresionarse’ adiera izan ohi du. Idazle batek honela girotu zuen aspal-di hitz hori: «[Beratasuna da] gauza eder baten aurrian, biotzak errez *zausk egiteko* gaitasuna». Beraz, norbaiti gogo-bihotzak biziro ukitu, edo emozioz betez gero, zeozerk *zausk egin* edo *zausk eragin* digula esango dugu. Osterago, Plazido Mujikak jasorik dakar: *zauskada*, ‘inpresioa, emozioa, konmozioa, sentsazio bizia’ adierazteko.

Euskaltzaindiaren Hiztegiak ere sarrera eman dio hitzari: «Ikusi zuenak eta entzun zuenak *zauskada* handia egin zioten Txanton gizon ahul erkinaren bihotzari». *Labayru Hiztegiak* ere esanahi beretsuaz dakar, *zirrara* eta *bihotzondokoa* zentzuketzat ematen dituela, eta gaztelaniaz ‘vuelco, conmoción’ itzulpenarekin. Horixe da funtsean *zauskada*, baina adierazkortasun handiagoko sinonimoa dugu *bihotz* hitzarekin elkartuta. Honen adibidea: «*Bihotz-zauskada* egin dit zure boza entzuteak, Maite».

—Hots antzekoa dute *zausk* eta *zaust* onomatopeia hitzek, baina esanahi desberdina. Ez da hala?

—*Zaust*, edo *dsaust*, zirkin edo mugimendu bizkor, bat-batekoa adierazteko erabili izan da. Domingo Agirrek *Kresalan* darabilen esaldi bat, Kitolisen txalupa itsasoan nola bat-batean irauli zen aditzera emateko: «*Brast*, joten gaitu haize-bunbada gogor batek, eta *dsaust*, danok itxasora».

Azkuek dio, Lekeition *zaust* erabiltzen dela, gauza bat ontzi batean erraz sartzen dela adierazteko. Mendatan —gure aita zenari sarri entzunda— *zausta-zausta jan* esaten da, hots, jatekoa irenstea, mamurtu barik barrura sartzea.

—Gehiago jo behar ote genuke onomatopeiak erabiltzera?

—Baietz esango nuke; erruki barik. Baina beti ere eurok hiztunen artean duten hedadura ondo kontuan hartuta, zeren leku batetik bestera aldea izaten baita hots-hitzetan. Sakabana handia eta aldaera ugari ditugu hots-hitzetan.

Onomatopeiek abantaila dute, berariaz mintzairan, hizketan ari garenean. Nolanahi ere, hots-hitzek indar apartekoa gehitzen diote adierazi nahi den horri. *Oilarraren kukurrukua* diogunean, *kukurruku* horrek badu, bestelako sinonimoek ez duten bizikortasun berezia.

Bada txori ezagun bat, *galeperraren* izenaz ezagutzen duguna, guk txikitan *pospolina* esaten geniona: *poxpolin* | *pospolin* hots-hitz garbia da. Euskara, bestalde, aberatsa dugu hots-hitzetan, eta esangura esparru zabaletan, gainera. Hizkuntza zahar bizien adierazgarri. -ADA edo -KADA atzizkia dutenen arteko batzuk aipatuko ditugu:

- *Burrundada* (edo *burrundara*): eulien hots isila, esate baterako.
- *Danbada* (edo *daunbada*): tiro-hotsak ateratzen duena, kasurako.
- *Dardakada* (dardakadan egon): dardara.
- *Eupada*: agurra edo deia. (Adib.: *Eupada* bat egiozu, ba, ezaguna da eta!)
- *Karrakada*: zer bait apurtzearen hotsa.
- *Korrokada* | *korroskada*: aupatsa.
- *Purrustada*: erremuskada.
- *Tarratada*: urradura.
- *Txirristada*: labainkada.
- *Txistada*: deia edo gonbita. (Adib.: *Txistadatxo* bat egitea nahikoa da; berehala duzu hemen).
- *Txorrostada*: isurkari jariotxoa. (Adib.: Jatekoari bota, mesedez, *txorrostada* bat ardo zuri).
- *Zapla(da)*: arpegikoa, masailekoa.
- *Ziztada*: eztenkada.
- *Zurrutada* | *txurrutada*: zangada, hurrupa.

[17]

«Reincidencia»

—Nola esan daiteke «reincidencia» euskaraz?

—*Reincidencia* lege munduan, auzi-esparruan, maiz erabiltzen den hitz abstraktua da. Nori egozten zaion dena delako akusazioa, pertsona horregatik esaten da «reincidente» dela. Eta erruduntzako horren ekintza bera, «reincidir». Aditza da oinarrian dugun hitz-kategoria.

Nondik dator *reincidir* delakoa? Latinean du jatorria: «incidere», eta horretatik «re-incidere». Aurritzia, RE-, ezaguna dugu guztiok, ekintza edo jardueraren bat *berriz* egitearen adierazle gisa. Eta euskaraz ere badu ordain bikaina, BER- edo BIR- aurritzia.

Nola eman euskaraz *reincidir* kontzeptua? *Berrerori* edo *birjausi* izan daitezke ordain labur zuzenak. Perifrasietara ere jo daiteke, hobe iritziz gero: *berriz erori*, *berriz jausi* edota *atzera ere jausi* | *erori*, *ostera ere jausi* | *erori* modukoetara.

Erljio-munduaren oihartzuna du *reincidencia* izen abstraktuak, gero lege eta zuzen mundura hedatu bada ere; bekatuarekin eta aitortzarekin lotura zaharra du. Behin erortzen denak baino birritan jausten denak zigor edo penitentzia zorrotzagoa behar duelakoa.

Ekintza bera adierazteko, «reincidencia» alegia, *berrerortze* edo *birjauste* proposa daitezke agian —*berrerortze* jasota dago hiztegi batzuetan—. Nolanahi ere, esanahi hain finkatua duen kontzeptua izanik, hitz bakarraz adieraztea hobe.

Eta pertsona bat, «reincidente» delakoa, *berreroria* edo *birjausia* dela esan daiteke.

—Baina *erori* edo *jausi* norbere gogoz kontra izaten da normalki. «Reincidencia» hori norbere borondatez gertatzen dela pentsa daiteke...

—Hortxe dago, bada, iltzea! Norbere borondatez eta erabakiz gertatzen denean *hutsegite* edo *desbidea*, *erortze* edo *berrerortze* soila baino gehiago dela esan daiteke. Nola adierazi hutsegitean batek duen jarrera aktiboa?

Egin aditzetik *berregite* sor daiteke, baina hitz horrek badu bere aparteko esanahia. *Ekin* aditzetik *berrekite* eraiki daiteke, eta hitz honek ez du beste esanahi finkaturik, beraz balio digu. Hirugarren aditz bat ointzat hartuz gero, *huts egin*, *huts egite* daukagu, eta horretatik *berrutsegite* ere bultza daiteke (nahiz eta *huts egite* ere, gaitzespen markadun izena dugun).

2019-10-21

[18]

Itzuli izanagatik gisako egiturak

—Entzule baten mezua dugu: «Gaur, goizeko sei eta erdietan, informazio berean, bi aldiz entzun dut gaztelaniazko kalko oker bat: *itzuli izanagatik* eta *ekarri izanagatik*». Ez da salbuespena. Oso maiz entzuten da EUSKADI IRRATIAN «por haber» hori *izanagatik* formarekin. Zuzendu, mesedez.

—Aditz partizipioari -AGATIK eranstean diogunean, *eginagatik*, *esanagatik*, *emanagatik*, *ikusiagatik*... , gaur egun batez ere balio kontseziboa adierazten dugu, hau da, *egin arren*, *esan arren*, *eman arren*, *ikusi arren* marken bidez adierazten dugun berbera. «Sugea *hilagatik*, sugakumeak bizi», dio atsotitz zahar batek; gaztelaniaz: «La culebra aunque muerta, la culebrilla (que de ella nació) vive» (Isasti 79).

Baina kausa edo arrazoi zentzua, zentzu zaharra ere gordetzen du oraindik, batez ere hizkera batzuetan, -AGATIK horrek aditz partizipioarekin: «Astakeriaren bat *esanagatik*, etzaitez jarri hasarre» (Jose Insausti 32I. Oiarzun. Auspoa).

Baina entzule fin horrek zuzentzat ez daukana ez da puntu hori. Zalantzan jartzen duena da, *izanagatik* ipini behar ote dugun aditz partizipioaren ondoren: hau da, *itzuli izanagatik*, *ekarri izanagatik* erabili behar ote dugun, gaztelaniaz partizipioaren aurrean darabilgun «por haber...» egitura hori euskaraz zehatzago eman beharrez. Entzule horrek belarri fina du, eta kritika egin badu, ziurrenik, egitura hori belarrira arrotz egiten zaiolako da. Neuri ere arrotz egiten zait, egia esanda, entzule modura. Halako kultismo sunda antzematen diot, batetik. Gure hizkera joerekin bat ez datorrelakoa, bestetik. Eta gaztelaniazko aditzaren aspektu burutuari ordain zehatza emateko ahalegina, hirugarrenik. Gramatikaz zuzentzat jo daiteke, baina estiloaren aldetik ez gomendagarritzat.

—*Izanagatik* zertarako erabiltzen dugu, orduan?

—*Izanagatik*, bai, erabili egiten dugu, baina aditz nagusi modura kasu horretan, ez aurreko beste aditz baten morroi bezala. Eta esanahiaren aldetik, esaldi kontzesiboetan, batez ere. Arrese-Beitia poetaren bertso batek dio: «Igaz *izanagatik* urte eskastxua, / hamaikatxori dio zabaldu eskua» (*Ama Euskeria*). Eta Arantzazuko Egutegian ere, 1957. urtean, hau azaldu zen: «Bariku baten, aragi-izte eguna *izanagaitik*, txuleta eder bat jan eban» (1957-4-10).

Ondoriotzat joko genuke, tradizioz ez dutela euskaraz, edo guztiz ahula behintzat, *ekarri izanagatik* ereduko esaldiek.

—Zein dugu irtenbidea, beraz?

—Balio kontzesiboa duenean esaldiak, gaztelaniazko «aunque» delakoaren ki-dea, *ekarriagatik*, *esanagatik*, *emanagatik* soilik erabiliko nituzke. Edota euron ordeztu, aukeran, hurrengo hauek nahi izanez gero: *ekarri arren*, *esan arren*, *eman arren*.

Kausa-balioa duenean, *zergatik* | *zegaitik*, *zeren* marken baliokide denean, beldurrik gabe erabiliko nituzke: *ekartzeagatik*, *esateagatik*, *emateagatik* bezalako aditz egiturak, aspektu perfektiboa gorabehera, nahiz gaztelaniaz «por haber traído» edo «por haber dicho» erabili ohi diren. Edota euron lekuan berdin erabil daitezke: *ekartzearren*, *esatearren*, *ematearren* ere.

Euskaraz, kasu horretan, ‘*aspektua*’ deritzaguna, ‘*burutua* | *ez-burutua*’, neutralizaturik dago, berdindurik, nolabait esateko. Ez dugu formaz bereizten, baina bere testuinguruan berdin-berdin ulertzen dugu mezua.

Gramatikaz zuzenak izan daitezke *ekarri izanagatik* eta *itzuli izanagatik* baina, ez dute ez tradizio idatziaren itzalik, ez hiztunen babesik.

2019-10-28

[19]

Arrakala digitala esamodua

—Informatika- eta digitalizazio-munduan euskaraz gaur sarri entzuten dugun esapidea da, baina hitzun askori, oraindik ere, bitxia egiten zaiona: *arrakala digitala*. Zer da *arrakala* berez eta zeri buruz ari gara *arrakala digitalaz* dihardugunean?

—Lehenago ere, beste atal batean, *arrakala* hitzaz mintzaturik gaude...

Arrakala hitz arrunta dugu bere oinarritzko erabileran. Etxe zaharkituen hormetan, harrizko zubi zaharretan, edo haitzetan denboraren buruan sortzen diren pitzadurei deritze: *arrakalak*. Baina *arrakalari* esateko, euskarak hainbat berba du: edo *arrail* | *arraildua*, edo *pitzadura*, edo *kraskaila*, edo *artesia* | *artesitua*, edota *urradura*, beste sinonimo gehiagoren artean.

Arrakala non edo non egiten denean —kristalean, esaterako—, *arrakalatu* egin dela esaten da.

Baina gaurko kontzeptualizazio modernoan, gaztelaniazko «brecha digital» delakoaren ordain gisa *arrakala digitala* bultzatu da. Hau da, zaharra eta erabilera mugatukoa den hitz bati bizi berria eman zaio, kontzeptu moderno bat adierazteko.

Internetera sarbidea dutenak eta ez dutenak, eta ondorioz euren artean gertatzen den aldea eta aukera diferentzia handia denean, horrexetarako berezitu da *arrakala* hitza euskaraz, ingelesez «divide» ('zatiketa, banakuntza'), frantsesez «fracture» ('haustura') edo alemanez «Kluft» ('amildegia, leizea') garatu diren antzera.

Bada beste hitz bikote bat, bigarrentzat berau duena, lan-harreman munduan zabal dabilena: *soldata-arrakala*, funtsean gaztelaniaz «brecha salarial» delakoaren ordain gisa. Beste inguru-hizkuntzek, baina, beste bide batetik jo dute adiera horretarako.

Hala finkatu bada, bego horrela, baina bere aldian, *arrakala* baino beste hitzen bat hautatu izan balitz, nahiago izango nuen: *haustura*, *amildegi*, *jauzi*... edo halakoren bat. *Arrakala* izenaren esanahia leunegia iruditzen zait, biren arteko gorabehera handiko aldea edo jauzia duen errealitatea adierazteko.

—Badira, hala ere, beste hitz asko, herri-hizkeran esanahi bat dutenak eta gaurko kultura modernoan bestelako esanahi batekin egokitu direnak.

—Gizartea aldatu ahala, eta jakintza-arlo askotan edo gehienetan euskara sartu ahala, ahaleginak egitera behartuak gaude erabiltzaile euskaldunok, geure hizkuntzan ordain egokiak bilatzera. Horietariko batzuek arrakasta izango dute, beste batzuek ez.

Arrakasta izan duten berrezarpen batzuk badira, objektu edo tresna zaharkituen izenak kontzeptu modernoetarako. Halakoa dugu *traola*, berbarako; H itxurako zurezko tresnatxoa, arrantzaleek haria biltzeko erabili izan dutena, gaur gure ordenagailu-teklatueta «almohadilla» ikurarentzat egokitu den izena.

Gaur atzera geratu diren berrezarpenak, nahiz aldi batez erabiliak izan, badira guztiz ezagun izan diren batzuk: *berebila* (berez ibili, berez dabilen gurpilduna; ‘autoa’ esateko), *suburdia* (behinolako suzko gurdia; ‘trena’ aditzera emateko) eta abar.

Euskal administrazioa euskaraz abiatu zenean, Eusko Jaurlaritza finkatu eta lasterrera, *administrazioa* adierazteko *arduralaritza* bultzatzen hasi ziren gune batzuetan. Baina hitz horrek ez zuen luzera arrakastarik irabazi: *arduralaritza*, 6 silabako hitza!

2019-II-04

[20]

«Pintada» eta *osasun-hesia*

—«Pintada» hitzaren inguruan sortu zaigu gaurkoan kezka. Jakingo duzunez, Bilboko San Frantzisko auzoan birritan agertu dira halakoak azken asteetan. EUSKADI IRRATIAN *pintaketa* esan genuen, baina uste dugu ez dela gauza bera. *Pintada* ere erabili izan dugu. Zuzena ote da?

—Hitz zuzenak, bai, berez, baina adierazi nahi denari ondo ote dagozkion argitu behar. *Pintaketa* diogunean pintatze-jarduera gehiago adierazten dugu, pintatzearen ondorioa edo emaitza baino. *Pintatzeak* izan direla badiogu ere berdintsu.

Hausnarrean ibili natzaio puntu honi, eta *pintatu* aditz-maileguaz baliatzekotan, iruditu zait ondo esana litekeela, *pintatuak* azaldu direla San Frantzisko auzoan. Aditz partizipioaz eraikiak dira beste izen asko eta asko euskaraz: *irabaziak*, *ekanduak*, *zapalduak*, *korrituak*, *etzanak*, *ukituak* eta abar.

Beste hoberik ezean, *pintadak* erdaratikoa ere ez genuke txartzat joko, baina gaztelaniari makurtuegia, akaso.

Margo, *margotze* edo *margoketa*, aspaldiko hitz *garbi* horiek baztertu egingo nituzke esanahi horrentzat.

Hala ere, bada beste mailegu-hitz bat, hedadura handikoa eta guztiok ezaguna dena, honelako inguruneetan ondo egokitzen dena: *grafitia*. Gure inguru-hizkuntza jaso guztietan onartua den hitza. Hala esan daiteke: «*Egin dituzten grafitiek horma guztia itsusitu dute*».

—Eta bide batez, gogoratu nahiko genuke, *osasun-hesia* aintzat hartu genuela igaro den ekaineko Faktoria irratsaioan, gaztelaniazko «cordón sanitario» delakoaren ordaintzat. Lehengo ostiralean, ordea, *osasun-lokarri* entzun diogu Urkullu jaunari. Zertara jo behar dugu?

—*Lokarriak* elkartu eta bildu egiten ditu lotzen dituenak, gauzak zein pertsonak edo taldeak izan.

Hesiak, aldiz, babestu egiten ditu, zaindu, barrukoak gorde; dela ganadua, dela fruitua, dela ortuaria; zernahi. *Hesi* hitza sarrienik beste izen batekin elkaturik erabili ohi da.

- Batzuetan ZEREZ egina den hesia adierazten du izen elkartuaren lehen osagaiak: *harresia* harrizkoa bada, *zuresia* zurezkoa bada, *oholesia* oholez egina bada, *arantzesia* arantzazkoa bada, edota *latesia*, lataz egina bada. Sonatua izan zen gure azkenengo gerratean Bilbo inguruko *Burdin Hesia* ere.

- Beste batzuetan, BARRUAN ZER ZAINDU, gorde edo babesten duen adierazten du *hesi* izenak: *artesia*, ardiak biltzen baditu; *kirikinesia* edo *kirikinausia*, kirikino edo oskol eta guztiko gaztainak gordetzen baditu.

- Beste batzuetan ZER INGURATZEN DUEN adierazten du hesi horrek. *Gurtesia*, gurdiaren hesia, barruan zamatu edo pilatu dugun simaurra alboetatik erori ez dedin ipinitako hesia.

Eta *osasun-hesia* zertarako? Geure *osasuna* zaintzeko edo jagoteko ipini beharreko hesia. Osasuna, gorputzaren osasuna izan daiteke, baina baita, zergatik ez, gogoeta eremukoa ere; berariaz askatasunaren eta bizikidetzaren baten aurka zuzen talka egiten duen iritzietatik babesteko hesia.

Niri neuri aiutuagoa eta politagoa begitantzen zait *hesia* adierazgune honetan, *lokarri* izena baino.

2019-II-18

[21]

Errelatoa eta errelatorea; eta bide batez, aintzatetsi...

—Kataluniako «Process» eta ERCrekin elkarrizketak abiatzearen beharra dela eta, *errelatorearen* –gaztelaniaz «relator»– delakoaren figura mahai gainera atera da berriro, eta *errelatoa* egitearen premia. Euskaraz zer izen eman horri? *Kontakizuna* eta *kontalaria* aipatu dira, besteak beste.

—Zuzenbide-munduko hitza dugu «relator» edo *errelatore* dei dezakegun figura hori. Goi-epaitegietan, epaitegi-txostenak idaztearen ardura duten letratuei deritze horrela. Baina gaur egun, Kataluniako arazoa bitarte bereziki, konponbidea bilatzeko modaratu den figura adierazteko erabili izan da. Iza-teko diren elkarrizketak eta akordioak zehatz eta objektibotasunez jaso eta halakoxeak direlako bermea emango duen figura izendatzeko, alegia.

Aukera bat baino gehiago daude:

- *Errelato* mailegua ointzat hartzea da bide bat. Idatziz jasotzen den kontra-txostenari *errelatoa* deitzea eta horren egileari, *errelatogilea*.

Arazotxo bat badu, horratio. Inguruko hizkuntza nagusietan ez da erabili hitz hori. «Rapporteur» darabilte ingelesez eta frantsesez, eta idatziz jasotzen den txostenari «story», «histoire» edo «report» esaten diote. Alemana bere bidetik dabil: «Bericht», hau da, txostena, kontaerari, eta «Berichterstatter» egileari.

- *Kontalari* eta *kontari*, izenaren aldaera bien artean *kontari* dauka Euskaltzaindiak hobetsita, ez *kontalari*. Hitz horrek badu muga bat: jende arruntarentzat *kontaria*, gehienetan *ipuin-kontari*, *berri-kontari*, *gezur-kontari* edo *kontu-kontaria* izaten dela, edo hartakotzat hartzen dela.

- Baina badugu beste aukera bat: *kontatzaile* eratorria hautatzea; berez, ‘narratzailea’. Eta gauza bitxia: Larramendik ‘relator’ bezala itzulirik dakar hitz hori bere hiztegian.

Zer ordain eman dakioke *errelato* izenari, orduan? *Kontakizun* bera izan daiteke aukera bat. Baina badugu beste aukera hau ere: *kontaera*. Iztueta zaldibiarrek bere euskarazko obra ospetsuetako bati izen hori, edo horren aldaera, eman baitzion: *Gipuzkoako Kondaira*.

—Administrazio- eta zuzenbide-munduan murgilduta, zer deritzagu *aintzatetsi* aditz berriari?

—Bai, *aintzatetsi* hori ere administrazio- eta zuzenbide-munduan irristatu den beste hitz *moderno* eta *berritzaile* baragarri horietakoa dugu; guztiz erakargarria, irabazi duen ospeari ohartuta, baina bere morfologia egituraz desitxurazkoa guztiz: *etsi* aditz osagaia ez genioke *aintzat* bezalako atzizkidun egitura bati [*ain* + -TZAT] erantsi behar; sasiko egitura antz garbia du. Behinola Larra-mendik edo Arana Goirik asmatu zituzten batzuen bidekoa.

Aintzat hitza ointzat hartzen badugu, zerbait *aintzat hartu* dugula, edo zeo-zer *aintzat eman* dezakegula esan daiteke, edota *aintzat eduki* edo *aintzat izan* dezakegula beste hura. Baina hiru aditz elkartu eder eta natural horiek baztertuta eta *aintzatetsi* hitz bateratua sortzeari ez deritzagu bidezko. Besteak beste, -TZAT atzizkiaren gainean ezin dugu txertatu euskaraz aditz bat, kasu honetan *etsi*.

-TZAT atzizkiaz esan dezake emazte batek gizon bategatik, gizaseme hori *gizontzat* daukala, edo bere senarra izan ezta ere, *senartzakoa* duela.

Eta *etsi* aditzaz esan dezakegu, zerbaiti *ederretsi* diogula, edo zerbait *onetsi* edo *gaitzetsi* dezakegula, baina ez *aintzatetsi*!

Zazkarrontzira ezarri hobe hitz berri hori.

2019-II-25

[22]

Txirrina jo eta *geldialdi eskatua*!

—Gure herri-garraioetan, busetan, bidaiariak halako lekutan geratu nahi badu, botoiari saka-tu eta pantaila digitalean azaltzen den euskarazko mezua da: *geldialdi eskatua*.

—Halako bat irakurtzean, burura berehala datorkidana gaztelaniazko mezua da: «parada solicitada». Halaxe itzulia da, hitzez hitz eta sintaxi berarekin: izen-adjektiboak unitate gramatikal bakarrean josita.

Gramatikaz egitura zuzena dela, dudarik ez dago, baina erdaraz pentsatua eta euskarara ekarria, neure kautan. Euskaldun garenok, geurez ari garenean, errazago esango genuke [adnominala + izena] egitura batera: *eskaturiko | eskatutako geldialdia*. Edo aukeran baita ere: *eskatutako gelditzea, eskaripeko gelditzea*, edo egitura ezberdinaz: *eskatuta gelditua*. Esaldi osoa ere argigarria izan ohi da batzuetan: *Eskatuta gelditu da*.

Izen-adjektiboen segida hau, batzuetan berez-berez dator, aditz partizi-pioa adjektibo modura erabilita: *abiadura kontrolatua, gune zaindua, ibilaldi neur-tua*. ETB1eko programa baten izena: *Errepide galduak*. Baina beste batzuetan hobe da beste sintaxi batera jo, mezua ulergarriago izan dadin, erdararen morroi izan gabe.

—Beste zein abisu, ohar edo mezu, adibidez?

—*Errepidea* mintzagai darabilgunez gero, eman dezagun errepide bat moztuta dagoela, uholdeak eta lur-jausiak izan direla eta.

Errepide moztua ipini behar al dugu, gaztelaniaz «carretera cortada» esaten dela-eta besterik gabe? Ala: *errepidea moztuta*, edo *itxita*, edo *etenda* dagoela?

Bidezoru irristakorra esan behar al dugu, gaztelaniaz «pavimento deslizante» esaten den guztian? Ez al da, bada, hobeto ulertuko: *bidezorua irristakor* edo *bidezorua laban* esanda? Hau da, *bidezorua nola* dagoen, *irristakor dago, laban dago*.

Gaztelaniaz «zona vigilada» edo «zona videovigilada» seinalatzen de-nean, labur esan daiteke: *bideoz zainduta* edo *bideoz zaindua*, eta edozeinek erraz ulertuko luke.

Eskailera mekanikoak hondatu diren bakoitzean, *eskailera hondatua* esan behar dugu ala, gaztelaniaz «escalera averiada», edo *igogailu kaltetua* edo *igogailu hondatua*, «ascensor averiado» erdaraz datorren bakoitzean? *Eskailerak ez dabilta* edo *igogailua ez dabil*; *igogailua kaltetuta dago* edo *igogailua aberiaz dago* esanda, ez al dago argiago?

2019-II-28

[23]

«Brindis al sol»

—Gaztelaniaz maiz entzuten den esamolde bat azaldu zaigu gaiaren harira, eta geure irratijardunean euskaraz ordaina nola eman ez dakigula gelditu gara: «brindis al sol», gehienetan, «hacer un brindis al sol» egituran.

—Gaztelaniaz «brindis al sol» irudiaz *zeozer egitea* adierazten dela esan daiteke, baina berez *zeozer esatea* irudikatzeko erabiltzen da. RAEk zehazten du, esaten den hori, edo onuraren bat, etekinen bat ateratzeko usteaz esaten dela, nahiz eta alde zurretik jakitun egon, ahalegin antzua eta alperrekoa izango dela, edo ondoriorik izango ez duena. *Eguzkiari topa egitea* poetikoa izan daiteke, baina hutsean gelditzen da. Metafora-irudi hori gaztelaniaz ere moderno dela esan daiteke.

Eguzkiaren irudiari tira egin nahi izanez gero, asma genezake: *eguzkiari agurra egin*, edo *eguzkiari aupada bat egin* edo *eguzkiari topa egin*, edo beste halakoren bat. Inguruko hizkuntza nagusietan ere kide hurbilak ditu esapide honek: «faire un toast au soleil» (fr.), «make a toast in the sun» (ingl.), «machen einen Tosta auf die Sonne» (al.).

Esanahiaren aldetik, berdina ez, baina hurbila den bat izan daiteke, *fanfarroikeriak esan* edo *fanfarroikeriak egin* adierarena. Beste hitzez esanda: *handikeriak esan* edo *handikeriak egin*, *ahoberokeriak esan* edo *harropuzkeriak esan*.

Adiera horrentzat badira beste metafora-irudi polit batzuk ere, ordaintzat balio dezaketenak. Bat izan daiteke, Eibarko hizkeratik jasoa den: *panpana jo* edo *panpana jotzen ibili* delakoa, *balentekerietan*, *ausarkerietan* edo *aupadaka ibili*, esateko. Berez ez gaude ordain zuzen baten aurrean, antzeko zerbaiten aurrean baino. Horren harira dator, Juan San Martin euskaltzainak aspaldi idatzi zuen esaldi hau: «Bein, alemaniarra, ba ei ebilen *panpana jotzen*, Plaentxian ez egoala bera lango murgilaririk esaten» (*Zirikadak*).

- Minbiziaren aurkako EITBren Gabon aurreko laguntza-kanpainan, «Lau teilatu gainian» kantua leku guztietara zabaldu da. Bada kanta horren kopletan hitz bat, bitxi egin zaiguna: «*Putzada batekin putz...*», jatorrizkoan [*putzara*]. [«Lau teilatu gainian / ilargia erdian eta zu / goruntz begira, / zure keia eskuetan / *putzara batekin... putz!* / Neregana etorriko da / ta berriz izango gara / zoriontsu / edozein herriko jaixetan»].
- Putzada* da, bai. Alferrik hiztegi-corpusetan azterka, ez duzu-eta *putzada* delako horren azterrenik topatuko. *Putz egiten* duzunean, *putz egite* horri izen desberdinak ematen zaizkio euskaraz: *putzaldi*, *batsaldi*, *ufaldi* eta beste. Egia esanda, *putzada* entzun barik neukan. Baina itsasaldeko herri batzuetan esaten den *putzada* hori logika beteko hitza dugu, putz-kolpea adierazteko, *adarkada*, *bibozkada*, *eztenkada* edo *ostikada* diren antzera. Hala bada, minbiziaren aurkako ahalegin honetan, *putzada batekin putz egin* dezagun guztiok.

2019-12-09

[24]

Jasangarria

—Klima-aldaketa izan da Madrilgo nazioarteko batzar sonatu horretan eztabaida-gune eta hil edo biziko akordu premiaren ardatz. Horrekin guztiz lotua dagoen eskakizun bat etorri da: *jasangarria*. Denak izan behar du *jasangarria*: garapenak, energiak, elikadurak, naturak..., ekonomiak oro har. Inguru-hizkuntzetan *sostenibilitate* mailegu hitzaren errokoak darabiltzate. Egokia al da *jasangarri* hitza, ideia hori adierazteko?

—*Jasangarria* izatea, berez, egoera bat, bizipen bat, norbaiten izaera latza... , *eramangarria*, *eraman erraza* izatea da, gaztelaniaz esaten den «soportable, sufrible». Eta kontrakoa, *jasan ezina* edo *jasangaitza* genuke.

Jasangarria, *jasan* aditzaren gainean eraikitako adjektiboa dugu. *Jasan*, Iparralde eta ekialdeko hizkeretako hitza dugu batik bat, aldi modernoetan euskara osora hedatu dena, batez ere *sufritu*, *aguantatu* edo beste mailegu-hitzak baztertzeko. Hala *jasan* dezake pertsona batek pisu bat, karga edo zama bat; edo mina, penak, kezkak... *jasan* ditzake. *Pairatu* ere esangura beretsuz hedatu da ekialdetik erdi eta mendebaldera.

Hiztegi batzuen eraginez sartu dela esango nuke, '*jasangarri*', '*sustentagarri*' esanahi horretara: *jasan* aditzean inguru-hizkuntzetako 'sostener' adiera ageri delako. Eta horretatik, «sostenible» kontzeptuarentzat *jasangarri* hautatu da.

Baina «sostenible» eta «sostenibilidad» hitzak gaur, garapena, klima, materialak, energia, ura, eta oro har natura bere onean iraungarri izan daitezzen adierazteko darabiltzagu, batez ere. Ingelesak «sustainable» eta «sustainability», baina frantsesaz, «durable» eta «durabilité». Eta alemanak ere antzera: «nachhaltig» eta «Nachhaltigkeit».

Euskaraz nola esan hori beste era batera? Adjektiboarentzat bi aukera datozkit burura:

— Bata da, *iraun* aditzaz baliatzea eta *iraungarri* bultzatzea adiera horrentzat. Baina kontuan izanda, badugula *iraunkor* adjektiboa ere, bestelako esangura esparru propio bat duena.

— Bigarren aukera bat, *eutsi* hautatzea genuke, eta *eusgarri* garatu, hautatu, nahiz hitz honek ere, izen kategoriaz darabilgunean —hau da, *euskarria*, «k» letraz—, beste esanahi bat ere duen.

[25]

Dezepzioa

—Zalantza sortu zaigu: nola esan *dezepzioa* euskaraz? *Etsipena* diogunean, ez diogu gauza bera, beharbada...

—Aditzetik abiatzen bagara, gaztelaniaz «decepcionar» daukagu.

Idea hori bera esateko badira irudi politak euskaraz.

Bat da *ustel* hitzarekin irudiaz *ustel irten* edo *ustel atera*. Esan dezaket: *Itxaropen handiak nituen urlia politikariarekin, baina ustel irten edo atera zaigu*.

Beste bat *huts eman* aditz-lokuzioa izan daiteke. Gerta daiteke *norbaitek guri huts ematea*, artean beregan asmo edo esperantza handiak eduki arren.

Azkuek *txulut egin* lokuzioa ere jasorik dakar esanahi beretsuaz. Jokin Zaitegi idazleak, Azkueren jarraitzaile zintzoa bera, *Sofokles* tragedian darabilena, hain zuzen: «Hire buruak, alegia, *txulut egin* din, gaiztoekin batera oker egiten hasi hintzan ezkerok».

Eta izen abstraktua bera, *dezepzioa*, nola eman euskaraz? Aukera bat: *amets etena*. Plazido Mujikak dakarren aukera da, gustuko dudana. Gehi dezagun, hizteigile beronek, *dezepzionatu* aditza adierazteko badakarrela irudi-aditz polit hau ere: *ametsak kendu*.

Mailegu-izen bat erabiltzekotan, *deseingainua* hauta daiteke, euskaraz hiztunok sarri darabilgun hitza, bestalde.

2019-12-09

[26]

Anbizioa

—Eta *ambizioa*, nola esan?

—Aukera zabalagoa dugu *ambizio* hitzarentzat, baina hitz neutroak gutxiago dira; gehiago dira esanguraz markatuak direnak, berariaz marka gaitzesgarria dutenak.

Ambizioa zentzu neutro edo positiboaz adierazteko erabil daiteke: *asmo handiak* (*izan*), *askogura* edo *askonabia*, edota *ambizioa* besterik gabe.

Zentzu markatuagoaz, eta ziurrik gaitzesgarri puntu batekin, erabil daitezke, *handi* hitzaren gainean eraikita, *bandinabia* eta *bandigura*. Edo *gora* hitzarekin gainean eraikiak diren *goragura* edo *goranabia*.

2019-12-16

[27]

Zorionak eta urte berri on!

—Aste honetan Madrilgo Kongresuan urte luzez aritutako gure lankide bati kontsulta egin diote, Maritxel Batet politikariak Gabonetarako mezua euskaraz ere zabaldu nahi omen zuelako. Zer idatzi behar zuten galdetu zioten, baina zehaztapena eginda: ez zutela kristau kutsurik nahi. «*Zorionak eta urte berri on!*» proposatu zuen lankide horrek.

—Kristau kutsua guztiz ezabatzea ez da erraza. Kristautasunak trebetasunez jakin du lehendik zetozen sineste, erritu eta urteko zikloaren egun esanguratsuei kristau zentzua txertatzen eta biak bateratzen.

Solstizioa, eguzkiaren bira gertatzen deneko egun seinalatuenak bi dira, bata negukoa eta bestea udakoa. Neguko eguzki-biraren inguruan finkatu zuen Jesus umearen jaiotza, eta udakoan Doniane, san Juan eguna.

Neguko eguzki-bira horretan, gauza bi zelebratzen dira ia batean: Jesus seintxoaren jaiotza 25ean eta urte berriaren irekiera urtarrilaren 1ean. *Eguberri* eta *Urteberri*, bi-biak *berri* adjektiboaz osatutako denbora-izen bi *—egu(n)* eta *urte* izenei josiak, hurrenez hurren—. *Berri* osagaia, nolabait doan *zabar* horri kontrajarria.

«Zorionak eta urte berri on!» formula horrekin, *urte berriaren* etorrerari ematen zaio lehentasuna, hots, estreinatu behar dugun urte berriari. Europako beste kultura batzuetan ere pisu handiagoa du urte berriari ongi etorria egite horrek. *Happy New Year!* edo *Frohes neues Jahr!*, adibidez.

Abenduaren hogeita bosta ez da *Urteberri*, baina bai *Eguberri*. Mezu banak dira, *Urteberri on* opa izatea (urtarrilaren 1ekoa) eta *Eguberri on* egitea (abenduaren 25ekoa).

Zorion-ematean, edo egunari ematen zaio garrantzia, *Eguberri on*, edo egun-ziklo osoari. Bigarren kasuan, *gabonak*, halaxe pluralez erabiltzen baita gehiago.

Eguberri, Gipuzkoarik gehienez *Eguarri* —eta [*Egoarri*]— esaten da, eta Nafarroan eta Iparralderik gehienez *Eguberri* —eta [*Eguerri* eta *Eguarri*]—. Baina badu kristau kutsu handiagoa duen beste sinonimo bat lehian, *Natibitate*, Bizkai osoan, Gipuzkoako parte zabal batean eta Zuberoan ere esaten dena. Baina kristau usain garbikoak dira izen bata eta bestea. Bata euskal sus-traikoa, bigarrena mailegua.

Errefrauetara etorriz, bada Bizkaiko errefrau ezagun bat dioena: «*Gabon bon-bon. Natibitate*, ase ta bete. San Estebantxe, bestetan lantxe». Eta Gipuzkoako Goierri aldean esaten den beste hau: «*Egubarri*, itsuak ere igarri».

Gabon hitzaz *Gabon gauari* ematen zaio lehentasuna, eta jai-ziklo osoa izendatzeko ahalmena, pluralez erabilita: *gabonak*. Baina Nafarroan (eta Gipuzkoako leku batzuetan) *Olentzaro* —eta [*Onentzaro*]— izendatzen dute *Gabon gaua*, eta *Subilaro* ere bai, eta Nafarroa Beherean *Gau berri* ere erabili izan da.

—Zer esan behar da, beraz, urtearen pare honetan? *Zorionak? Jai zoriontsuak? Eguberri on?...*

—Guztiak dira zuzenak, bakoitza bere berezitasunekin. *Zorionak* hutsik badiogu, ez dugu zehazten zeren zorionak diren. Beste zerbait eskatzen du lagun, baina lagunduta joanez gero, hitz bete-betea da *zorionak: gabon zorionak, eguberri zorionak...*

Eguberri on zuzena da, baina *Eguberri, Natibitate* egunari zuzendua da oro har, gaztelaniaz «feliz (día de) Navidad» esaten denean bezala.

Jai zoriontsuak ere orokorra da; gaztelaniazko «felices fiestas» esapide eza-gunari orpoz orpo darraiona, agian gehiegi.

Esan liteke *gabon* hitzak hartu duela indar gehiago jaien osotasuna izendatzeko orduan, Hegoaldeko euskal lurraldean behintzat: *gabonak, gabon-jaiak*.

Proposa nitzake, ausardia ez balitz, honako bi formulak: *gabon zorionak* eta *eguberri zorionak*. Eta kristau usainik hurrean nahi ez duenarentzat, *olentzero zorionak, edo subilaro zorionak*, ere aukeran emango ditugu, letra xehez idatzita.

2019-12-23

[28]

Aurtengo hitz entzutetsuena(k)

Hitz desberdinak hauta daitezke. Urtea luzea da, eta giza legeari dagokionez, aldiro-aldiro jazotzen dira gertaera bereziak; eurok izendatzeko hitz berri bereziak sortzeko premian gertatzen gara. Euskaraz ere bai, zorionez...

1) *Espetxealdi iraunkor berrikusgarria*

Bat, azken aldion arreta jarri diodana, Bilboko Atxuri auzoan, ama batek bere alaba hil izanaren epaiak ezarri duena, gaztelaniaz «prision permanente revisable» deritzana. Euskaraz oraintsu arte gutxi entzun izan den hitz konplexu hirukoitza.

Hiru hitzeko multzo horretan, azkenengo biekina bat datoz erabiltzaile gehienak: *iraunkor* eta *berrikusgarri* adjektiboak. Baina «permanente» horren ordainez, *biziarteko* ere irakurri dugu: «*Bizi arteko espetxe-zigor berrikusgarria*». Iltzea da: *bizi arteko* edo *bizi guztiko* espetxea bada, *berrikusgarri* izateaz bat ote dator?

«*Prisión*» hitzari dagokionez *espetxealdi* erabili du Berriak: «*Espetxealdi iraunkor berrikusgarria*». Kartzela soilik beste batzuk: «*Kartzela iraunkor berrikusgarria*». Eta *zigor* hitzarekin jokatu, *espetxe-zigor* eta *kartzela-zigor* aukerak ere erabili izan dira.

Guztiok dira zuzen egokiak berez. Laburrenak lirake: *kartzela* edo *espetxe* soilik erabilita. Berez *aldi* edo *zigor* erantsi barik ere ondo ulertuko lirakeenak. Sarri entzuten dira: *bost urteko kartzela*, *bizi guztiko kartzela* eta horrelakoak.

2) *Sexu-indarkeria*

Ez da, beharbada, aurtengo hitza, lehendik ere asko entzuna baita. Baina berau izendatzeko eta sailkatzeko termino desberdinak erabili dira.

Adjektibo bi dira *genero* eta *sexu* gaiari atxikita, asko entzun direnak, inguru-hizkuntzetatik sartu direnak: *sexista* eta *matxista*. Eta bigarren horrek bereziki, indar handia irabazi du. *Indarkeria matxista* da gehien zabaldu den hitz-bikotea.

Nik berez egokiago ikusten dut *sexu* izenarekin, edota *matxismo* izenarekin jokatzeko hitz elkartua eraikitzeko, bigarren osagaitzat *indarkeria* dela. Eta

hala eraiki *sexu indarkeria* edo, gizasemeei zuzendua denean, *matxismo indarkeria*. Bigarren osagaitzat *bortizkeria* ere hitz aiutua genuke. Hizkuntzaren ikuspegi soiletik ikusita.

Badira beste indarkeria batzuk ere: *familia-indarkeria*, *guraso-indarkeria*, *baur-indarkeria*. Eta emakumeak direla-eta, maiz erabilia da *emakumeen aurkako indarkeria* ere, hitz luzetxo bada ere.

Gehienetan *sexu-indarkeria* edo *genero-indarkeria* esanda, ongi asko ulertzen da. Maileguzko adjektiboetara jotzen ibili behar al dugu beti? *Indarkeria sexista*, *indarkeria matxista*. . . Nik, behintzat, ez ditut hain begiko.

3) *Klima-aldaketa*

Kontua da, lehendik ezaguna izan arren, pil-pil ibili den hitza dugula aurtzen ere.

Madrilgo gailurraren zurrunbiloan asko jardun da *klima-aldaketa* gora eta behera. Hitz bikoitz honetan behintzat, euskaraz adostasuna dugula dirudi. Hori da ia beti dantzuguna, edo *klima-aldaketa*ren ondorioak.

Horren ondorioen artean, baina, badira aipagarri diren beste hitz batzuk ere: *berotze globala* eta *berotegi efektua*; *biodibertsitatea*; *ingurumen-eragina*, *ingurumen-inkonpatibitatea* eta beste asko.

Geure hizkuntza bizi dabilen seinale. Halaxe da hizkuntza bizien ibilbidea: etengabe egokitzen eta gaurkotzen ekitea, sortzen zaizkigun fenomeno guztiak, edo nagusiak, batez ere gizarte-eragin handikoak direnak, euskal ize-nez ezagutzera emateko. Ahal dela, hizkuntzaren beraren senari eutsita, inguru-hizkuntza nagusien morrontzan gehiegi obendu gabe.

4) UZEik hautatu dituen hitzetariko batzuk ere ekarri nahi ditugu hona: *martikara*, *deklinabidea*, *klimarianoak* eta *klitori xurgatzailea*.

Hitz-zerrenda horretatik, ondoko hauek begiz jo ditut.

- *Martikara*, Marten lurrak dardara egin duela-eta sorturiko hitza. Nahiko ez al zen *lurrikara* hitzarekin, Marterako izanda ere? Ezagunak ditugu *lurrikarak*, eta *itsasikarak* ere bai, edota *itsas lurrikarak* ere bai. Behin ikasi genuenez gero *lurrikara*, Marteko lurretan diren ikara-dardarak barruan hartzeko ez al da berori nahikoa hitzik?

- *Deklinabide* hitza bazter laga behar omen da, eta *postposizio* izenari lekua zabaldu. Ez diot aparteko onurarik antzematen. Gramatika-tradizio baten sus-traituak eta oinordeko gara, eta euskara ondo samar ekandu da latinetiko tra-dizio horri. *MendiTIK* deklinabide-atzizkitzat erabili izan dugu eta *mendi OSTEAN* postposiziotzat. Zer abantaila ote du beste joera horrek?

- *Klimarianoak*, klima babesteko bost ahalegin egiten dituztenak, janari eta gainerako jarduera guztietan. Zergatik baliatu ez euskal atzizkiez gehixeago, eta *klimaTIARRAK*, *klimaZALEAK* edo, klima osasuntsu iraunkorraren aldeko amorratuak bihurtzen bagara, *klimaTIAK* direla esan?

- *Klitori-xurgatzaileak* hitzaz ez dut zeresan handirik: ondo eraikia dela gra-matikaren aldetik.

2019-12-30

FAKTORIAKO GEZIAK

II ATALA

[2020. urteko testu-bilduma]

[1]

«En estampida»

—Iranen Qasem Soleimaniren hiletetan jendea uxaldian bezala korrika atera eta dozenaka lagun hil dira. Eta EUSKADI IRRATIAN ez dugu asmatu nola esan. Esaldi luzea atera zaigu eta horrek titularretarako balio ez.

—Hasteko gogoratu behar dugu, hizkuntza batetik bestera kontzeptu batzuek ez ohi dutela ordain oso-osokorik. Ordain-hitzak ez dira beti guztizkoak, %100ean egokitzen direnak.

Hitz hori sarri darabilgu, jende edo abere aldra handiak bat-batean ihesari ematen dionean, beldur-ikaraz, itsumustuan eta noraezean.

Hitz horren berezitasun bat da, gaztelaniaz ere sarri adizlagun edo adberbio-egitura modura erabili ohi dela: «en estampida» edo «de estampida» ihesi joatea.

Badira aukera hurbilak euskaraz hori adieraz dezaketenak:

- Bat da *burrustan*, lapurtera eta behenafarrerako hitza batik bat. Isurkariekin erabili izan da gehiago: odola, euria, uholdeak... Hitzak ere ahotik *burrustan* darizkie hitzontzi direnei. Ugari eta ordena gabe datorren, doan edo erortzen dena ere *burrustan* ohi doa. Emile Larre euskaltzainak jendeari buruz darabil, dioenean bertso-saio ospetsu bat entzuteko jendea nola sartu zen aretora: «Guri 700 entzule nausitu zitzaizkun *burrustan* ateak ideki orduko» (*Artzain-etxolak*). Kasu honetan, jendea etorri datorrela *burrustan* esateko, ez iheska doala.

- Beste aukera bat izan daiteke: *nabas-mabas ihes egin*, ordenagabeko mugimendua, kasu honetan ihesaldia, adierazteko. Iparraldeko Etxamendi bertsolariaren esaldia: «Errekak oro gaindi eginak [...] ardi, urde hil, muble, arropa, *nabas-mabas* igerika».

- Hirugarren bat, onomatopeia modukoa, hau ere Iparraldeko erabileratik jaso, Azkuek dakarrena eta Harriet hizteigilea iturri duena: «*Tirri-piti-tarrapata* barreiatu ziren batzu hunat, bertzeak harat. 'Ils se dispersèrent en hâte précipités les uns d'un côté, les autres d'un autre'» (Harriet).

- *Amilka* ere etorri zait burura, gogoko dudana hitza. Berez, jira-biraka gain-behera itsumustuan erortzea adierazten du batez ere. Baina baita ere

sarri, pila nahasien mugimendua: «Atseginak apurka, ezbeharrak *amilka*», dio esaera batek (F. Aierbe; LH). Eta jendetzei buruz ere gure klasikoek erabili izan dute. Agirre Asteasukoren esaldiak dio: «Eta onela garaitu uste dezu oitura gaiztoa? Ez dezu, ez, garaituko, eta joango zera *amilka* betiko infernura» (*Eracusaldia* I). Eta Gregorio Arrueren beste hau ere eraz dator: «Otsoa, ardia utzita, burua zorabiatu, aldapak beheara *amilka* joan eta gero, mendiak barrena orroaz aienatu zan» (*Santa Genobeba*).

- Zer aukera eman? Kontzeptu hori hitz bakarraz adierazteko, hitz elkar-tu batera jo daiteke. Aukera bat: *izu-ihesa*. Adizlagun modura erabiliz gero: *izu-iheska* edo *izu-ihesean*.

- Baina bada beste hitz bat ere, maileguzkoa, jende-multzoak hara-hona ibiltzea adierazteko egokia: *abalantxa*, elurraz ez ezik jende multzoak direla-eta ere entzuten dena. Ildo horretan *jende-abalantxa* ere erabilgarritzat daukat.

- *Tximistan ihes egin, txinpart-urtika ihes egin, trumilka ihes egin, itsumustuan ihes egin*, perifrasi modura erabiltzea lirateke beste aukera batzuk.

2020-01-13

[2]

Gaztelaniazko «papa» eta gure *aita santua*

—Europako hizkuntza nagusietan «papa», «pope» edo erro bereko hitzak erabiltzen direnean, euskaraz *aita santua* esaten jarraitu behar al dugu?

—Inguru-hizkuntzetan ere *papa* hitzaren sustraian *aita* dugu.

Aita santua euskaraz XVI. mendearen lehen hamarkadetatik aurrera erabili izan den izena da. Durangon, Frai Juan Zumarragakoak klarisa-ordenan sartzeko ziren emakumeentzako prestatu zuen zin-egite formulan ageri da: «*Aita sanktu* Nikolao laugarrenaren emona eta otorgadua, eta *aita santu* Sist laugarrenaren aprobadua» (1521 aurrekoa).

Gaztelaniaz ere ezagun zaharrak dira *padre santo* eta *santo padre*, beste izendapen batzuen artean; euskarazkoaren kide-kideak.

Iparraldeko izkriburik zaharrenetan ere *aita saindu* ageri da (Etxepare, Leizarraga).

Hurreko mendeotan beste izen batzuk ere erabili izan dira. Garbizaletasunaren zurrunbiloan *aita gurena* ere bai, baina *santu* maileguaren ordeztu guren garbi-puruagotzat hauturik. *Eliz aita* ere erabili izan da gutxi batzuetan. *Guren* hitz zaharra dugu euskaraz, eta batez ere aste santuko egunak izendatzeko sartaldeko tradizioa erabili izan da. Adibidez, *Bariku Guren*, *Ostiral Santu* esateko.

Papa mailegua ere erabili izan da noizbehinka: «*Papa*, ene abisez / nahi bazira gobernatü, / Xarlemainareki bakia / bertan ükhenen düzü» (*Xarlemainē*).

Elizburua ere, *elizpuru* aldaeraz, azaltzen da batzuetan. Esanguraz garde-na *elizburu* delakoa, lau silabako hitza. Hautu ona genuke hau, agian, hutsetik berririk asmatzen ibili behar gabe. Eredu honen arabera dugu *euskaltzainburu* izena ere. Nolanahi ere, *aita santu* ez nuke baztertuko, sustrai zahar sendoak dituen bezala gero. Sinonimo gisa bultza daiteke *elizburu* izendapena, gura izanez gero.

Gaur egun genero kontua ere pil-pilean dago gure gizartean. *Aita santua*, «pope», «papa»... gizonetako izendapenak dira. *Aita santu* Erromakoak gizasemea izan behar du inolaz ere. Emakumetzat izendatzen dena elizan, *ama Eliza santua* da. Eliz erakundea bera da emea, baina pertsonarik ez.

Ezaguna dugu erromantze-hizkuntzetan *papa* horren ondoan *papisa* izena ere (lat. *papissa*, fr. *papesse*). Euskaraz, *aita* hitza ointzat edo eredutzat hartuz gero, balizko emakume bat *elizburu* izatea gerta baledi, ez genuke beste biderik izango *ama santu* asmatzea baino. Zilezko aukera, nolanahi ere.

Guraso hitza dugu euskaraz, generoaren aldetik neutroa dena. *Eliz gurasoak* (gazt. ‘padres de la Iglesia’) gizonezkoak ziren, baina emaztekiak ere izan zitezkeen.

Guraso hitza ointzat harturik egin daiteke bigarren proposamen bat: *Eliz guraso nagusia* edo *eliz guraso gorena* sortzea hautazko sinonimo gisa, beti ere gaur egun dugun *aita santu* izenari lekua kendu gabe.

2020-01-13

[3]

«Gilipollas» birao-hitza

—Aste honetan ere sortu zaigu, bada, zuzenean zalantza bat. Azalduko dizut testuingurua: Osasunaren zuzendaritzaren kontrako epaiketa eta akusatuen arteko xextran. Gure lankide Aritz Agirrek ekarri du epaiketakoa irrattira eta une batean esan du: «Maite, nola esaten da *gilipollas*?», hain zuzen ere, akusatu batek besteari hala deitu omen ziolako. Horrek euskarazko biraoen zerrenda egiteko aitzakia ematen digula pentsatu dugu...

—«Gilipolla» hitz modernoak da gaztelaniaz ere. Ez du hainbeste urte izango. Baina indar handia irabazi du gaurko gizartean, Espainian behintzat. Espainiatik kanpora ez dirudi ezaguna denik. Konparazio baterako, berdin-tsu gertatzen da «macarra» hitzarekin ere. Zenbatek ote daki gaur «macarra» esaten zaion puten zaintzaileari, lehenago «rufián» esaten zitzaioela? «Gilipollas» adjektibo horrek izen eratorri bat ere badu, esangura abstraktuaren balioaz: «gilipollez».

Hitz horren arrakasta behe-mailako hizketan gertatu da, hizkera baldar edo zakarrean. Hitzaren osagai biak arrunt eta lizun girokoak direlako: «gilí», gaztelaniaz 'tonto, lelo' delakoari esaten zaio; eta bigarren osagaiak, «polla» hitzak, ez du ezelako esplikazio beharrik.

«Necio» edo «estúpido» esanda, gauza bera esaten ari gara, baina hitz leunagoak dira hauek, orokorragoak, estandarragoak. Baina ez dute aurrekoaren indarrik, tapotz gabeko txanpainari gertatzen zaion antzera.

Hirugarren ezaugarri bat: pertsonen zuzendutako iraina izanik, ar kutsua gehiago dario; esan liteke, emakumeei gutxiagotan zuzentzen zaiela birao-hitza hori.

Euskaraz, esanahiz hurbilak dira: *ergela*, *kaikua*, *leloa*, *memeloa*, *kokoloa*, *tontoa*, *lerdoa*, *txotxoloa*, *inozoa*, *tentela*, *txoro* edo *txoralda*, *kirtena*. . . Eta emakumeei buruz, hizkera batzuetan behintzat: *mamala*, *kokola*, *lela*, *txatxala*, *txotxola*, *tuntuna*, *gangar* ('gandor') eta abar.

—Eta «gilipollas» horren indarra duenik?

—Hizkeratik hizkerara aldeak izango dira. Baina neure hizkeratik, indar berezia duen hitz bat edo beste aipatzekotan, nahiz esanguraz guztiz bat ez datorren, norbaiti zuzendutako irantzat balioko luke esatea, *potozorria* edo *potozorria* dela, oin-esanahian ‘ladilla’ dena. Norbaiti aurrez aurpegiratu nahi izanez gero, esan dakioke: *Potozorriori!* Edo: *Potozorria!* Edo: *Potozorri garbia* —edo *potozorri galanta*— zara zu!

Baina hitz batek, izen batek berez behar adina indar ez dutenean, adjektibo batez laguntzea izan ohi da horretarako bide: *madarikatua*, *arraioa*, *gogaitua*, *deabrua*...

Bide horretan, *inuzente* —edo *inozente*— hitzak ere izen modura indarra irabazten du: *Inuzenteori!* esatea bati.

Erabil daiteke *arraio* hitza ere: *Inuzente arraioa!*

Ildo berorretan *kokolo* hitzari *gogaitu*, *nazkante* edo bestelakoren bat erantsita ere esan ohi dira: *kokolo gogaitua*, *txotxolo nazkantea* eta horretarikoak.

Madarikatu hitza guztiz ezaguna dugu lagungarri gisa: *lerdo madarikatua*, *tonto madarikatua*, *basto madarikatua*...

Hitz batzuek aurretik *asto* edo *asta*- jarrita ere indartzen dira: *astakirtena*, *astapotroa*.

Tonto hitzari *lapiko* —eta *tuntuna* hitzari *paela*, emakumeei zuzenduta— gehitzen zaio hizkera batzuetan: *tontolapikoa*, *tuntunapaela*.

Bizkai sartaldean bada hitz berezi bat, *papaoa*, gizonezkoentzat erabiltzen dena, esanahi ia berarekin: *Papaoa!* *Papaoori!* *Papao madarikatua!* Eta emakumei aldaera berezi batekin: *Papamoska*. Hala esaten da: *Papamoska baten moduan paratuta*. *Papamoska aurpegiaz*...

Irain-hitzon ezaugarrietariko bat, aldakorrak izatean datza. Alditik aldira, belaunaldiz belaunaldi aldatuz joaten dira. Batzuetan, maileguzko hitzek hartzen dute txanda, indar gehiagokotzat edo ditugulako: *lerdoa*, *leloa*, *tontoa*.

Sarritan, sexuari loturiko hitzen bidez seinalatzen dugu kalitate txar hori: *astapitua*, *txatxala*, *mamala* eta abar. Eta aurrekoak baino bortitz-gordina goa da *alukumea*, baina hiztun askok horrelakoxe hitzetan bakarrik erabiltzen dute *alu* izena, balio figuratuaz.

Lehen erabiliak ziren batzuk badira, gaur entzuten ez direnak: *zorapiloa*, *zarabankada* bezalakoak.

[4]

«Postureo»

—Jakingo duzu aste honetan buruzagi independentistak Kataluniako parlamentuan izan direla, 155. artikulua aplikazioari buruzko ikerketa-batzordean deklaratzeko. Dolors Basa sailburu ohiak esan zuen «ez zaizkiela 'postureo' borrokak komeni. Elkarriketan aurrera egiteko garaia» dela.

—«Postureo», gaztelaniaz ere hitz berri samarra dugu, gaur egun batez ere politika-eremuan beregandu duen adiera horretan behintzat. Politikarien oratorian sendo itsatsi den hitz horietarikoa dugu *postureo* delakoa. Eta badira beste hitz batzuk, esanahi beretsuz ezagunak zaizkigunak: «fingimiento, simulación, afectación, disimulo, artificio», baina ez haren zirikada-indar berezia dutenak.

«Postureo», erregistro kolokialean garatu den hitza dugu. Berorren azpian aditz bat datza, hau ere berria: «posturear». Eta oinarrian, izen ezagunago eta arautuagoa du: «postura».

Horrelako hitz-sorkuntzak hizkuntza baten dinamismo eta bizkortasunaren adierazgarri dira: hitz ezagun eta arrunt batetik abiatuz, aditza eta izen eratorri berriak sortzea, egoera berri edo berri ustekoak izen bereziaz izendatzeko. Gaztelania hizkuntza irudikor eta dinamikoa dugu. RAEk hitz biok kolokial gisa markaturik ageri ditu, baina sarrera propiorik eskaini gabe. RAEn: «Del coloq. *posturear* 'actuar con *postureo*', y este de *postura* y *-EAR*». FUNDEUK, aldiz, bai, sarrera eskaini dio: «El sustantivo *postureo* y el verbo *posturear*, con los que se alude a la adopción de ciertos hábitos, poses y actitudes más por apariencia que por convicción, son neologismos bien formados que siguen el paradigma...».

Euskal hizkuntzak, aditz edo aditz-multzo kategoriako hitz gehiago ditugu esanahi horrentzat, izen abstraktuak baino; hau da, 'posturear' adieraztekoak gehiago, 'postureo' adieraztekoak baino.

Aditz-lokuzioen artean, hurbilak dira: *itxura egin*, eta batez ere pluraleraz, *itxurak egin*. Edo bide berekoak diren: *antz egin*, eta pluraleraz, *antzak egin*.

Iparralde- eta nafar-hizkeretan *itxuratu* aditzak ere beregantz du esanahi hori, erdi eta sartaldean ez bezala. Hala: «Badaki itxuratzen eta *eriarren egi-*

ten» —hau da, gaisoarena egiten—, jaso zuen Lhandek. Orixeren beste adibide bat: «Deabruak ere alako eragiñak *itxuratu* nai izaten ditu aingeru antzean argialdi ontan» (Or., *Quiton arrebarekin*, 174).

Euskara zaharretik datorkigun beste aditz-lokuzio polit bat *irudi egin* dugu, *itxurak eman* esanahi berarekin. Gipuzkoako parte batzuetan *alegia egin* ere esanahi horrekin erabilia da.

Baina hizkera kolokialera bihurtuta, sartalde eta erdialdeko hizkeretan asko erabiltzen den egitura bat dugu: *plantak egin*. Hau da, berezkoa ez dena, itxurazkoa edo antz ematezkoa den zerbait besteen aurrean agertzeko. Batzuetan, elkarketa-egitura barruan: *baserre-plantak*, *negar-plantak*, *eder-plantak egin*.

Izen abstraktuari, «postureo» delakoari zein ordain eman?

- Lehen aukera, -KERIA atzizkiaz baliatzea. Gure hiztegieta irakurri ditudan ordain-aukera gehienak taxu honetakoak dira; izen bati -KERIA erantsita eratorriak: *itxurakeria*, *zurikeria*, *azaluskeria*, *toleskeria*, *alegiakeria*. Eta maileguzko *hipokrisia* delakoa ere ageri da.

- Baina hainbeste -KERIA gabe ere, bila daitezke aukera egokiak, hitz-elkarketaren edo perifrasiaren bidetik batez ere.

Bat izan daiteke *iduri-egite*. Eta eredu beretsukoak diren: *itxura-egite* edo *antz-egite*.

- Hirugarren bide bat izan daiteke *sasi-* aurrizkiaz baliaturik eraikitzea, izen bati aurretik erantsita: *sasijarrera*, *sasiirudi*, *sasiitxura*, *sasijokaera*, edo antzekoren bat bideratu.

Bigarren aurrizki moduko bat *gezur-* izan daiteke; aurretik ipinita, *gezur-jarrera*, *gezur-irudi* edo dena delakoa genuke.

- Laugarren aukera bat izan daiteke, egoki datorren testuinguruetan, -ARENA egin markaz baliaturik esaldia eraikitzea, baina *zeren itxurak egiten diren*, halako izena hautatuta: *onarena egin*, *kokoloarena egin*, *aldekoarena* edo *kontrakoarena egin*, *aurkariarena egin*. . . Hala izan gabe, *hala balitz bezala* egitea.

- Bostgarren aukera bat izan daiteke, -LAKOA izan edo -LAKOA egin egituraz baliatzea, hau ere testuinguruak onartzen duenean. *Gaisorik dagoelakoa egin*, *gaztea delakoa egin*, *kontra dagoelakoa egin* ereduak egiturak.

- Seigarren aukera bat izan daiteke *buru* izena erabiltzea konposaketaren bigarren osagaitzat: *tonto-buru egin*.

Bihur gaitezen kolokialtasun mailara. «Postureo» ere maila horretan sortu eta garatu den hitza denez, ausar gaitezke *plantak egitea* lokuzioa proposatzera. Gaztelaniazko «postureo» edo «posturear» horrentzat ordain egokia izan daiteke.

Azken puntu gisa, gogora dezagun era modalean, adberbio gisa erabiltzen direla horrelako hitzak, zerbait nola esaten den adierazteko, gazt. ‘por postureo’. Eta badugu halakoetarako atzizki zahar bat, -RREN edo -ARREN, *itxura* izenarekin ondo uztartzen dena: *itxurarren*. Markinaldean aspaldi entzundako esaldi batez argitzeko, emazteak senarrari igande goiz batez egindako erregua: «*Itxurarren* baino ez bada ere, egizu elizara agertu bat gutxienez».

Inauteri aurrean gaudenez, nork bere burua den bezala agertu ordez, zinez zer den *itxuratu* gabe, berez ez *delakoarena egite* kontua, ongile eta eskuzabal *delakoarena egite* kontu hau guztiz egoki dator.

2020-02-03

[5]

San Balendin egunean: *maiteminduta!*

—San Balendin inguruan gaudenez, *maitea*, *maitalea* eta *maitemindu* esateko aukera nagusiak horiek dira, ala badira beste batzuk, lehendik datozenak?

—Gaur *maitasuna* | *maitetasuna* dugu kontzeptu horrentzat darabilgun izen nagusia; tradizioan, *amodioa* eta *amorea* ere oso erabiliak izan dira.

Maitasun | *maitetasun* hitzak atzean *maite* adjektiboa du, eta eratorbidez, *maitatu* aditza edo *maite izan* aditz -multzoa. Horrexetatik dator *maitale* eratorria ere, gaztelaniazko «amante» giza izenaren kidekotzat. Eta *maite* oin-hitza *min* izenaz elkarturik sortuak dira *maitemina* eta *maitemindu* izen-aditz eratorriak.

Maite hitz zaharra dugu euskaraz, batez ere adjektibo gisa. Batzuetan maitasun-eremuan erabilia. Lazarraga poeta arabarrak XVI. mendean, *maite* hitza *linda* hitzarekin batera darabil behin: «Ene *lindaxo maitea*». Eta *laztan* hitzarekin beste behin: «Ene *laztan maite* biotz-gogorra».

Aditz-multzo gisa *maite izan* Iparraldeko tradizioan erabili izan da lehen testu idatzietatik, baina Hegoaldean askoz oraintsuago, XX. mendetik honuntz.

Min izena emankorra dugu eremu semantiko desberdinetan eta *amodioa*-rean ere bai, baina ez bakarrean, aurre-izen bati laguntzen baino. *Mina* eta *mindu* gauza bat dira, baina elkarketa bidez garatuak dira beste hainbat *min*.

Amodioaz loturiko hitzetan, *min* hitza ageri da behin eta berriro.

Maitemin eta *maitemindu*, horren lekuko dira. Baina beste hainbat hitz ere badira eremu horretakoak.

Andremina esan izan zaio andrealetasun gehiegizkoa duenari. *Bihotzeko mina*, *amodioak* erreta dagoenaren egoera. Ezaguna da sartaldean harako errezitadua: «[Ai ene! Ai ene! Hagineko miñe, medikuañe. Ai ene! Ai ene! *Bidxotzeko miñe*, nobidxuañe]» (Larrabetzun jaso). *Bihotzeko mina*, *maitemin* bezala erabilia da hor.

Baina bada beste hitz bat, indar handikoa, herri-baladetan eta *amodio*-kantuetan (ia beti tragikoak) sarri ageri dena: *amore-mina*, edo pluralez, *amore-minak*, gaztelaniazko herri-tradizioan oso sustraitua den «mal de amores».

«Testamentuarena» izeneko balada baten laukoak dira hurrengo hauek:

«Zazpi angeru aldamenian, / zortzigarrena gaixorik. / Zazpi mediku ekarri neuntsan, / bakotxa bere lekutik. / Zortzigarrena ekarri neuntsan / India-Madrilletatik. // Haxek igarri, haxek igarri, / nundik daroien gaixorik. / —*Amore minak* baidituz honek, / bai entrainetan sarturik. // —Mediku jaunak guzurra diño, / ez dot nik *amore-miñik*. / *Amore-miñak* baditut bere, / ez entrainetan sarturik».

—*Maitalea* edo maite den pertsona, eta *maitatu* esateko, zer hitz gehiago dugu?

—*Maitea* dugu hitzik ezagunena dudarik gabe, eta *maitale* berriagoa, ia XX. mendekoa.

Baina herri-tradizioko kantu eta kopletan direnen artean, hiru hitz nabarmenduko nituzke:

— Batetik, *laztana*, izen modura erabilia eta sarritan *neure* posesiboaz lagundurik: *neure laztana*.

Kopla zahar biren lauhoak dira: «Txikitxu politori, / zeu *neure laztana*, / katigatu ninduzun / librea nintzana». Eta: «Txikitxu politori, / zu *neure laztana*, / askoren zoragarri / mundura zinana».

— Bestetik, emakumeari buruz, *linda* eta *linda dama* hitzak, balada eta amodio-kantu zaharretan behin eta berriro azaltzen direnak.

«Neska ontziratua» delakoan kopla batek dio:

«—Egun on asko euki dizule, ontziko maisu gaztia. / —Halango asko ekar dizule, *linde damatxu* gaztia».

— *Amorea* ere erabili izan da maite den pertsona izendatzako. Rupert Ordorika kantariak abesten duenatariko amodio-kopla baten hitzak dira: «*Amoretxu* bi dodaz / izen batekoak. / Batari ondo esan, / besteak zeloak».

Eta horren hurrengo kopla batean, Bermeon jasotako bertsioaren arabera, dio: «—Neure laztana, zein dozu laztan? —Letordanean dodana. / Letordanean dodana eta, / zeu zara *neure laztana*».

Laztan izan aditza, *maite* izan aditzaren baliokide modura ageri da: *laztan zaitut*, *laztan nauzu* edo *laztan dut* dena delakoa, esateko. Erljio-giroan, aldiz, *amatu* eta horrelako maileguetara gehiago jo izan da, beste izenen konnotazioak uxatzeko.

Eta *maite* izan esateko, bada beste aditz zahar bat, euskara zaharrean eremu osoan zabaldurik zegoena, eta gaur balio hori galdurik edo ia galdurik duena: *oniritzi*. Eta aditz horretatik, *maitasuna* esateko, *oniritzea*.

XVII. mendean Mikoleta bilbotarrak jasorik dakarren amodio-kantu bateko hitzak dira: «*Amoren* kontentuak eztaude irauten, / kanpoak lorak legez dira galtzaiten». Eta hurrengoak dio: «*Alkar on baderetxe*, / bertan zeloak. / Penaz betetan ditu / bien gogoak». Etxepare poetak ere, XVI. mende goiztiarrean honako galdera idatzi zuen amodioa dela-eta: «Zeren, bada, *hon deritzat hon ezteriztanari?*» ('Zergatik maite dut, maite ez nauena?').

Oniritzi eta gaitziritzi erabili ohi ziren, *maite izan* eta *gorroto izan* kontrako esanahi garbiaz.

Bada gaztelaniaz errefrau ezagun bat: «Quien bien te quiere te hará llorar» dioena; Oihenartek antzeko errefrau batean bildu zuen: «*Gaitz deritzanak* irri deraidik, *on deritzanak* hasperen» (*Proverbes*, I76).

2020-02-10

[6]

«Carroñerismo» politikoa

—Borroka politikoan aste honetan atera den kontzeptua dugu «carroñerismo político» delakoa, eta ez dugu asmatu euskaraz nola eman. Inigo Iturrate EAJko parlamentarioak berak, gaztelaniaz «carroñerismo político» aipatu zuen, eta euskarazko adierazpenetan «joku zikina». Baina, jakina, ez dute biek indar bera. Odol-gosearekin lotzen dut nik... Zeuk?

—«Carroña» eta «carroñero» hitzen sustraian duten esanahitik «carroñero», eta «carroñerismo», hitzek gaztelaniaz hartu duten esanahi figuratibora alde handia dago. Eta zail egiten da euskaraz jauzi bera ematea, oin-hitzen adieratik politika mailako irudizko esanahira.

«Carroña» hitzetik adierazi nahi dugunerako etekinik ateratzekotan, *haratustel* hitzetik abiatuko ginateke. *Haratustela*, *haragi ustela* da, euskaraz hanhemen era askotara izendatzen dena: *haragi ustela* eta *okela ustela* ere esaten zaio. *Sarraskia* eta *hilikia* ere bai Iparraldean. «Non baititake *hilikia*, harako dira arranoak ere», esaten da Mateoren ebangelioaren euskal bertzio batean.

- Lehen aukera bat izan daiteke, *ustel* hitza ointzat hartzea. *Ustel* hitz malgu, toleskor eta emaritsua dugu. Adjektiboa ezezik, izena ere bada: *sagar ustela* edo *sagarrari ustela kendu behar zaio labeaz sartzeko*. Eta aditz bi erakartzen ditu ingurura: *usteldu* eta *ustel egin*.

Idi-probetan, probaerriak hegaletariko batean arraiaren kanpoko alderdia ukitzen duenean, *Ustel!* esaten da, *ustel egin* duela. Berdin esku-pilotan, hegaleko arraiatik kanpo jotzen duenean pilotak. 'Decepcionar' esanahiaz ere erabila da, *ustel irten*. Behin entzun nion lagun bati, lehendakari izandako bati esaten: «Politikari askok *ustel urten* deuskue».

Usainetik jotzen dute piztiak edo hegaztiak *haratustela*, *haragi ustela* dagoen lekura. Nolabait *ustelzaleak* dira, *haragi* edo *okela hila* gustatzen zaie. Badira beste piztia batzuk, ordea, *odolgiroak* direnak, *odolzaleak*. Horiei *haragi* eta *odol* bizia gustatzen zaie.

Ustelzalekeria izan daiteke «carroñerismo» izendatzeko aukeran dugun hitzetariko bat.

- Bigarren aukera bat, *odol* hitzetik abiatzea dugu. *Odolgiro*, *odolzale*, *odol-ti*, *odolgura*, *odol-ordi* edo *odol-egarri* dira kualitate-adjektibo batzuk, 'krudel',

‘anker’ esanguraz, gaztelaniaz «sanguinario» adierazten dutenak. Beste aukera bat, Eusebio Erkiaga idazleak aspaldi idatziz erabili zuen *odol-egarbera* adjektiboaz izendatzea litzateke «carroñero» delakoa, eta *odol-egarria* fundatzea «carroñerismo» esateko.

—Hirugarren aukerarik?

—«Carroñerismo», irudi gisa gizakietara ekarrita, nolabait bada, hildakoez baliatzea, aparteko arrazoiengatik hildakoez, horretatik probetxu ateratzeko.

Eta inauteri eta aratuste garaian gaudenez gero, Eibarren, Durangaldean eta beste hainbat lekutan jendea *koko-jantzita* kaleratzen den garaian, bada zomorro edo koko bat, *lupua* esaten zaiona, gazt. ‘oruga’ eta ‘escorpión’ adieraduna, edo Toribio Etxebarriak Eibarren jaso zuen arabera: «Sabandija venenosa de muy mala leyenda en el caserío» (*Lexicón del euskera dialectal de Eibar*).

Gizaki bati egotzi dakioken biraorik bortitzenetarikoa da: *Lupua! Lupuorri! Lupua baino txarragoa*. Edo: *Lupuak joko al hau!* Leku askotan *lupua* deitu izan zaio, inoren ahuleziaz, debilitateaz, baliatzen denari.

Lupuak jota dagoena «carroña» da. Eta *lupukerietan* dabilena, «carroñero». Eta *lupukeria* esan dakioke «carroñerismo» delako horri. Politikari aplikatuta, *lupukeria politikoa* edo *politika-lupukeria*.

2020-02-17

[7]

Haragia eta okela

—Nekazaritzaren egoera eta etorkizuna kezkarriak badira, haragi-merkatuarena ez gutxiago. Abelgorri-jabeak, harakinak, harategiak kezkatuta daude haragiaren kontsumoak izan duen beherakadaz.

Haragiari euskaraz ematen zaion izenaren inguruan dira gure oraingo kezkak. Nola deritza jaten dugun horri? *Haragia, okela? Haragiaz* has gaitezen .

—*Haragi* da euskaraz dokumentatzen den hitzik zaharrena. XII. mendean Piri-nioak zeharkatu zituen Aymeric Picaud izeneko elizgizon-edo zelakoak, Donejakue bidean ikasi zituen zenbait hitz, euskaldunen hizkuntza «bar-baro» hartan, *Codex Calixtinus* delako gida estiloko eskuizkribu sonatuan; erromes nekatuek jakin zezaten nola eskatu aterpetzen zituzten ostatu edo etxean behar-beharren zutena. Latinez idatzi zuen: «... vocant [deitzen die-te] ‘panem’ *ogi*, ‘vinum’ *ardun*, ‘carnem’ *aragi*, ‘piscem’ *arrain*...», hitz-zerrenda luzexeago baten barruan. Horiexek dira janariaz eta edariaz emana zituen euskal izenak.

Haragia euskara osoko hitza da, zentzurik zabalenean hartzen bada. Batez ere, eta lehenbizi, gorputzeko haragia izendatzeko, haragi bizia. Baina janari edo jakitzat hartzen dugunari ere *haragia* deitu izan zaio hitz horren zentzurik orokorrean, euskararen eremurik gehienez. Salbuespen nagusia, azken mendeotan eta gaur egun, euskararen sartalde da. Baina lehenago ez. XVI. mendean, Lazarraga idazle gazteak, Agurain inguruko hizkeran, jakitzat ere badakar: «Ene aginok ezin jan leie / *aragi* errebagea».

Inauteri giro betean gaudenez gero, gaztelaniazko «Carnestolendas» horren kide garbia dugu euskaraz *aratiste*, *aratuste* edo *aratoste*, hain zuzen sartaldean deritzan izena. (*H*)*arat*- hori *haragi* hitzaren era laburtua dugu, atzeko hitz batekin elkartzean hartzen duen itxura: *haragi-ixte* edo *uzte*, jatorrian. Hitz hau ere Arabako Lautadan ageri da lehenengoz XVI. mendean. Idazle biren lumaz, gainera: Landuccioren hiztegian eta Lazarraga poetarenean. Honen hitzez: «Nik diot egun dala *Aratixte*». *Haragi* hitza lehenean izan duen erabileraren arrasto gardena. *Aratoste* eta *basa(ra)toste* esaten da sartaldeko hainbat lekutan: *haragi-oste* aldaera itxuraldatuaren ezaugarri.

Haragiak, gorputzekoak izendatzeko denean, horrelaxe pluralez, hitz zaharra dugu. Gorputzeko haragi osoa aipatzeko «lau haragiok» esamoldea dugu xv. mendeko eresi zahar batean. 1448an gertatu zen bere senarraren hilketaren ondoren, Santxa Otxoa Ozaetakoak kantatu omen zituen eresiek diote: «Oñetako lurrau jabilt ikara. / *Lau aragiok* bere an berala. / Martin Bañez Ibarretan il dala. / Artuko dot esku batean gezia, / bestean zuzi iraxegia. / Erreko dot Aramaio guztia». Aramaiko jaunaren aginduz hil zuten Martin Bañez zena.

Euskararen sartaldean *haragia* gaur ere ohiko hitza dugu, gorputzeko haragi biziarentzat denean. Sarri entzuten da adinean sartutakoen ahotik, gazteak udan hondartzan eguzkitan eta: *haragi guztiak erakusten* ikusi direla. Edo batek, *gorputzeko haragi guztiak minberatuta* dituela. Edo: *Lodiaren lodiaz haragiak dariola* dabilela urlia. Lehen bekatu handitzat aipatzen ziren *haragikeria*, *haragikoi* eta halako batzuk ere guztiz ezagunak dira eliz dotrina gaitan, beti ere seigarren aginduari doakiola.

Oro har, (h)*arat-* hitz-oina dugu *haragi* hitzak hartzen duen era laburtua eratorri zaharretan. — *Arakaitza*, haragiko gaitza, deritza zaurietako haragi ustelari.

- *Harakunea* ere bada, gazt. ‘encarnadura’.
- *Aratardia* ere bai, haragitarako hazten den ardia.
- Baita, *arategun* hitza ere, haragia jan daitekeen eguna, barauzaro ez dena.
- Eta *aratustel*, haragi ustelari esateko.

Harakina eta *harategia* hitz zaharrenetarikoak ditugu euskaraz idatzizko agerietan. Oraintsuagora etorrita, bada esaera moduko bat, Martzelino Soroa antzerkigileak umore handiz jaso zuena: «Ala da bai, Batista. Bada mundu ontan ondo bizitzeko, esaten dan bezela, *arakinekin* gosaldu, ixkribaubakin bazkaldu ta mandazaiekin afaldu».

—Eta *okela*?

—Jateko haragia izendatzeko darabilgun hitza da gaur egun euskararen sartaldean. Hitz zaharra, latinezko «buccella» hitzean sustraia duena. Esanahia: ‘*aho-kopaoa*’, ‘*ahamen txikia*’, gazt. ‘bocado’. *Okela* hitza berez euskara zabalekoa dugu, eta lehenago gaur baino askoz hedatuago zebilen, baina esangura berezituaz. *Okela* eta *haragi* ez ziren bat.

Larramendik zuhurkiro zioen XVIII. mende erdi aldera, *okela* definitzean: «carne en un dialecto, y en otro [gipuzkeraz esan nahi zuen], pedacito de carne». Eta Jose Arakistain fraideak, Itziarko semeak, esanahi zabalagoa

egozten zion hitz honi aldi beretsuan: «pedazo de cualquier cosa comestible». Esangura zabalago hori zuen *okela* hitzak lehenagotik ere. «Lonja de tocino» Gasteizko hizkeran, «urdai okelea» itzuli zuen Landucciok XVI. mendean. Eta Bilbo aldeko errefrau zaharretan ere *okela*, haragi-atalarentzat ageri da: «Katuak daroean *okelea* gehiago da berea, ze ez heurea. 'La tajada que lleva el gato, más es suya, que no tuya'» (*Refranes y Sentencias*, 468).

Baina *okela* hitza, sartaldean, Larramendi baino lehenagoko garaietatik eremua zabaltzen joan zen, eta, jateko den *haragikia* izendatzeko orokorrean erabiltzera. Eta denboraren ibilian, sartaldean, jate kontuan *okela* hitzak beregandu du lehen *haragi* hitzak zuen esangura-esparrua, harik eta bata eta bestea sinonimo oso bihurtu diren arte.

Eta ganaduetan ere bereizi egiten da, *esnetarako* den ala *okelatarako* den. *Okela-ardiak* eta *okela-behiak* dira gizentzen direnak, pisu handia hartu dezaten hiltegira baino lehen.

Gaur egun, tamalez, batzuen ahoz *okela* hitza berea ez duen ingurunean entzuten hasita gaude: *okelak dindilizka*, *garriko okelak* eta halako baragarrikeriak. Baina gorputzekoak ez dira *okelak*. Gorputzekoak *haragiak* dira, edo nahi bada, *maminak*.

—Eta haurrei ematen zaien *txitxi* ere ez al da haragia?

—Arabako Lautadan gaur ere *txitxiki* esaten diote gaztelaniaz, *okela* txikituaz (edo tripakiaz), piper gorrituaz nahasita egiten den jakiari.

Txitxi edo *txitxia* ume-hizkeran erabili izan da batez ere, bai lehen eta bai gaur. Baina aldi batez esangura zabalagoa ere bazuelakoan nago: *haragi-zati txikia* adierazi izan duelakoa.

Gaur egun hitz horren oinaz darabilgun hitzik ezagunena *txitxi-burduntzi* dugu. Oraindino ere, inauteri aurreko igandean, gaztetxoek eta, basora edo landa batera joanda egiten duten otordu txikia izen horrekin ezagutzen da.

Burlazar ere esaten zaie umeei: «Negar da barre, *txitxiburduntzi*!» (Azkue).

Ume-hizkeran sarri aipatzen den esaera dugu «*txitxi* eta papa», haragia eta ogia. Larramendik gaztelar jakituntzat zeudenekiko polemikan galdetzen zuen: «Aurren batzuek al gera [...], *txitxia* ta *paparekin* engaiñatuko gaituztenak?».

Euskaltzain-lagun bati, Xabier Kintana jaunari, sarri entzun diot, gaztelaniaz «tapa», «pincho» edo lehenago «banderilla» zeritzan hori euskaraz izendatzeko *txitxi-zotza* litekeela hitzik aiutuen.

[8]

Anaitasuna edo haurridetasuna

—Athletic eta Erreala futbol-ekipoen arteko Errege-koparen finala dela-eta, tradizioz *anaitasuna* izan denaren orde, andrezkoak zein gizonaek, biak, barruan hartuko dituen hitz baten bila ibili gara. Batean *ahizpatasuna*, bestean *arribatasuna*... *Haurridetasuna* proposatu digu entzule batek. Zer iruditzen zaizu?

—*Anaitasuna* dugu gaztelaniaz «fraternidad», «hermandad» edota frantsesezko «fraternité» izenaren kiderik hurbilena, zaharrena eta hedatuena. Baina *anaitasunean* bizi izateak ez du zerikusi osorik zertan eduki *anaia* izatearekin. *Anaitasun* izenak esanahi-eremu zabalagoa hartzen du, eta balio abstraktuagoa du, *anaia* izateak baino, beste hizkuntzetan gertatzen den bezala. «Frater» latin-oina dugu erromantze-hizkuntzen sustraian eta «Bruder | Broder» germaniar hizkuntzarenean. Beti ere gizonaek izenak. Eta eratorrietan berebat: «Fraternité», «Brüderlichkeit»...

Genero kontua izen bereiziaz ematen da euskaraz ere: *anaia* gizakumeentzat, *ahizpa* andrakumeentzat, orokorrean hartuta. Beste bi izenak, *arriba* eta *neba*, beste generoaren aldetik datozen izendapenak dira: *arriba* gizonaek izenak, *neba*, sartalde euskarara mugatua, emakumearentzat denean.

Guraso berak dituzten neska-mutilak, generorik gabe izendatzeko, euskaraz bi izen nagusi dira: *senideak* eta *haurrideak*. Lehenengoa orokorrean polisezikoa den aldetik, eta bigarrena zehatzagoa kontzeptuaren aldetik: gurasoen *haurrak* dira eta aldi berean -IDEAK (*kidea*). Horiek horrela, genero biak hitz batean hartzeko hitzunik gehienok izen elkartuetara jotzen dugu: *neba-arrebak* sartaldean eta *anaia-arrebak* erdialdetik ekialderantz.

Anaitasuna, izen bezala, senidetasun harreman horien kalitatea adierazteko, gutxienez XVI. mendetik hona dugun izena dugu; hala idatzirik ageri da, *anaitasuna*. Latinez ere «germanitas» eta «fraternitas» bazirelako. Eta behin -TASUN atzizkia hartuz gero, lehen oina *anaia* izan arren, genero biak bereganatzen ditu. *Gizatasun* eta *gizaki* hitzek ar-emeak biltzen dituzten gisan.

Gure iritzian alfer-antzua litzateke, generoa zorrotz markatu beharrik bultz eginda, *ahizpatasun*, *arribatasun* edo *nebarribatasun* bultzatzea gizarte zabal

bateko kontzeptutzat. Moja-komentu bateko giroan bai esan daiteke *ahizpatsuna*, *neure ahizpa maiteak* esan daitekeen moduan, edo fraide batek esan dezake sermoi hasieran: *neure anaia-arrebak*, baina gizarte zabalago batentzat -TASUN atzizkia eransteak ez dakarkigu gehi-baliorik. Eratorikuntza berri horrek ez lekarke adierazkortasun-gehitze handirik kontzeptu orokorrago batentzat.

Senidetasun hitzak balioko luke *anaitasun* hitzaren kidetzat, *senide* izenak *neba-arrebak* barru hartzeko balio duelako, baina katramila semantiko batez topo egingo dugu: *senidetasun* edo *senitasun* abstraktuak 'parentesco' esanahiaz erabili izan direla, eta ez *anaitasunarenaz*.

Haurride Iparraldean *anai-arreba* adieraz erabilia da, eta *haurridetasun* hitzak ere badu esanahi hori, Iparraldean bereziki. Landerretzek idatzi zuen bezala: «Goresten du, ez xoilki Euskalzale Lagunen batasuna, baina bai oraino lekhu eta lehor guzietako Euskaldunen *haurridetasun* osoa».

Neurez, gehiago joko nuke *lagun* izenaz baliatzera, eta oin horri tira eginenez, *lagunarte* hautatzera. Edo nahi izanez gero, *lagunartekotasun* luzeagoa, baina ez dut azken honen beharrik ikusten.

Lagunarte ederrean, *lagunarte atseginean*, *lagunarte gozoan* egon, eta ez *lagunarte galgarrian* edo *lagunarte gaiztoan*. Koldo Mitxelenak behin idatzi zuen legez: «*Lagunarte ederrean* irten naiz plazara». *Lagunarte ederrean* edo Iparraldeko erara, *lagungo onean* ospatu edo bizi Errege-kopa...

Elkar izenordainari ere atera dakioke genero kontu honetan onura pitin bat, ar eta eme biak hartzen baititu. Horren bidekoak ditugu *elkartasun* eta Iparraldean *elkargo*. Futbolzale guztiak *elkartasun* giroan egon izan direla Sibiriako Kartujan.

Jendarte onean esanda ere, ituan joko genuke kontzeptuari dagokionez.

Eta Axular klasiko handiaren errepertoria joz gero, *konpainia ederrean*. Hara zer dioskun *Gero* (1643) bere obra urregorritzkoan, «irakurtzaileari» zuzendutako gutunean: «Egun batez, *konpainia on batean*, euskaldunik baizen etzen lekhu nengoela, ekharri zuen solhasak, izan zen perpausa, etzuela deusek ere hanbat kalte egiten arimako, eta ez gorputzeko ere, nola egitekoen geroko uzteak, egunetik egunera, biharretik biharrera luzatzeak».

[9]

«Coronavirus» hitza

—Coronavirusaren inguruko hiztegitxo...

—COVID-19 deritzanak ustekabeen harrapatu gaitu, nahiz *coronavirus* izurritearen durundi-hotsak, hasieran urrunetakoak, lehengo hiletik gero eta hurbilago entzuten genituen, *izurrite* edo *pandemia* zelakoak *panizurrite* aitormena iristeraino, eta igarri orduko etxe barrura sartuta geneukan.

Gure Lehendakaritzak *osasun larrialdi egoera* aldarrikatu du, eta handik lasterrera Estatuko gobernuak *arrisku-egoera* edo *alarma-egoera* gradura jaso du *errege-dekretu* baten bidez.

COVID-19aren eraso oldarkor hori, European ere Italian barrena hain bortitz sartu dena, hasieran uste zen, epe motzean halako *baretze* edo *arindura* fase batera etorriko zela, baina *mitigazio epe* baten esperantzek putzura jo dute, egunez egun eritasun egoera larriagotu ahala. *Pozak pozura*, esan ohi den bezala.

Konfinamendu eta *itxialdia* bihurtu dira gauetik goizera guztion egoera berria. Lehen ere baziren bere borondatez basamortuan, basoan edo ermitaren batean *bakartzen* zen jendea, behinolako *padarrak*, baina gu oraingoan geure desborondatean *bakartu gaituzte*, eta geure etxeetan *barrututa*, *itxita* egotera behartu. Baina aldi berean geure etxeak bihurtu dira orain gure borondatezko *hesia*, *murrua*, *harresia*, eta horrezaz *sinetsita* egoteko motiboak badira; *etxe barrua* bihurtu da, ustegabeko bidelapur bihurtu den izurrite berriaren aurrean jaigon gaitzkeen *babes-hesi* segurua. *Konfinamendua*, gure kasuan, *barruratz* garbia izan da, halabeharrezko *hesiratzea* nolabait.

Ekuaizioa ere entzun da, baina gizartea *leku-uzteraino* edo *kanporatzeraino* behartzeko arriskurik ez ei dago. Nora *leku-aldatu*, ostera? Horretaraino behartuko balitz gizartea, *deserritze garratz* gordina genuke hori.

Kuarentena hitza hamaika aldiz entzunak gara. *Kuarentenatzera* behartu gaituzte, nolabait esateko. Oraingoan hamabost egunerako agindua eman dute, baina garizumak adina iraungo duen beldurrago gara. Hitzak bere zentzu hertsian adierazten duen *berrogeizarora* ailegatuko ote garen. Baina nork *bermea* eman dezake, *barrualdi* hau, *baraualdi* egoeran izango ez bada ere, egiazko *berrogeizaro*

bihurtuko ez ote den. *Kuarentenari*, denbora-epeari dagokionez, eskusoinuaren gisa luzatu eta laburtzeko aukera emango diogu badaezpada ere.

Izurri gaizto honek *oratu* ez diezagun, *kutsapena* saihesteko, ez geuk besteri *inkatu*, ez bestek guri *inkatu* ez diezagun zorigaiztoko birusa, goitik hartu diren *euste-neurriak* nahikoa izango ez direnez gero, gutariko bakoitzak hartu beharko ditu *bereak* badaezpada ere, batez ere hirurogei urtez gora gaudenok.

Gogora dezagun, 1918an Bizkaiko Foru Aldundiak artezbide zehatzak argitaratu zituela ele bitara, gizarte osoa lau dardan zeukan izurri nobedadetsu hari eusteko. Izenburua: «*Gripe izurri-gexoa galazoteko Bilboko Osalari-Bazkunak aginduten dauzan egin-bearrak*».

Azken gerratea eta gerraostea ezagutu ez dugunok, *geure bizian* ahaztuko ez dugun egoera larri honekin batera, euskarazko hitz batzuk ere, errepikatu izanaren puruz, ez ditugu ahaztuko ziurrik.

Hainbeste ekitaldi *bertan behera* utzi edo geratu direla, eta gutxi batzuei baino ez zaiela eutsi *bere hartan* edo *bere borretan*.

-KADA atzizkiak neurri-atzizki bezala duen indarra ere gogora etorri zaigu, ikusirik zenbat jende hurbildu den larrialdi-egoera honen lehen egunotan supermerkatu eta hipermerkatuetara, *poltsak* edo *zaku txikiak* hartuta, etxerako osteran *poltsakadak* eta *zakukadak* bi eskuetan dakartzatela, saltegietak apalategietan *direnak eta ez direnak* husturik uzten dituztela, dendatik irterakoan *gurditxokada* generoa banan-banan ordaindu ondoren.

Infekzio- edo *kutsadura-guneak* zein diren noraezean itsumustuan ibili beharra.

Inguruko edonori metro eta erditik honuntz *ondora ez etortzeko, ez arrimatzeko* eskaria.

Eskuak sarri garbitzea eta ondo *igurztea* dira belarrietara datozkigun agindu zorrotzak. Eta ahoa eta musuak estaltzeko, *maskaraz* edo *musukoz* urri gabiltzanez, *tapaukak* erabili beharko ote ditugun, edo besterik ezean, gana-duei eta txakurrei ipintzen zaizkien *mozal*, *muturreko* edo *zurdapalez* baliatu beharko ote garen.

Ospitaleek, *kutsatuen* etorrerarekin, *gainezka egingo duten* eta *geldiaraziko ote diren* beldurra, beste hitzez *kolapsoa*.

Eta amaitzeko beste hau. Etxean egonaren egonez, lehen *kanpozulo* izan direnak ere *etxezulo* egiteko joera erne daiteke, edo okerrago dena, *obezulo* bihurtzeko nagikeriaren handiz. Eta guraso eta seme-alaba txikien artean ere, gurasoak *umezulo* bihurtzeko, edota umeak ere, *aitazulo* eta *amazulo* egiteko gehiegikerian jausteko.

[10]

Pandemiaren *erpina*

—Koronobirusaren inguruko hitz seinalagarriak gaurkoan ere...

—Pandemiaren gorenengo puntua izendatzeko «pico» hitza nagusitu da gaztelaniaz. Euskaraz zein? Panizurriteak *sapaia* jo duela, *erpina* jo duela, ala zer?

Gure orografiatik, paraje menditsuan bizi izatetik datozkigu izenik garbienak: *erpina*, *gailurra*, *gaina*, *goia*, *punta*, *tontorra*... Gaztelaniaz ere halako izen bat hautatu da, aldi berean orokorra: «pico».

Euskaraz zein hautatu? Ikuspegi dinamiko batetik, *goia* jo lokuzioa hobetsiko nuke: pandemiak *goia* jo duela. Gorengo puntua noiz izan den, *gailurra* noiz izan den, edo *erpina* zein izan den, edo *puntarengo* unea zein izan den, esateko beste modu bat da. *Punta* erdaratiko hitza dugu, baina euskaran sakon sartua. Kanta ezaguna dugu: «Aldapeko sagarraren *puntan*, *puntaren puntan*» edota *Lamiaranpunta*, *Zorrotzapunta* bezalako toponimoak.

Eta goi-tontor hori lauean hedatzen denean, gaztelaniazko «meseta» denarentzat, *goi-zelaia* edo *goi-lautada* proposa daiteke.

—Kalera irteterakoan, muturrean *maskarilla* jantzita joan beharko dugu. *Maskara*, *maskarilla* dira gehien entzuten ditugun hitzak.

—*Maskara* hitzak hain gauza asko eta ezberdinak adierazten ditu ezen, ez da, beharbada, aiutuena orain gure artean zabaltzen doan *muturretako estalki* horrentzat. Inauterietan mozorrotzen dena ere *maskaratu* egiten da, hau da, *maskaraz* soinekotzen da. Eta *maskaratxoa* gaztelaniazko «mascarilla» horren era kalkatua dugu.

Norbaitek edo norbaitzuek *musukoa* proposatu dute, eta, egia esan, gustukoa dut, geure hitza eta adierazkorra dugulako. Baditugu beste soineko edo apaingai batzuk ere. Badugu, *gerrikoa*, *soinekoa*, *burukoa*, *euritakoa*...; baditugu *oinetakoa*, *belarritakoa*... Zergatik ez *musukoa*? Ezen *musua* —bizk. *mosua*— ‘arpegia’ edo ‘muturra’ adierazteko erabiltzen da oraindik. *Eskuak eta musua* ondo garbitzeko eskatzen zaigu egunotan. Edo Anbotopeko plateruek kanta-

tzen zuten bezala: «Txapela eskuan da pipia *mosuan* / biderik topau ezinda dabilnaz auzuan». *Musugitarra* ere musika-tresna zaharra dugu. Egoki asmatua begitantzen zait *musukoa*.

Ospitalean ingresatuta eta bularrek behar bezala hauspotzen ez zutelako arnasa nekez hartzen zuen andre zahar bati entzuna diot, kentzeko mesedez muturrean ipini zioten *mozala*, enbarazu egiten ziola eta. *Mozala* hitza ere, testuinguruaren arabera, berba polita da.

Katigario hitza ere datorkit gogora itxialdi luze honetan, azpian *kautiberio* izena duena. *Katigu egotetik* sortu da *katigariora*, Mogeldar idazleek literaturara ekarri zutena. *Katigu egoteak* amodio-kantu zahar batera garamatza: «Txiki-txo politori, / zeu nere laztana, / *katigatu* ninduzun / libria nintzana. // Libriak libre dira / zu ta ni *katibu*; librerik obe dana / guztiok dakigu».

Gaurko *katigariora* ez da 1823ko «Trienio Liberal» hartakoa bezalakoa. Baina haren bukaeran, hark deuseztaturiko Foru Diputazioak berriro jarri zirenean, Markinan apaizburu izan zen Juan Jose Mogelek, hau idatzi zuen: «Nosbait biar genduzan / biotzak askatu, / lengo illuntasunak / pozagaz argitu. / *Katigarijo gogor* / iru urtekua, / ez da seiñale бага / alan istekua». *Katigario gogor* hiru urtekoa dio».

—Eta deseskalatzea, nola adierazi?

—Izen bat baino gehiago dira, baina *deseskalatzea* da gehien entzun edo irakurtzen dudana.

Arintzea edo *arintze-fasea* izan daiteke adierazpide egoki bat. *Leuntzea* ere zuzen eta egokia izan daiteke. Badira beste hitz edo esapide batzuk ere erabil daitezkeenak: *jaitziera*, *beheratzea* —*beherantzkoa* ez dugu proposatuko, beste esangura zabalago bat daukalako—, *beheititzea*. . . , edo hitz-elkartetara joz gero, *mailajaistea*, *maila-beheratzea* bezalako hitzak ere aukeran ditugu.

2020-04-20

[11]

Froga edo proba, aspaldiko zalantza

—Ez ditugu gehienok garbi bereizten *froga* eta *proba*, *frogatu* eta *probatu*. Ba al dago bereizterik?

—Hitz beretik datoz, oin berekoak dira bata eta bestea, baina hitz era biak sartu dira euskara arautuan, zein bere esanahiarekin, edo hobeto esanda, bakoitzaren bere esanahiekin. Bat baino gehiago dituelako hitz bakoitzak.

1) *Froga*, funtsean, zerbait demostratzeko darabilgun baliabideari esaten zaio. *Frogarik* gabe ezin da egiaztatu *frogatu* nahi den hori. Hipotesi bat, iritzi bat, intuizio bat, *frogarik* gabe ezin da ziurtatu. *Egiaztabidea*, *frogantza* izatea dugu *froga* izenaren adiera nagusia.

Aditz bihurturik, *froga* bidez *frogatu* egiten da egiaztat edo hala delakotzat eman nahi dena. Emandako hitza *frogatu* egin behar da, kasurako. Frogatzea, ez da besterik, egiaztatzea, on egitea, justifikatzea baino.

2) *Proba* hitza, *frogaren* anaia bizkia dugu, baina hizkera arautuan honek ere sarbidea aurkitu du, bere esangura-eremu bereziaz. *Froga* izena esanahi espezifikoa darabilgu, eta *proba*, aldiz, esanahi ugariagoak barruan hartuta. Gaisotasun bat dela-eta, testa egiten denean ere *proba bat* egiten dela esan ohi da. COVID-19a zenbateraino hedaturik dagoen kalkulatzeko egin diren milaka test horiek *probak* dira, ez *frogak*.

Unibertsitatera sartzeko, *sarbide-probak* egiten dira. Euskara-titulua ateratzeko, *idatzizko proba* egiten da. Eta txapelketa batzuetan, esku-pelotan adibidez, *kanporaketa-probak* egiten dira.

Beste *proba* modu asko ere badira. Jostunarengana doanean bat, jantzi berriaren neurriak hartzera, *azken proba* bat egitea ohikoa izaten da, ea soinean ondo egokitzen denentz.

Probak dira txorikume batek hegan hasten denean egiten dituen lehenengo saio, entsegu edo ahalegintxoak ere.

Nekazari munduan nork ez ditu ezagun *idi-*, *zaldi-* edota *gizon-probak*?

Eta *proba* egin aditz lokuzioaz adierazten da batez ere, ‘saioak, entseguak egin’: harri bat altxatzeko, adibidez.

Eta *proba egin* aditz-multzoak badu beste esanahi polit bat ere, sartaldean nahikotxo entzuten dena: txikia den ume, abere, landare batek *proba egin* duela esaten da, hazi egin dela, gora egin duela aditzera emateko. Udaberrian ere, apirilaren akabu eta maiatzaren sarreran, landetako belarrak igartzeke *proba egin* duela ohartzen gara, ia egunetik egunera.

Eta amaitzeko, azken testuinguru bat, *probatu* aditza gastronomiari aplikatuta: *Jatekoa probatu egiten da gatzean, ea gazi ala geza dagoen.*

—Eta *testa* dugu hirugarren hitza lehia horretan.

—Sinonimo hurbiltzat darabiltzagu ingurune batzuetan *proba* eta *testa*, baina inolaz ere ez du bata bestea kentzen. *Test* hitza mailegu berriagoa dugu, eta jakintza-mailetan sartu da batez ere, edozein gai edo arazotan *neurria hartzeko*, *zenbaterainoko* ezagutza edo gaitasuna den zehatz ezagutzeko. *Proba* hitz orokorragoa dugu, *testa* zientzia alorrean finkatuagoa: soziologian, medikuntzan, ekonomian. . . , froga zehatzak egiten direnean, *test* hitza da erabiliagoa.

Azterketak ere, irakaskuntzan edo oposizio eta lehiaketak ateratzeko egiten direnak, *test* bidez egin ohi dira sarri.

Eta izurri eta birus batek kutsatua dagoen norbait ziurtatzeko ere, *testak* egiten dira.

Gaztelaniaz «testear» aditza ere indarrean dabil. Euskaraz ez dugu oraindik *testatu* aditzik finkatu, baina berez-berez etorriko da.

2020-04-27

[12]

Telelana eta beste «tele-» batzuk

—*Telelanak*, bai lan egiteko moduak, bai izenak berak, sekulako indarra hartu dute itxialdi luze honetan. Egokia al da, *tele* batetik eta *lan* bestetik, elkartzea?

—«*Tele*», adberbio grekoa, *urrun*, *urruti* adierakoa, hitz-elkarketako lehen osa-gaitzat garatu da Europako hizkuntzetan. Eta euskaraz ere goraka dator, gaur egungo gizarte teknologien bidez batez ere. Areagotu egin da *tele*-osagaidun eratorrien sorkuntza eta hedakuntza pandemiaren zurrumbiloan, bakartu egoera horretan; jarduera asko lantokitik at egitera zuzenduak izan garen horretan. Urrundik, *tele*- bidez lan egiteko estiloa iraunkortu da, agian luzaroko.

Telelana da indarra hartu duen hitza; lehendik ere zetorrena, baina orain-goan geure bizikide izateko. *Presentzial*, *aurrez aurre* ez diren zereginak, urrundik egiten direnak aditzera ematen dizkigu *tele*- horrek.

Modernitateari eta teknologiari datxezkan hitz berri samarretan ezagutu dugu *tele*- osagaidun neologismoen sorrera. *Telefonoa* dugu ezagunena. Aitor dut, euskaldunok ere aspalditxo eho genduela *urrutizkin* hitza, alemanek «Fernsprecher» sortu zuten bide beretik, urrundik hitz egitea errazten duen aparatu horri deitzeko. Lehenagotik ere bagenuen *telegrafia*, eta *telegramak*, urrunetiko idatzia bizkor batean helarazteko dagokionarentzat.

Oraintsuagokoak ditugu *telekomunikazioak*, urrutitik komunikatzeko tresna edo bideak.

Telebisio hitza hibridoa dugu: *tele* grekoa eta *bisio* latinoak. Euskaraz ere sortu genuen behinola *urrutikuskin* hitza, hainbesteko arrakastarik irabazi ez zuena, alemanezko «Fernsehen» delakoak eduki bazuen ere.

Euskaraz, hitz mordoaren sortzaile bihurtu da *tele*-, lehen osagai gisa. Eta pandemia garaian, hark eragindako bakarraldi edo etxealdia bide dela, irudimenari hats emanez, hainbat hitz berri sortu dira gurean eta beste hizkuntzetan. Aurrez aurre egin ezin den guztia, *tele* bidez egitera behartu du jendea. *Teleikustera*, *teleentzutera*, *telekantatzera*, *telejokoak* egitera jo du jendeak, besterik ezinean.

Merkataritzan *telesaltzeak* eta *telerosteak* gehitu dira, gure herri-hirietako denda txikien kaltetan. Eta ordainketarik asko *teleordainketa* bihurtu dira, zuzenean aurrez erosita ere; diru-paper eta txanponak birusa kutsatu dezaketen beldurrez.

Telelanean jende asko ari da. Eta horren azpilan bihurtu dira *telebilerak*: lan-egoitza itxi duten erakunde, elkarte eta enpresa askok, bilera presentzialen ezinean, *telebatzar* edo *telebilerak* egitera jo behar izan dute.

Irakaskuntza presentziala *teleirakaskuntza* bihurtzea izan da gure haur eta gazteen artean egoera ezohiko honek erakarri duen beste berrikuntza bat. Gure irakasleak *teleirakastera* behartuak izan dira, eta eskolaume eta goi-irakaskuntzako ikasleak *teleikastera*. Eta horren harira, *teleariketak* eta batez ere *telelanak* egin beharra suertatu zaie gure ikasleei. Eta zailago bihurtu da irakasleentzat, *teleazterketak* ipini eta zaindu beharraz, *telekopiarik* inork egin ez dezan!

Arte-munduan ere irudimenari etekina ateraz, gogotik ekin diote kantariak *telekantuan*, antzesleek *teleantzerkian* eta nork bere trebetasunak urrunetik etxeetara hurbiltzen.

Sexu-erasoak, etxealdiaren erruz, aurrez aurrekoak dira tamalez, baina *teleerasoak* ere ez dira falta izan...

Eta EUSKADI IRRATIAN kanpoko kideok —eta barruko batzuek— egiten ditugun jardunak ere *telejardun* bihurtu dira pandemiaren erruz.

—Zilegi al da horrelako hitz-konbinazioak sistematikoki egitea?

—Euskarak hainbat aurrizki ditu bere hiztegian, gehien-gehienak kanpo-hizkuntzetatik etorriak, grekotik eta batez ere latinetik, eta geuregandu ditugunak.

Grekotik datozenak ez dira hainbeste, baina latinetikoak ugariak dira. Bat edo beste aipatzeko:

- DES- dugu emankorrenetarikoa eta euskarazko oin-izenekin ondo ekan-du dena, baita herri-hizkeran eta tradizio idatzian ere. Nori ez zaizkio eza-gun egiten *desegin*, *desordu* | *desoren*, *desbide* edo *desoreka* bezalakoak?
- IN- aurrizkiaz kultura-hitzak egituratu dira, mailegu osoak, nolabait: *inkomunikazioa*, *independentzia*, *injustua* eta beste edozenbat hitz.
- ANTI- aurrizkiaz, beste hainbeste: medikuntza munduko *antibiotikoak* eta *antidotoak*, edo eguraldi arloko *antizikloiak*. Mailegu osoak gehienak, baina nahastekoak beste batzuk: *antisorgailu* edo *antieuskaldun* bezalako hibridoak.

- EXTRA- kanpotiko izaeran oinarrituak dira: *estraofiziala*, *estradizioa* edota hizkuntza arloan, *estralinguistikoa*.
- POST- aurrizkiaz eraikiak mailegu osoak dira ia beti: *postmoderno* hitza-ren kasua.
- PRE- aurrizkiak ez du horrenbesteko arrakastarik izan. Baditugu hitz gardenagoak euskaraz, hala nola *aurre* eta *aitzin*, egiteko hori ondo bete dutenak. *Aintzinsolasa* diotena Iparraldean, *bitzaurrea* dugu Hegoaldean. Eta bide beretik eraikiak dira: *aurrikuspen*, *aurriritzi*, *aurrekontu* edo *aurrelan* bezalakoak.
- Eta hiztun arrunten artean eragin sozial handiena duten aurrizkiak adierazkortasuna markatzeko erabili ohi direnak ditugu: MEGA-, HIPER-, SUPER- eta halakoak. **Superondo pasatu genuen!*, moduko esaldi desitxurosoak entzuten zaizkie gure gazteei... *Ondo ere ondo, ondo baino hobeto, ederki, ederto (baten), ezin hobeto* gisako esapide naturalak gurago ditut.

2020-05-04

[13]

Kogobernantza eta aldebakartasuna

—Politika-eremuaz ari garela, aho-mihinean darabiltzagun hitzak ditugu: *gobernantza* eta *kogobernantza*.

—Hitz bi horiek, gaztelaniaz ez ezik, euskaraz ere gero eta gehiago entzuten dira, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n oraindino sarrerarik eduki ez arren. Baina *gobernantza* ondo agerian dakusagu, definizio eta adibide eta guzti. Eta, bidea egin ondoren, helduko zaio, bai, txanda.

Nolanahi ere, hitz berria dugu hau, eta beste hizkuntza nagusietan ere bai. Ingelesezt «governance» eta «co-governance», alemanez berdin; frantsesezt «gouvernance» eta «co-gouvernance», eta gaztelaniaz ere «gobernanza», eta are berriagoa «cogobernanza».

Gobernantza delakoa gobernatze egokia, eraginkorra eta norabide zuzeneko adierazteko garatu den hitza da, *gobernu* hitzaren esanahi orokorragoa espezifikatu beharrez. Politikariek liluraz eta debozioz erakarri eta bultzatu duten hots handiko hitza.

Kogobernantza, munduko gobernu multipolar honetan elkar-aditzea eta elkarrekin gobernubidea adostea adierazteko fundaturiko hitza.

CO- aurrizkia latineko «cum» preposiziotik eratorria da: beste bat edo batzuekin batera edo kidetasunean adierazteko. Alemanak ere MIT- aurrizkia balio beretsuaz («mitteilen», komunikatu), baina beste hizkuntzotan CO- aurrizki latinoari eskua ezarri zaio.

Euskaraz aukera bi ditugu.

Bata, europar hizkuntza nagusien bideari jarraitzea: CO- aurrizkiaz (marratxoaz hizkuntza nagusietan, ez gaztelaniaz), hau da, *kogobernantza*. Mailegua osorik geuregandu.

Bigarrena, *garbiagoa* nolabait esateko, atze-osagai gisa *kide* hitzera jotzea. Baina kasu honetan zailtasuntxoak sortzen dizkigu horrek. Gaztelaniaz esaten diren «cogobierno» eta «cogobernar» adierazteko egokiak izan daitezke: *gubernukide* eta *gubernukidetza*, erraz ulertzen baitira euskaraz. Baina aditza garatzeko arazoa sortzen zaigu: **gubernukidetu* nekez esango genuke; egoskorregia. Perifrasi bidez gozoago genuke: *gubernukidetzan agindu* edo *gubernukidetzan jardun*.

Gobernantza izen generikoa *kide* atalaz uztartzea zailago da; hitz astunegia sortuko genuke. Beraz, *kogobernantza* erabili nahi ez izateko kasuan, *kogobernatzea* aditzizena dugu hor, eta beharbada hobeto, *gobernukidetza* proposa daiteke.

—Bestetik, *aldebakartasuna* entzuten da «unilateralidad» esateko.

—Hiztegietan ageri den aukera ezagunena hori dela dirudi: *aldebakar*, «unilateral» esateko, eta *aldebakartasun*, «unilateralismo» esateko. Hitz aukera zuzenak dira, eta berez kontzeptua ia beti ondoen adierazten dutenak.

Agindua, erabakia, jarrera bat *bakar batek* hartzen duenean, alderdi, talde edo pertsona *bakar batek*, horretarako darabilgu gaztelaniaz «unilateral» adjektiboa sarri; *bakarrak* hartu erabakiak, besteen iritziari jaramonik egin gabe.

Baina bada beste aukera bat ere, neutroagoa agian. *Alde bi* edo *gebiago* daudenean, *alde batekoak* eta *bestekoak* izaten dira, edo *beste batzuetakoak*. Eta «unilateral» adierazteko modu leunagoa izan daiteke, agintari batek *alde bateko erabaki edo jarrera hartu duela esatea*, beste aldeak edo aldeetakoei ez entzun eginda; eta horren hitz abstraktua kasu horretan, *aldebatekotasuna* litzateke. «Unilateralidad» adierazteko hitz zuzena eta gardena deritzat; luzexegia beharbada.

Erabaki bezate erabiltzaileek, zein gogokoago duten.

2020-05-II

[14]

«Colindante»

—*Mugakide* diren herrietara joatea zilegi da Euskal Autonomia Erkidegoan, epidemiaren arintze aldi honen lehen fasean, baina ez urrunago. Herri bat beste herri baten *mugakide* dela esateko, zer hitz darabilgu, horrezaz gainera?

—*Mugakide* hitz arautuak badu aldaera polit bat, gaur bazter laga dena: *mugaide*. Atzeko -IDE osagaiak atzizki legez iraun du euskaraz, hitz bakun modura *kide* sendotu delarik. Baina *ide*, *ideko* eta *ide bateko* hitz egiturek era bakunean iraun dute hizkera batzuetan, aldi zaharretan ez ezik: «Hire *ideaz* ezkon hadi, ta haxa ondo beti. ‘Casa con tu igual, y serás siempre bien’» (*Refranes y Sentencias*, 240).

Aditz trinko bi ere bana-banakoak ditugu, aldameneko hori izendatzeko: *dautsan* eta *datxe-kan*. Gurearen mugakide den herria, *bari dautsan* edo *datxe-kan herria* dela esan dezakegu.

Herri batek *mugakide* duen alboko herria *alboerria* dela esan ohi da hizkera batzuetan, eta bat baino gehiago direnean herriok, *alboerriak*. *Alberri* aldaera ere ezaguna du hitz horrek; eta erdialdeko hizkeretan *auzoerria* ere bai.

Gaur egungo belaunaldietako jende askok hitz elkartuok ahaztu samar ditu, eta -KO genitiboaz erabiltzen ditu: *alboko herriak* batzuek, *aldameneko herriak* beste batzuek, eta beste gehiago holakoak.

Herri edo hiri baten inguruko lurraldea izendatzeko, herririk espezifikatu barik, *ingurua* edo *inguruak* darabilgu sarri. Gure klasikoetan sarri irakurten dugu, bestalde, gaur nekez entzuten den beste hitz bat: *aldeerak* edo *aldeerakoak*. *Aldamenak* ere bai beste leku batzuetan. Hitzok pluralez sarriago erabili ohi dira: *inguruetan*, *aldeeretan*, *aldamenetan*.

2020-05-II

[15]

«Tracking» ingelesez, «trazabilidad» gaztelaniaz; eta euskaraz?

—Susmagarriak izan litezkeen COVID-19 kasuen jarraipena egiteari, euskaraz nola esan da-
kioke? *Tracking* ingelesez deritza, *trazabilidad* gaztelaniaz, eta euskaraz?

—«*Track*», ingelesez ‘aztarna’, ‘oinatza’ edo ‘arrastoa’ esanahia duen hitza. Eta «*trac-
king*» izen eratorria, dena delakoaren arrastoari jarraitzea. Bada eratorri
konplexuago bat ere, «*traceability*», gaztelaniazko «*trazabilidad*», sarritan
janarien segurtasun gorabeheran erabilia: une bakoitzean zein egoera-bal-
dintzatan dagoen jeneroa, eta horren garraio edo harantz-honanzko igaro-
tzean une bakoitzean non dagoen zehatz jakiteko.

Pandemiaren transmisioa dela-eta indarberritu den hitza dugu, birusaren
transmisio-igarobideak finkatzeko. Horrexetan izan bide dute arrakasta He-
go Koreak, Alemaniak eta beste herrialde batzuek. Ez Europa hegoaldeak,
Portugal salbu.

Transmisio-katea hitz gardena, ulargarria da. Zuzena.

Track horren euskal ordain ezberdinak ointzat hartuta, *zeri jarraiki*, *zeri jarrai-
tu* galde eginez gero, aukeran dira: *aztarnari*, *urratsari*, *zantzuari*. . . Nik *arrastoari*
jarraitu lokuzioa joko nuke egokitza, birusaren eta *birus-transmisioaren* kontuan.

Baina beti gogoan har dezagun, *jarraitu* (edo *jarraiki*) aditzak *zeri* edo *nori* ar-
gumentua eskatzen duela; berdin dio *transmisio-kateari*, *arrastoari* zein *zantzuari ja-
rraitu*. Zuzena genuke *zertatik jarraitu* egitura ere: *arrastotik jarraitu* *birus-transmisioari*.

—Sanchez presidentea, alarma-egoeraren beste *luzapen* bat, hilabetekoa, eskatzekoa da
Kongresoan. Hau da, alarmaren *epea luzatzea*.

—Bai. *Luzapena* hitz egokia, edo nahi izanez gero, *luzatzea*.

Atzerapen hitzaz ere balia gaitzek. Orain arte hamabosteroko *atzerapena* es-
katu izan da, eta orain hurrengo *bil oso baterako atzerapena* edo *luzapena*. Alemanek
esan ohi duten bezala: «*Verschiebung*». Edo ingelesez, «*postponement*».

Aspaldion guztiok gabiltza -MENDU atzizkiaren soinuan dantzan: *konfi-
namendu*, *deskonfinamendu*. . . Pentsatzen nago, horrelako izen eratorriak erai-
kitzeko sarritan -TZE atzizkiaz nahikoa ez ote genukeen: *konfinatze* eta *des-
konfinatze* hitzen ereduarekin, alegia.

[16]

Zesioa eta transmisibilitatea

—Sanchezen gobernuak, alarma-egoera luzatzeko, Kongresoan gehiengoa izateko, batari eta besteari hainbat *kontzesio* egin behar izan die. Gaztelaniaz «cesión» esaten denean, guk *amore eman* erabili izan dugu. Baina badira hori esateko beste era batzuk ere, ezta?

—Batari eta besteari *amore-emateak* egin edo *hainbat amore-emate* egin guztiz aiututzat daukat; adierazkortasun handiko esapidea eta esangura berekoa.

Mailegu zuzena, *zesioa* egin, bitxi eta bakan gertatzen da kasu honetan. Zertara jo? Hiztegi batzuek *laga* aditzari onura atera diote; jo dute, *lagapen* edo *lagatze* eratorriak bultzatuz. Badira *utzi* eta *eman* aditzetara jo dutenak ere. *Utzi* aditzari tenk eginez, *utzi*era proposatu izan da esanahi horrentzat. Are bitxiagoa da *uzkunde* izena, [*utz(i)* + -KUNDE] egituraduna —Harrietek bere gramatika-hiztegian (1841) dakar—. Hitz erakargarria eta erabilgarria, nahiz gaur ez gauden ohituegi horrelako hitz batera.

Badugu beste aukera bat, pixka bat behartuta bada ere: *hobendu* aditzari adiera hau onartzea. *Hoben egitea* da, pisuaren astunez okertzea edo makurtzea. *Hobendu* aditzak, tradizio idatzian ez baina, hizkera batzuetan badu «cesión» horren balio hurbilekoa. Hortxe aukeran hori ere.

—Erdal hedabideetan irakurri dugu, *maskarak* edo *musukoak* eraginkorrak direla covid-19aren *transmisibilitatea* eragozteko. «Transmisibilidad», gaztelaniaz. Euskararako ere balio al du?

—Hitz luzeegia, eta ahoskatzeko korapilatsu samarra, nonbaiten ere, maileguzko hitz hori. Euskaraz normal darabiltzagu *transmisioa* eta *transmititu*. Baina beste luze horren ordeztu hobe genuke beste erazko edo eskertsuago bat bilatu.

Hona hemen bururatu zaizkidan aukera batzuk:

- *Iragan* aditza ointzat hartuta, *iragankortasuna* izan daiteke bat. Edo hitz-elkarketa eginez: *iragate-indarra* edo *iragate-abalmena*.
- Maileguaz baliatuko bagina, *transmisio-abalmena* edo *transmisio-indarra*.
- Eta azkenez, ohituago gauden *kutsapen*, *kutsatze* izenetara joko bagenu, *kutsapen-abalmena* edo *kutsatze-indarra* hauta genitzake.

—Behin honezkero, hiri nagusietan metroak eta gainerako garraioak jendez beteta ibiltzen ari dira, batez ere puntako orduetan. Eta erreguz eskatzen zaiguna da, *ezer ez ukitzea*, edo *ezeri ez ikutzea*...

—*Ukitu*, edo horren aldaera den sartalde eta erdialdeko *ikutu* aditzak, badu konplexutasun puntu bat erabileraren aldetik. Giltzetariko bat da, bigarren argumentuari zein kasu egotzi: *zer ukitu* ala *zeri ukitu*. Hiztuna zein hizkeratan mintzo den, batera edo bestera erabiliko du: sartaldean *zeri* edo *nori ikutu*, eta ekialderantz, *nor* edo *zer ukitu*.

Herri-kanta ezagun baten hitzak datozkit gogora: «Ttu-kurrukuttu-kuttuku, ez *neri ikutu*. / Aita ganbaran da-ta, sentiduko gaitu». Baina ekialdeko joera bestetarikoa da, ostera: «Ez nazazu *ukitu*, faborez!».

Bide batez gogora dezagun, *ukitu* | *ikutu* berba, jatorriz eta erabilera nagusia aditzarena badu ere, izen modura ere oparo erabilia dela; ahoz edo hitzez gehiago, idatziz baino. Ez al da ohikoa norbait esaten entzutea: «Kontuz mehatxuekin. Niri *ikuturik* ere ez egin, gero!»? Edo: «*Ikutu* bat egiten badidazu, ondo damutuko zaizu»?

2020-05-25

[17]

«Ingreso Mínimo Vital» edo «Renta Mínima Vital»

- Euskal Autonomia Erkidegoak eta Nafarroako Gobernuak eskumenak izango dituzte, Espainiako Gobernuak erabaki berria duen «Ingreso Mínimo Vital» edo «Renta Mínima Vital» delakoa kudeatzeko. Euskaraz nola esan hori?
- Bizitzeko Gutxieneko Errenta* da gehien entzuten nabilena. Hedabide batzuetan *Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera* ere bai. Zuzentzat ditut bata zein bestea.
Xehetasun txiki bat egin gura dut, hala ere. Gaztelaniaz «renta» finkatu dela-eta, euskaraz behartuak al gaude testuinguru horretan ere, maileguz aspaldi geuretua dugun *errenta* hitza erabiltzera? Ez zaigu egokiena iruditzen, *errenta* hitzak badituelako beste esangura batzuk, askoz ezagunagoak.
Gaztelaniaz ere «ingreso» finkatu da. Ingelesezt «income» diote; frantsesez ere «revenus», pluralez gehienetan. Eta alemanez ere antzera: «Einkommen», pluralez.
Euskaldunok ere badugu hitz bat, sakon sustraitua eta zabal erabilia, esangura honetarako: *etorria*, singularrez. Ezezka ohi darabilgu maiz: «Etxean *etorritik* ez, eta larre motzean hazitakoak dituk». Baina baiezkara ere bai: «Hileroko *etorritxo*a daukana hobeto dago, noizean behingo etorri urriekin larri dabilena baino».
Aipatu den *errenta* baino hobeto, nire ustezt, *diru-sarrera* ere. Eta are hobeto oraindik: *etorria*. Aukeran dugu hirugarren hau ere, beraz: *Bizitzeko Gutxieneko Etorria*.
- Irakaskuntza maila guztietan eskolak amaitzen doaz pixkanaka. Baina hurrengo ikasturteari begira ere izango du itzala izurri honek. Eztabaida hortxe dago, eskolak nola eman eta hartu behar diren: *presentzialak*, *ez-presentzialak*, erdiz erdi? Nola esan behar ditugu hitzok euskaraz?
- Alemanaren ildotik joko nuke. Alemanian ere eztabaida bizi-bizi dago, hiru aukeren artean zeini heldu. «Präsenzunterricht», aurrezt aurreko irakaskuntza. «Fernunterricht», *urruneko* irakaskuntza —*urrutiko* ere ederto esanda legoke—, edota biak txandakatuta: *aurrezt aurrekoa* eta *urrunekoa*.

Eskola-jarduna *presentziala* izango dela esan daiteke, mailegua bere horretan harturik. Hiztegi batzuek *zuzenekoa* ematen dute aukeran: *zuzeneko irakaskuntza*. Hau ere zuzentzat daukat. Hala ere nahiago nuke: *aurrez aurreko irakaskuntza*. Edo Iparraldeko lokuzioa hobetsi nahi izanez gero: *aitzinez aitzineko irakaskuntza*.

Gaztelaniaz aspaldi finkatua da «a distancia», unibertsitate irakaskuntzak batik bat. Baina euskaraz ez nuke bultzatuko **distantziako irakaskuntza*, ez antzekorik. *Ez-presentziala* ere ez zait, bada, erakargarri egiten. Nahiago nuke *urruneko irakaskuntza* edota *urrutiko irakaskuntza* erabili.

Egia esan, aukeran dugu ingelesezko *online* ere, euskaraz ere barruraino sartua: *online irakaskuntza*. Mailegu bat hartzekotan, berau dugu hedatuena.

2020-06-01

[18]

Arnastu?

—AEBko polizia batek itota hil den George Floyd mutil gazte beltzak, hil aurretxoan esan ziotuen azken hitzak biral bihurtu dira. Euskaraz honela itzuli izan dira haren hitzak hedabideren batean: «*Ezin dut arnastu!*».

—*Arnastu* edo *arnasatu* aditza, bai, erabilia izan da. Idatziz erabili izan dela batez ere, esan daiteke, ez berbaz edo hitzez. Euskaltzaindiak EHn jasorik dakar *arnastu* itxurapean, aldi modernoan garatu duen erabileraz ondo ohartuta. Aditz bakun eratorria beti ohi da samurragoa jarduera edo ekintza funtsezkoa, eta inguru-hizkuntzetan ondo finkatua, den batentzat.

Toribio Etxebarria eibartarrak aspaldi utzi zigun idatzirik herri-berbetatik jasoriko esaldi hau: «*Arnastutzen* dogun aizia be, Jaunari zor deutsagu». Ahotik sartzen dugun haizea, esan nahi da. Orixe idazle eta maisu handiak ere honela itzuli zuen pasarte bat San Agustinen *Aitorkizunak* obran: «Ats egin duzu ta *arnas artu* dut, Zu zaitut *arnasten*». Latinez: «Anhelo tibi». Baita Kirikiño idazle herrizaleak berak ere: «Ipar-haizetxu bigun hozkirria *arnasatuten* izan dodala» (*Abarrak I*). Edo Munita idazle finak: «[Londres eta Parisko biztanleak] zikin gabeko haize garbia *arnastu* dezaten» (*Mendi ta oianak*).

Baina hiztunon berezko joera beste ardatz batekoa dela esan daiteke. *Arnastu* aditzera barik, *arnasa hartu* lokuziora jotzen dute mila bider gehiago erdi eta sartaldeko hiztunek, eta *batsa hartu* lokuziora ekialdekoek, nafar eta ipar. Idatzizko tradizioak ere argiro on egiten duen aditz-lokuzioon nagusitasuna.

Negar eragiterainoko itolarrian zauden egoeraren inguruan, *arnasarik hartu ezinik* zaude, eta oihukatzen duzuna da: «*Ezin dut arnasarik hartu!*».

Hats hartu lokuzioa, gaur sarriago *-a* mugatzaileaz *batsa hartu*, erabilia eta nagusi da ekialdeko hizkeretan. Hona hemen, EHHA dialektologia atlasak Bidarrain jasotako adibidea: «Nere etxeko zorrak pagatu ditut eta orain *batsa hartzen* dut».

Arnasarik hartu ezinik nagoela diogun moduan, *bats egin ezinik* edo *bats(a) hartu ezinik* nago ere esan dezakegu. *Hats(a) eman* lokuzioa ere ezaguna da. Nolanahi ere, euskara zabalean, *bats* izena hitz elkartu barruan bizi da gehiago: *atsegin*, *atseden*, *kirats*. . . Baina hauek ez darabiltzagu *arnasa hartu* jarduera orokorraren adieraz.

Arnastu aditza berri samarra dugu euskaran, eta erdal hizkuntzetan ditugun «respirar, respirer, breathe, atmen» aditzei hitz bakarreko ordaina emateko, hitz bakarreko aditza, garatu da hizkera landuan ordain egin-egina izan dadin. *Negar egin* lokuzioaren ondoan ez da **negartu* sortu, baina *arnasa hartu* lokuzioaren ondoan bai *arnastu*. Gure ustez, hiztegietatik eta idatzizko eredu batzuetatik, euskal hitzunen ezpainetatik baino gehiago. Berezean mintzo diren hitzunen artean ez du oihartzun handirik. Halako *naturaltasun* puntutxo falta du.

Mezuaren ildoak zer argumentua eskatzen duenean (*haize garbia, haize kiras-tua, kea...*), behar-beharrezko testuinguruetan beraz, aditz eratorrira jotzea ondo dago. Baina horren beharrik ez denean, *arnasa hartu* multzoa gomendatuko dugu, euskaran lokuziorik errotuena eta hedatuena.

Bestetik, esangura desberdinak biltzen ditu *arnasa hartu* lokuzio honek. Ez bakarrik *haize ona* edo *haize freskoa hartzen* dugula esateko. Baita *lasaitu* edo *trankildu* esateko ere: «Zu berriro aurrean ikustean *arnasa hartu* dut; gauza txarren bat pasatu ote zaizun beldurretan nengoen».

Gizakiok, eta bizidunok, *arnasa* hitzaren esanahia hil edo bizikoa dugu. Horrexegatik, beharbada, ari luzea bildu da hitz horren matazan. Bat edo beste gogora ditzagun:

- *Arnasa, hartu* aditzaz ez ezik, *atera* edo *bota* aditzekin ere uztartzen da: *arnasa atera, arnasa bota*. Pedro Antonio Añibarro idazle klasikoak idatzi zuen bezala: «Entzun gura izan zenduan ixi-ixilik, *arnasea atera* bagarik» (*Eskuliburua*, 1821).

- *Arnasa bete* egiten zaigula esan ohi da, neke-neke eginda gaudenean. Edota *arnasa berotuta* ailegatu garela etxera.

- *Arnasa estutzen* zaionean korrika doan bati, helmugara *arnasestuka* edo *arnasoska* heldu dela esaten dugu.

- *Arnasa arbindu* egin zaigula diogu, larritzen edo estutzen garenean.

- *Arnasa nekez hartzen* duenaz esan ohi da, *arnasa bakandu* edo *baretu* zaio-la. Lizardik idatzi zuen bezala: «Begiak itxi zaizkit, / burutzar hau motel-du... / *arnasa bakandu*...».

Gero, nolako *arnasa* moduarengatik galdetzen badugu, izan daiteke:

- *Arnasa arbina* (edo *armina*) duela norbaitek esateko, beste batzuek *arnasestua*, edota *arnasbeharra* duela esaten dute; gaztelaniaz «sofoco» edo ito-beharra duenagatik.

- Hau ere esan dezakegu: pandemia zoritxarreko hau dela gure gizartean giza-talde asko *arnasa-esturik* egon direla, biziko, ez biziko. Eta leuntze- edo arintze-fasean sartu garenean, gizartea *arnasberritzen* hasi dela.
- Alitosia duenagatik esan ohi da, *arnasa txarra* daukala ahotik, edo *arnasatsa* duela.
- *Arnasa batean* lokuzioa erabili ohi da ‘*kolpera, takada batean, basi eta amaitu*’ adierazteko. Eusebio Maria Azkue poetak, erdara-euskaran ondutako kopia batzuetan idatzi zuen bezala: «“Las mozas de Bermeo” / arraina danean / “beben medio chiquito” / *arnasa batean*».
- Eta amaitzeko haxe: hiltzorian ohean datzana, *arnasa larriaz* dagoenagatik esan ohi da, *azken arnasetan* dagoela. Eta norbait hil denean, ordea, ea nola izan den galdetzen duenari, erantzun dakioke: *arnasa gastatuta* hil dela; edota, *arnasa abitu zaiolako* hil dela.

2020-06-08

[19]

«Estado de alerta»

—Nola euskaraz eman esapide hori? *Alerta-egoera*, edo?

—Gaztelaniaz, «alerta» harridura edo oihu-hitz modura entzun ohi da sarri, «¡alerta!», edo lokuzio barruan: «estar alerta».

Euskaraz ere kostako herri batzuetan bizi den hitza dugu. Nik Ondarroan ikasi nuen *ailarte* [*aillarte*] hitza, adberbio gisa. Izan ere, kosta-herrietan, Bizkai-Gipuzkoetan, halaxe esaten da: *ailert egon*, *ailarte egon*. Indar handiko hitzak, nonbaiten ere.

Dei-hitz edo aditz-lokuzio modura zabalago dabilta, behar bada, beste batzuk: *adi!*, *erne!*, *ernai!*, *kontu!* edo *kontuz!*, *zubur!*... Edo biak batera: *Adi eta zubur!* Eta Iparraldean: *atzarri!* edo *atzar!*, *kasu!*, edo *goait!*, Lapurdi aldean.

Baina izen-kategoriaz darabilgunean, *alerta* dugu era arautua. Gaztelaniazko «estado de alerta» horren euskal ordaina, *alerta-egoera*, beraz. *Adi* edo *erne* ordain egokiak izan daitezke, baina adberbio modura. Edo bakarrean, dei-hitz modura erabilita, edo *egon* aditzaz lagundurik: *Gauden ernai*. *Egon adi!* Baina ez da bideragarri **adi egoera*, eta *erne egoera* ere, bidezko izanagatik ere, ez genuke bultzatuko.

Zerrendako guztiok, adierazkortasun indarra emateko, sinonimo gisa erabil daitezke guztiak, bata zein beste.

2020-06-15

[20]

«¡Toco madera!»

—Nola esan hori euskaraz?

—Irudizko lokuzioa da, *zura* edo *egurra* *ukitzea* ziurtasun edo babes iruditzen hartuta. Adu txarreko zerbait, patu txarren bat gerta ez dadin, erritu-formula gisa gaztelaniaz zabal dabilena. Baina beste hizkuntza askotan ere bai. *Zura*, *zur* sendo gogorra, lagungarri eta babes izan dugu gizakiok mendez mende. *Zura ukitzea*, norbere babeserako egin den erritu modukoa da.

Horretatik finkatu bide da lokuzioa. Ingelesezt, berbera: «touch the wood». Frantsesezt: «toucher du bois». Alemanez: «drei mal auf Holz werden».

Euskaraz ez ditugu geureak, ez *zura* *ukitu* —ez *zurari* *ikutu*—, halako beldurgarri baten aurrean edo kaltegina den norbait uxarazteko. Egia esanda, ordain askorik ere ez dugu, hori adierazteko hari-harira datorrenik. Zein proposatu?

Erljio-girokoak dira nagusi; hala dirudi behintzat.

- Bat, *aitaren egin* | *aitearen egin* esapidea: *Egin aitaren, badaezpada! Aitaren egingo dut!*

Labayru Fraseologi Hiztegiak dakarren adibidea: «“Cuando veo un gato negro, toco madera, por si acaso”: *Katu baltza ikusi ezkerre, aitearen egiten dot, badaezpada be*».

- Bigarren bat, *zeinatu* aditzaz ehoriko formula zahar bat: *zeinatu eta igara*, Garibaik jaso zuen eta Bergarako hiria aipu duen errefracuan ageri da: «Bergara, *zeinatu* eta *aigara*» (*Atsotitzak*, 34).

- Hirugarren eredu bat izan daiteke Jainkoa aipu duen hau: *Jainkoak aparta!* Edo gure artean sarri entzuten den eran: *Jainkoak libra gaitzala!* edo *Jainkoak guarda nazala!*

Eta badira beste egitura batzuk, finko edo eginak izan ez arren, erabilgarri diratekeenak: *Ez bedi gerta!* *Ez halakorik*, *Jainkoarren!*

Adu eta *patu* hitzek ere jokoa eskaintzen dute esparru semantiko horretan, edo hurbilean. *Adu txarra* izaten da gehienetan, baina *adu ona*, edo *patu ona* ere ezagunak dira. Eta egoera bati buruz dihardugunean, esan daiteke *adu txarrekoa*, *adu onekoa* izan daitekeen bezalaxe.

Bada erritu-formula gisa erabili izan den esaldi bat, Busturi aldean jaso duguna. Seintxo jaioberria, bateatugabea, gaixotzen zenean, osatu zedin esaten zena: «*Adu onerako* eta suberte *onerako!*».

[21]

Birusaren «cepa» berriak

—Koronabirusa mututzen ari da, eta hasiera hartako birus tipoen enborretik, «cepa» berriak, lehenengokoez bestelakoak erne dira. «Cepa» hitza mahasti eta mahatsondoan munduan ezaguna da, baina orain birus honen garapenak irudi hori beregandu du. Zein izan daiteke euskaraz horren ordain egokia?

—Gaztelaniazko «Cepa» berba, landare kontuan erabili ohi den terminoa da, batez ere mahatsaren, mahastiaren munduan. Baina bestelako arbola-landareetarako ere bai. Hori adierazteko hitz mordoa ditugu nekazari- edo laborari-langintzan erabili izan direnak.

Mahatsaren gorabeheran, bada ardo-kanta ezagun bat dioena: «*Mahatsaren orpotik* dator mama gozoa, mama gozoa, / edango neukela / beterik basua, klink! / beterik basua. // Nik zuri, zuk niri, / biok eginaz alkarri, / basua txit garbi / beharko dogu ipini» (LABAYRU FUNDAZIOAK Mungian jasoriko bertsioa).

Hori dugu «cepa» adierazteko dugun izenetariko bat. Mahatsaren gorabeheran maizago: *mahatsorpoa*, baina zentzu generikoan, *orpoa*, soilik.

Baina euskararen eremu osoan, zabalen dabilen hitza *ondoa* dugu, elkar-kuntza barruan: *mahatsondoa*. Halere, «cepa» kontzeptuarentzat badira beste hainbat izen, bakarrean ere bai, baina batez ere *mahats* izenarekiko elkar-kuntzan bizi direnak, kontzeptu berori adierazteko: *anduia*, *ostroa*, *erroa*, *erpea*, *zankoa* eta beste batzuk.

Zuberoako bazterrean *aibena* eta *aibenondoa* izenak dagozkio «cepa» delakoari. Gainerako euskaldunontzat, aldiz, *aibena* edo *mahats-aibena*, mahatsorpotik ernetzen diren adarrentzat darabilgu: *mahats-adarrak* edo *xirmenduak*.

Leizarragaren itzulpen-idatzietan, alabaina, *aibena* da «cepa» eta *xirmenduak* «sarmiento» ohi deritzana. Ebangelioko hitzak, haren esanean dira: «Ni naiz *aibena*, zuek *xirmenduak*». Baina Bibliaren geroko bertsioetan, beste izendapen batzuk nagusitu dira, ordea; honako hauek: «Ni naiz *mahatsondoa*, zuek *aibena*». Hizkuntzaren halabeharrezko eboluzioa.

Gipuzkoa alderdian *txarmentua* esan izan zaio «sarmiento» delako horri. Mogel idazlearen hitzetan: «*Mats-aien* edo *txarmentuak* ez ausiagatik, basaurde

zatarrak bezela, ausitzen ta galtzen dituzte panpanu edo morgotatxoak» (*Confesio ta Comunio*).

Arbolen eremura etorrira, arboletan, zuhaitzetan bada hitz interesgarri bat, *anduia*: lur barruan gelditzen den enbor ebakiaren atala, zeinetatik landare berriak ernetzen diren.

Pandemia-izurrien arlora bihurtuta, «cepa» berriak erne direla aditzera emateko, bai *anduia*, bai *orpoa*, izendapen egokiak izan daitezke.

2020-06-22

[22]

Txertatu

—Eta mahastietan bezala, COVID-19a ere *txertatu* egiten al da?

—*Txertatu* baino gehiago, *kutsatu* egiten dela esango nuke. Zeren *txertoa*, *mentua* | *mendua*, mesedegina ohi da berez. Arbola-ondoa, arbola-orpoa, ahalik ondoen eta nahi dugun fruituaren, kalitaterik onenekoen adarrekin *mentatzen* dugu, emankor eta gozoagoa izan dadin fruitua.

Pertsona gazteengatik ere esan ohi da, halakoa *mentu onekoa* dela; izaera onekoa, portakizun onekoa, pertsona-modu ona. Azken batean, gurasoengandik *mentu ona* jaso duela adierazten da irudi bidez. Zuberoako errefrau zahar batek dioten bezala: «Har hezak *aihen onetik* lantharea eta ama onetik emaztea».

Eritasunetara etorrira, *txertoa* edo *mentua* izan ohi da birusari aurka egiteko babesgarririk seguruenak. Pandemiaren arintze-fasean ere arriskurik handienekoak, gaztelaniaz esan ohi diren «broteak» ei dira. Eta kontzeptu horrentzat egokia deritzat *ernamuina* erabiltzeari. Haziak lurtean ereiten ditugunean eta lurraren azalean erretzen direnean landare-hasikinak, *ernamuinak* izan ohi dira. Mahatsondoen aihenak, fruitu-arbolen eta beste arbolen fruitu-hasikinak agerira datozenean ere, *ernamuinean* direla esan ohi da. COVID-19 izurri honetan bezala... Guztiz kontrolpean dagoela-eta lasaitzen garenean, hara non, jende-pilatze kontrolik gabeko baten erruz, *ernamuintzen* den usterik gutxien genuen lekuan.

2020-06-22

[23]

«Temporeros» eta «temporales»

—Nola bereizi euskaraz urtean aldi jakin batez baino lan egiten ez duten langileak edo beharginak. Gaztelaniaz «temporero» hitza erabiltzen dute batetik, baina «temporales» ere bada. Badirudi, bata eta bestea lan-mota ezberdinetarako edota baldintza desberdinetarako erabiliak direla.

—«*Temporero*» hitza, nagusiki, nekazaritza-munduko jardueretarako erabili izan da. Uzta-sasoari loturiko lanetarako batik bat: *mabatsa*, *marrubia*, *patata*, edo beste uzta-jeneroren baten biltze-jardueretarako. Baina ez dira erraz bereizten, zereginen edo lan-motaren arabera, izen bata edo bestea.

Aldi jakin baterako lanean diharduten nekazal langileak izendatzeko, gure hiztegieta ageri diren hitzak dira: *sasoikako*, *aldizkako*, *urtaroko* eta taxu horretakoak. *Urte sasoia* edo *urtaroa* ohi dugu lanaldiaren denbora erreferentzia. «*Sasoikako* egiten du lan, gaur hemen eta bihar han», dakar *Labayru Hiztegiak*.

Sartaldeko euskaraz bada beste hitz bat, lehenago nekazari gizartean asko erabilia eta entzuna zena: *alogereko*; hau da, *alogerean*, *alogeraren* truke, lan egiten zuena. Kontzeptua guztiz hurbila da: hitzezko akordua, lan-kontratu gabe, hainbeste egunez edo astez etxalde batean lan egiten zuena, harik eta hitzartutako lan hori amaitu arte. Horren ordaina gaztelaniaz «jornalero» dugu. Beste leku batzuetan, *alokari*, *jornalari* erako hitzekin izendatzen da, edota *soldatapeko*, *besalari* («bracero») bezalakoekin.

Nola izendatu euskaraz, gaztelaniaz «temporales» deritzaten horiek? Izen ezberdina erabiltzea hobe, beti ere. *Aldi* hitza datorkit gogora. Esan daiteke, edo *aldirakoak*, edo *aldi baterakoak*. Hau da: *aldi baterako langileak*, *aldi baterako kontratupekoak*; eta *aldi baterako lana*.

2020-06-29

[24]

Deitu ala konbokatu?

—*Deitu* aditzak, lehen ez zeukan adiera baterako indarra hartu du gaur egun: manifestazioak, agerraldiak, grebak... *deitu* egiten dira gaur egun. Hala entzuten dugu hedabideetan, behinik behin.

—*Deitu*, *dei* egin, *hots* egin bezalako aditzak ohikoak dira erdaratiko *konbokatu* adieraren ordain gisa. Baina *deitu* aditzaren inguruko izenak zein eratara darabiltzagun, hor dago iltzea. Greba bat deitzen duzu, greba batera deitzen duzu ala greba baterako deia egiten duzu? Berdin: bilera bat deitzen duzu, bilera batera deitzen duzu ala bilera baterako deia egiten duzu?

Deitu aditza, Hegoaldeko gehienok ia beti darabilgu *norbaiti deitu* ingurunean, eta Ipar eta ekialdean *norbait deitu* ingurunean, baina ez darabilgu batean ez bestean **zer deitu* testuinguruan.

Aukeran bideragarriago begitantzen zait *zertara* edo *zer egitera deitu*, edota *zertara* edo *zer egitera dei* egin. Balio du halaber *hots egin* aditz-multzoak horretarako.

Zer deitu, bilera zein errosarioa den *deitzen dena*, belarrietan ez zaigu gozo egiten... Horregatik, estiloaren aldetik estimatzekoak dira *zertara dei* egin edo *zerbaitetarako deia* egin ereduko aditz-multzoak.

2020-06-29

[25]

«Zu eta ni, maskara beti» eslogana

—Halako zalaparta edo jolas antzeko umore-berriketa polita haizeratu zen lehengo ostiralean EUSKADI IRRATIAN, *Zu eta ni, maskara beti* esloganaren inguruan: *Zuk eta nik* tokatzen dela hor, argudiatu dute entzule batzuek.

—Ez nioke aparteko garrantziarik emango auzi horri.

Labur-zurrean idazten diren eslogan, esaera, errefracu eta mezu adierazkorrek beti jotatzen dute elipsiaren baliabideaz; aditzarenaz, batez ere. Eta sarri jotatzen dute errima-puntuaren indarrarekin.

Esaldi bakar bezala josiko bagenitu hitzak, «Zuk eta nik maskara beti musuetan (jantzita) darabilgu» genuke, hots, espero daitekeena.

Baina esaldi bi ere pentsa daitezke azpian, nagusia eta mendekoa: «Zu eta ni, maskara beti musuetan (jantzita) dugula gabiltza». Bigarren aukera hau ere zuzena da.

Horregatik uste dut, entzuleontzat ez dela batere bortxazkoa eslogan horren egitura.

2020-06-29

[26]

Harat eta haratago

—*Harago* ala *haratago*? Gero eta gehiago erabiltzen dugu –baita irratian ere– *haratago* forma. Badakigu zuzena dela, baina egunerokoan *hara* erabiltzen duenak, erabiltzen al du gero *haratago*?

—Berez desberdinak dira *hara* eta *harat*, Iparraldeko erabileran behintzat, Hegoalderik gehienez *hara* eta *harantz* desberdinak diren moduan.

Piarres Lafitte gramatikari finak, esaldi biren bidez adierazi zuen bere *Grammaire basque* berdingabea bien arteko diferentzia. Hark zioen: «*banoa Pariserat*» esaten da, *hara* zoazenean bertan gelditzeko edo atzera etortzeko asmorik gabe. Eta aldiz, «*banoa Pariser*» diozunean, joan eta atzera etortzea da gogoan duzuna. Hala dela dirudi erabilerari ohartuta. Bada zuberotar kanta ezagun bat, dioena, «Xoriñua, *nurat* hua bi hegalez airian», beste bertsio batez: «–Ürzoa, *nurat* hua hegalez aidian, / aita-ama zaharrak eitzirik habian? / –Lümazütü nük eta axolik eztiat».

Beste batzuetan, aldiz, diferentzia ez da horren garbia. Iparraldeko kostakoa dugu «*Brodatzen ari nintzen*» hasten den balada tristea. Bertsio baten bi ahapaldiren hitzak: «*Broderia utzi eta / joaiten naiz amarengana, / eian utziren ninduien / itsaso bazterrerat, / itsaso bazterrerat eta / bersu heien entzuterat. // –Mariñela, mariñela, / zatoz beraz barnerat, / zatoz beraz barnerat eta / gurekin afariterat; / gurekin afariterat eta / aita-amen mintzatzerat*» (Aita Donostia).

Baina ez da ahaztu behar, indar berezia hartu duela -RAT marka horrek erakusleekin eta adberbio batzuekin. Esamolde egina dugu ekialdean: *harat-bonat*, Hegoaldean guk *hara-bona* darabilgun antzera. *Ez dago haratik ez bonatik* esan ohi da: ‘*ez dago aitzakiarik*’, ‘*hala da eta kito*’. *Ezin egin ez harat ez bonat*, esateko, ‘*zirkinik ere ezin egin*’, ‘*mugitu ere ezin*’.

Eta postposizio sintaxiaz irabazi du berebiziko indarra berariaz ekialdeko hizkeretan. Hala, esaten denean: *itsasoz harat joan ziren*, *itsasoaz haraindira*, beste aldera joan zirela adierazteko. Edo, *zuenganik haratago*, *zuengandik urrunago*, esateko.

—Batetik *harat* eta bestetik *haratago*.

—*Haratago* eta *harago*, gauza bera dira, berez. Esan nezake, kasu baterako: *Metro bira eseri behar gara. Jarri zaitetz zu harago eta ni honago*. Edo Iparraldeko erara: *Zu haratago eta ni hunatago*.

Kontua da, baina, adierazkortasun berezia hartu duela gaurko hizkera landuan *haratago* forma horrek, eta indarberritu egin dela ekialde-hizkeretako -RAT > -RATAGO atzizkia zenbait testuingurutan.

Adberbio modura eta bereziki postposizio modura indarberritu da, eta izen, adjektibo edo aditzizenekin bere betiko hizkera-eremuetan dirau: Iparraldean eta Nafarroako alderdi handi batean.

Haratago biziberritu da, ez bakarrik *urrunago* edo *aparteago* espazio-esangura ohikoan, baizik eta batez ere emendiozko juntadura balioaz. *Horrez gainera, horrez aparte* edo *horrezaz gehiago* erabili ordezt, *horretatik haratago* eta *horrez haratago* erabiliz. Esan beharrean: *Indarra ez ezik, gogoa ere eduki behar da*, esatea: *Indarraz haratago, gogoa ere eduki behar da*.

Begi onez ikusten dut txertakuntza hori gaur egungo euskarari; adierazkortasun aldetik *plus* bat eransten dio, eta freskotasun puntu bat eman gure euskara jaikiari.

Baina eredu horretako egitura finkoez kanpo, -RA marka nagusiaren azpi-marka edo aldaera modura iraun du -RAT (*norat*) adlatiboak, ekialdeko hizkera-tradizioaren lekuko bizi. Hala, Benito Lertxundik kantatzen dituen Xalbadorren bertso ederrotan: «Ene deia amodioaren / bidez zinuen entzun, / eta gero oinazen erdian / *mundurat* eman ninduzun; / biziaren grazia lehenik, / gero hoinbertze maitasun, / berant jakin dut, ama maitea, / zendako eman dautazun».

2020-07-06

[27]

«Rastreadores»

—Pandemiaren andui edo ernamuin berriak non erne diren, nora hedatu diren, zein kutsapen-arrisku eragiten duten bilatzeko, gaztelaniaz *rastrear* eta *rastreador* hitzak erabiltzen ari dira. Euskaraz ere, *arakatzaile* eta tankera horretakoak. Zer deritzozu zuk?

—Gaztelaniaz, hitz horien atzean, «rastros» izena dugu, frantsesez «piste», ingelesez «track» eta alemanez «Spur» ditugun antzera. Eta aditz eratorria, «rastrear», hitz berekin esaten dute, salbu alemanez: «aufspüren».

Euskaraz badugu hitz horren mailegua, *arrastoa*, hori bera adierazten duena, *lorratza*, *zantzua*, *aztarna*, *aztarrena* edo *oinatza* izen sinonimoak ditugun bezala. Aldaera ezagun bi ditu *arrasto* izenak: *arrastua*, eta sartaldean *errastua*.

Arrasto-hartzearen jardura adierazteko, *arrasto* izenetik joz gero, aukera bat baino gehiago dira. *Arrastotik jarraiki* Iparraldeko lokuzio zaharrari eskua ezarriz gero, esan daiteke: *arrastotik darraizkie andui edo ernamuin berriei*. Edo, gaurko erara, *birusaren ernamuin berriei jarraika* ari direla. Edo *bila*, *bilatu* hitzez baliaturik, *birus-arrastoak bilatzen* edo *birus-arrastoen bila*. Jo daiteke, Mogel klasikoak txit maite zuen *aztarren* [azterren] izenari bizi berria emanda: *aztarrenak ateratzen ibiltzea*.

Eta jardura, zeregin edo lanbide hori dutenei, sarritan urruntxotik —berdin dio gizakiak, piztiak edo abereak izan—, haien oinatz, lorratz edo aztarnen bidez, zer izen eman euskaraz? Horixe da dagokiguna.

Arakatu da gaurko hiztegietan gailen ageri den hitza, eta ildo horri atxikirik, *arakatzaile* deitzea birusaren aztarrenei segika dabilatzane, arrazoizkoa da. Hiztegi batzuetan, hala ere, *aztarnari*, *azterkari*, *miatzaile* tipoko izen erratorriak ematen dira ordaintzat, *aztarna*, *aztertu*, *miatu* eta beste aditz batzuen oinaz sortuak. Eta zaharragoetan *usmari*, *usmatzaile* bezalakoak ere bai.

Zergatik heldu ez, hiztun asko partila gaituen *arrasto* hitzari? Beroni tira eginez, proposamen bi egin daitezke euskal terminologiaren azokan, nork erosi balego:

- Bata, *arrasto-bartzaileak*, birusaren *arrastoa* hartzen dihardutenak izendatzeko. Konposatu-egitura hori duten, bigarren osagaitzat *bartzaile* duten hamaikatxo hitz elkartu desberdin dira: *kontu-bartzaile*, *puntu-bartzaile*, *sari-bartzaile*, *arrain-bartzaile*, *petxu-bartzaile* eta hainbat gehiago.

Piztietara bagatoz, kontu jakina da piztia batzuk *usain-bartzaile* askoz ho-beak direla gizakiok baino. *Usain-bartzaile* eta *arrasto-bartzaile* ia hitz bikiak dira esanahiaren aldetik. Daniel Boone aktoreak izan zuen 1950-60 inguruko filme-serieetan *arrasto-bartzaile* papera, Ipar Ameriketako basoetan artz eta beste basapiztien oinatzei jarraika.

Arrasto-bartzaile honen abantailak: hitz gardena eta erraz ulertzekoa dela, batetik; eta bestetik, ez gara hitz berririk sortzen ari, aski ezagunak baitira konposatuaren osagai biak.

- Bestea, *arrastolariak*, ia lanbide edo erdi-lanbide bihurtu den jarduera hori izentzeko; izan ere, -LARI atzizkia —edo honen aldaera diren -ARI edo -KETARI atzizki-erak— emankorra dugu eremu semantiko horretarako, jarduera, zeregin edo ofizioen eremurako, *segalaria*, *aizkolari*, *soinulari* edo *urreetari* bere aldian sortu diren bide berekoa. Kasu honetan hitz berria sortzen ari gara, hori ere egia da.

2020-07-27

[28]

«Negacionistas»

—Nola esan «negacionista» euskaraz?

—Hitz bi datozkit burura oin-hitz gisa: *ukatu* batetik eta *ezetza* bestetik.

«Negacionista» esaten zaienei, zein ordain-hitz eman euskaraz, mailegua bera bazter lagata?

«Negacionista» adjektiboak «negar» aditza du atzean, eta “negación” izen abstraktua hurrengo. Eta horretatik garatu da, jarrera horren aldekoiei «negacionista» deitzea, «falangista» «falange» izenetik behinola garatu zen hari beretik.

Euskaraz *ukatu* aditza dugu ordainik zuzenena, eta horren izen abstraktu ezagunenak, *ukoa*, *ukatzea*, *ukaera* eta *ukamena*. Guztia *ukatzen* duena, *uko egiten* duena, *ukatzaila* dela esan daiteke. Alabaina, esangura-eremu zabalagoa hartzen duela izen horrek esan daiteke, «negacionista» hitzak eremu murriztago eta espezifikoagoa duen bitartean.

Ukatu aditzaren ildoari jarraiki, «negacionista» adierazteko aukera bat izan daiteke *ukatiarra* garatzea, *ezkertiar*, *eskuindar* edo *erregetiar* diren eredura. *Ukazalea* ere esan daiteke bide beretik. Eta hirugarren bat ere bada, *ukatia*, ezeste usaineko indar puntua duena. Txikitan, eskolaume giroan erabiltzen genuen *ukati* adjektiboa, burlazar: arrisku, aupada eta borroken aurrean atzera jotzen duenari destainaz egozteko hitz magikoa zen, koldartzat hartzen zenari; ausarta ez zen edo atzea jo zalea zen mutikoari barre-burlaz egozten zitzaion mespretxu-adjektiboa. Baina Larramendik bere hiztegian ‘negativo’ adieraz jaso zuen bere hiztegi hirukoitzean, hau da, ezetzerakoa zen pertsona-modua izendatzeko.

Bigarren era bat gara daiteke, *ezetza* ointzat harturik. Badugu esapide ezagun bat euskaraz, hiltun askorentzat berezko eta naturala dena: *ezetzera dagoena* edo *ezetzera daudenak*. Perifrasi modura erabil daiteke. Baina hitz bakarrera ekarri nahi izanez gero, horretatik datozen aditz bi begiz joko genituzke, *ezetatu* eta *ezeztu*.

Ezetatu aditzak, *ezetz esatearen* aurretik, badu beste esanahi indartsuago bat, ‘desegin, birrindu, txikitu, ezereztu’ aditzera ematekoa. Beraz, bazter utz genezake.

Baina badu antz-antzeko sinonimo bat, *ezeztu*, bere laburrean abantailatxoa duena: adiera bakarra edukitzearena, *ezeztu esan*, beronen antonimoak *baieztu* eta *baieztatu esan* direla. Pedro Antonio Añibarro idazle klasikoaren pasarte batek dio: «Dana dala berbea, ezta izango juramentuzkoa, ezer *baieztu*, *ezeztu* edo *ukatuten* ezpada» (*Misionari euskalduna*). Bide hori urratuz, *ezeztu* daudenak, *ezeztukoak* izendatzeko, *ezeztatuak* hitza eraiki dezakegu.

Bata zein bestea proposa nitzake, beraz: *ukatatuak* batetik, *ezeztatuak* bestetik.

Eta aurrekoak gustuko ez balituzte idazle eta esatariek, pentsa daiteke *ezeztatuak*, *ezeztukoak* edo *ukatatuak* hitzei aukera ematean ere.

2020-09-09

[29]

Tuperkada?

—Joan den astean Errekabarri, Luis Elejalde, Toki Eder, Mariturri eta Abendaño eskoletako guraso eta ikasleek Jaurilaritzaren Lakuako egoitza aurrean protestaldia egin zuten. Tuper-rak, eraman zituzten...

—*Tuperra* hitza onartua du Euskaltzaindiak, baina onartu berri samarra —iaz-ko uztailean—. . . *Tuperra*, beraz, euskara bada, jada.

—Eta tuperretik jateari nola esaten zaio? Gaztelaniaz, «tuperrada» deitu zioten protestaldiari. Baina *tuper-jateak* ez liguke balioko guri..., *tuperra* bera jatea litzateke! *Tuperkada* hobeto, *eltzekada* bezala?

—Ez liguke balioko, ez *tuper-jate* hitzak, ez *tuper-jan* hitzak.

Jatea eta *jana*, hitz-elkarketa barruan, *zer jaten den* adierazteko erabiltzen ditugu oro har, edota *jate* jarduera bera adierazteko.

Jan izen kategoriaz hartzen badugu, *janen* artean badira *arkume-jana* edo *bildots-jana*, *baba-jana*, *gaztaina-jana* edota *haragi-jana*, eta hari horri tenka zenbat-gura jan-mota asma ditzakegu, nahi ditugun guztiak.

Jate hitza gutxitxoago darabilgu, baina berdintsu jokutzen du. *Jana*, jaten dugun hura adierazteko, eta *jate* hitza *jarduera bera* adierazteko. Ezagunak dira: *atun-jatea*, *maskulu-jatea*, *txerriki-jatea* edo *gibel-jate* bezalako jate kontuak.

Baina *tuper* hitzetik abiatuta ez daukagu ez *tuper-jaterik*, ez *tuper-janik*, plastikozko *tuperra* bera jatera ez bagoaz behintzat! *Tuper* barruan dagoena da jaten duguna edo jan beharrekoa. *Tuperra* ontzia da, eta barrukoa, edukia, janaria.

Ontzi-izenari, *tuperrari*, -KADA atzizkia erantsita, *tuperkada* sortzen zaigu, edota *bete* atzetik ipiniz gero, *tuper bete*. Baina bai bata eta bestea, *tuperkada* zein *tuper bete*, *tuper* ontziak hartzen duen barrua jatekoz *bete-bete* dagoela adierazteko dira. *Platerkada* edo *plater bete* diren antzera. Baina badiogu: *tuperkada bat jaten dute haurrek eskolan*, zenbat jan duten esaten ari gara, ez *zer* jan duten. Hauxe esatea bezala: *botilakada* edan dute, zein edateko zehaztu barik.

Tuperkada jatekoa badiogu, normalean behartuta gaude zeren *tuperkada* den espezifikatzera, zein janari-mota daramagun, alegia: *tuperkada babarruna*, *tuperkada porrusalda*, *tuperkada saibeskia* edo *tuperkada azolioa*.

Baina *tuper* barruan jenero bat baino gehiago izan ohi dira jateko: entsalada apur bat, urdaiazpikoa ogi bitartean, fruta... Jaten dugun edo jaten ditugun jeneroak *tuper barruan* badaramatzagu, *tuperrekoa* da jaten duguna. Hau da, *tuper* izenari -KO atzizkiaz erantsita.

Bide horretatik sortuak dira hainbeste jateko: *eltzekoa* edo *lapikokoa* batetik (*eltzea*, *lapikoa*), *marmitakoa* bestetik (*marmita*), *zartaginekoa* edo *koipetsua* (*zartagina*), *kazolakoa* (*kazola*), *tupinekoa* (*tupina*) eta gehiago. Eta edateko kontuan berdin: *botilakoa*, *pitxerrekoa*, *basokoa* edo *biberoikoa*.

Nire proposamena, beraz, eskolara *tuperkada* janariaz doazen hurrek eguerdian *tuperrekoa* jango dutela esatea da, era sinple eta soilean.

2020-09-29

[30]

Bertanbeheratu?

—EUSKADI IRRATiko profesionalon artean etxe barruko erregistroan darabilgun hitza dugu: *bertanbeheratu*. *Kantzelatu* erdal maileguaren ordain gisa erabiltzeko. Zer iritzi duzu horretaz?

—Ohartu naiz hiztegieta ez dela ageri. Baina hiztegieta ez azaltzeak ez du esan nahi erabili ezin denik. Begira zenbat hitz (izen, aditz, adjektibo) sortu diren pandemiaren zurrumbiloan, Europako hainbat hizkuntzatan —nagusietan berariaz—, ziurrik hiztegieta iritsi ez direnak, baina hitzun, irakasle, kazetari edo oro har erabiltzaileen artean hizkuntza-senak eraginda sortu izan direnak.

Hizkuntza moderno guztietan biziro azkar doa hitz-sorkuntza, eta bide beretik aditz sorkuntza ere. Anekdota gisa aipatuko dut, aurtengo uda hasieran multinazional bateko Madrilgo lagun bati deitu niola, alabak bertan praktikak egiteko modurik zegoenentz galdetzeko. Erantzuna, zail izango zela, jenderik gehientsuena «teletrabajando» zegoela eta. RAEk «teletrabajo» eta «teletrabajador» badakartza bere hiztegian, baina aditzik ez. Profesional horri barrutik berez irten zitzaion «están teletrabajando» aditza.

Sarri entzun dut Gernikaldean *dirutu* aditza, ‘aberastu, diruak egin’ adieraz: *Saldu daigun etxe hori eta dirutu, eta geu ondo bizi*. Beste leku askotan arrotz egiten da, norbait *dirutu* dela entzutea. Ea ausardia apur batekin, ezin al da esan *mezutu*, adibidez? Normal esaten dugu: *Goizean mezua bidali dizut*. Bide beretik, ez al dugu ahalbiderik botatzeko: *Goizean mezutu zaitut esaldia*? Aditz hori ez dago finkatua, baina erabiliaren puruz horretara hel daiteke. Hiztunak horretarako eskua badu, behintzat.

Bertan behera, pandemiaren zurrumbiloan indartu den lokuzio-hitz magiko horietakoa da: planak, egitasmoak, programa asko *bertan behera* geratu dira. Hitz bi dira berez, banan idatziak, baina hitzunon sentieran elkarkuntzan bilduak: *bertan* eta *behera*. Eurretari bakoitza bai badarabilgu aditza eratoritzeko. *Bertan* horretatik erakarriak dira *bertaratu* edo *bertakotu* aditzak. Eta *behera* hitzetik eratorria da *beheratu*, *behe* hitzetik *behetu* —edo *be(h)atu* zaharra—, eta *beheiti* hitzetik, *beheitutu*.

Bertan behera adberbio-lokuzioa da, eta horretatik eratorria da *bertanbeherako* adnominala. Zeozer *bertanbeherakoa ez dela* diogunean, leku batzuetan adierazten du ez dela nolanahikoa, ez dela edozelakoa'. Baina beste leku batzuetan, ez dela bat-batekoa, ez dela bat-batean jazo edo etorri.

Zein aditzekin darabilgu maizenik *bertan behera*? Batez ere *egon*, *utzi*, *geratu*, *gelditu*, *laga* eta halako aditz egoerazkoekin: norbait edo zerbait, *bertan behera dago*, *bertan behera utzi da* edo *bertan behera geratu da*. *Bertan behera*, ia beti egoerazko adberbioa dugu, *egon*, *utzi*, *geratu*, *gelditu*, *laga* aditzak diren bezala. Eta *bertanbeheratu* aditz eratorri gisa indartzen bada, 'kantzelatu' esanahiaz, dinamiko eta aktibo bihurtzen ari gara egoerazko ikuspegi hori. Euskaraz -TU, aditzak garatzeko errendimendu betean dagoen atzizkia dugu, -I eta -N zaharrak (*ikusI*, *edaN*) ez dauden bezala.

Eskubide osoz esan daiteke, beraz, kontzertu, kantaldi edo antzerki bat, aurrez erabakita zegoena, *bertanbeheratu* egin dela. Zilegi da eta edonork erraz uler dezake, araututa egon zein egon ez. Baina, indarra hartu artean behintzat, neurriz erabil dezagun; ez gehiegiz. «Larra txarra da», dio herri-esaera batek. Eta beste batek, «*denborak* erakutsiko du elurra mendian», esan gura da, *denborak* erakutsiko duela, hiztunek aditz berri horri abegi ona egiten dioten ala ez. Geldi dagoen ura, zingera bihurtzen da, eta ibili dabilen ura da edaten duguna. Hizkuntza kontuan ere, beste hainbeste.

2020-10-21

[31]

«Second gentleman»

—Nola eman euskaraz ingelesezko hitz finkatu ezagun hori?

—Ingelesez eho den eta batez ere finkatu den giza titulua dugu «second gentleman» delakoa, emakumearen kasuan «second lady» delakoaren aurrez aurre. Ameriketako Estatu Batuek lehenbizikoz izango dute goren agintean figura hori, «second gentleman» delakoa, Kamala Harris andere lehendakariordearen senarra, Meet Doug Emhoff jauna, aldi berean lehenengo judua kargu goren horretan, AEBko lehendakari edo lehendakariordeaz ezkonduko gizasemea.

Titulu-izen biok, «second gentleman» eta «second lady» eta «first gentleman» eta «first lady» titulu-izenen eredura sortu eta finkatu izan dira.

Euskaraz zein ordezkoko dute izen bi horiek? Era bi daude: edo sexu-diferentzia adierazita, edo generoa markatu gabe.

1) Gizonezkoarekin hasiko gara. *Gizon* hitza orokorregia eta xehea dugu, ingelesez «gentleman», aleman eta nederlandera «Herr» edo frantsesez «monsieur» izenek aditzera ematen duten goi-estatusa zehatz markatzeko.

Goren aginte-karguko emazteki baten senarraren titulutzat, ez dut egoki ikusten *gizon-lagun* tipoko hitzik, gazteentzat *mutil-lagun* edo *neska-lagun* sortu diren bidetik.

Ez eta latineko «domine(m)» hitzetik eratorria den *done* izen zaharra ere, erlijio esparrura mugatu izan delako, santutasun aireaz bereziki, *done Petri*, *done Paulo*, *done Estebe* edo *done Sebastia* bezalako izen zaharretan.

Esparru zibilean, gizaseme baten goi-maila ondo adieraz dezakeen izen bakarra *jauna* dugu. Gure tradizioan, lehenago sarri aurretik —*jaun baroia*, *jaun kontea*, *jaun diputatua*—, gaur egun atzetik gehiago —*diputatu jauna* edo *alkate jauna*— garatu diren bidetik.

Ildo horri garraizkiola erator daitezke *lehen jauna* eta *bigarren jauna*, «first gentleman» eta «second gentleman» ingelesezkoen ordainez. Baina onartzekoa litzateke ordena atzekoz aurrera dela ere: *lehen* eta *bigarren* ordena-zenbakia atzetik dela, errege, aitasantu eta beste goi-karguekin egiten den erara, eta esan: *jaun lehena* eta *jaun bigarrena*.

Berez, lege onean onartzen du euskarak zenbaki ordinalak izenaren ostean ipintzea ere. Batez ere izen bereziekin nagusitu da joera hori: *Felipe bostgarrena* edo *Frantzisko bigarrena* bezalakoetan. Izen arruntekin ere ezagunak dira *urri lehenengoa* eta *urri bigarrena* bezalako segidak.

Bigarren ordena hori hobestera joko bagenu, *jaun lehena* eta *jaun bigarrena* finkatuko lirateke, sintaxi lege zuzenean. Eta sintaxi bakan horrek lagun dezake goi-tituluaren beraren lilura ere hanpatzen.

2) Bide batez gehituko nuke, emazte- edo andre-lagun duenaren izenarentzat, *andere* gordetzea ere txarto ez legokeela, edo lehenengo ordenaz: *lehen anderea* eta *bigarren anderea*; edo bigarren ordenaz: *andere lehena* eta *andere bigarrena*. Jatorriz *andre* eta *andere* hitz bera diren arren, zenbait hizkeratan oraindik ere bien artean bereizkuntza semantikoa ere egin ohi da: *andrea* izen generiko modura, eta *anderea*, goi-estatusaren jabe dena.

Sexu-diferentzia bazter utzi nahi izanez gero, bada sartaldeko hizkeretan hitz egokia, goi-agintedunaren aldamenekoa izendatzeko: *albotikoa*. Bultza daiteke, beraz, *lehen albotikoa* eta *bigarren albotikoa*, edo itzulitako ordenaz, *albotiko lehena* eta *albotiko bigarrena*.

[32]

«Vacuna» eta «vacunología»

—Nondik datoz «vacuna» eta «vacunología» hitzak? Euskaraz nola eman?

—Inguru-hizkuntzetan «vaccine», «vaccin», «vaccino» dira hitz nagusiak, gaztelaniaz «vacuna» denarentzat. Guztien sustraian dago latineko «vaccinus» izena. Eta «vaccinus» horren etorkia behiari errapeko erroetatik darion materia edo zornea dugu, behiaren eritasun bat, «vaccinus».

«Vacunología» hitza *txertoen* edo *bakunen* inguruko zientzia edo jakintza izendatzeko garatu da. Frantsesez, «vaccinologie», eta europar hizkuntza nagusi gehienetan osagai greko-latindar biez osaturiko berau dugu: «vaccinus» latinekoa eta «logia, logos» greziera-izenetik garatu den atze-hitza, beste eratorikuntza askotan bezala, ezagutza-eremuren baten zientzia edo jakintza adierazten duena.

Alemanak ere ezaguna du «Vakzin» izena, baina hizkuntzak bere-bere dituen hitz-erroetatik garatu du, euskararen antzean, bere izendapen propioa, «Impfstoff», gaur nagusi dena: 'barrura isurtzeko gaia'.

Euskaraz *txerto* izena finkatu genuen XIX. mendearen azken aldian, Iparraldean, *xertoa* aldaerapean, *bakuna* izena euskal erroko batez izendatzeko. Gure Herrian aldizkariak zioen bezala: «Abiatua omen zuten aziendetan eritasun bat, izurritearen idurikoa, bainan bazen ere *xartu* bat, berriki ezagutua» (GH, 1921, 742).

Berez fruitu-arbolen kulturatik harturiko hitzak dira *txertoa* eta *txertatu*. Aldaera nagusia, Iparraldean esan ohi den *xertoa* dugu, forma zaharragoan *sertoa*, baina Gipuzkoako leku batzuetan *txertua* esaten zaiona.

«Sagarrondoai *xerto* ona eman diogu», jaso zuen Mariano Izetak Baztango hizkeratik. Eta Axularrek aspaldi beste hau utzi zigun idatzirik: «Bekhatutik sortzen eta heldu diren *xertoak*, landareak, fruituak eta ondoreak bairira» (Gero).

«Sertus» eta «sertare» > «sertatum» latin-hitzetan dute jatorria gure *txerto* eta *txertatu* hitzek ere: parte bi elkarlotu, birekin bat egin, nolabait esateko; gazt. 'entrelazar'. Hori da fruitu-arbolekin egiten dena: tronko edo enbor zaharrari, nahi diren fruitu-klaseen adar berriak ondo txertatu, arnasarik

hartzen utzi gabe, enborraren barruko ura hartu eta indarberritu daitezen, eta txertatu den motako fruituak, eder, handi eta gozoagoak eman ditzaten.

Eta txertorik hartzen ez duen arbolei nola deritze? *Txertakak* esaten zaie. Gaztainak, gereziak, sagarrak, udareak, okaranak... berez erne diren moduan gora datozenean eta *txertorik egiten* ez bazaie, *txertakak* dira. Bizkai partean *eztitzakak*, *eztitzen ez diren* fruitu-arbolak. COVID-19aren txertoa ipiniko ez dutenei ere hala deitu behar al zaie? *Txertakak* edo *eztitzakak* direla esango dugu...?

—Eta bide horretatik orduan, gaztelaniazko «vacunología» hitzari zer euskal ordain eman dakioke?

—Onar daiteke *txertologia*, alemanez «Impfstoffologie» garatu den bideari jarraiki. Hitz bideragarria, dudarik gabe. Niri ez zait erakargarri egiten, hala ere.

Izan ere, *txerto* izena bultzatu eta hobetsi dugun moduan eta *bakuna* baztertu, -LOGIA hori ere ez da ezinbestekoa jakintza-adar guztiei atxikitzeko. *Jakintza* ere finkatu daiteke, eta esan: *txerto-jakintza*, edo, nahi izanez gero, *txerto-zientzia*. Egitura hori baliatuz bultzatu zuten aspaldi Joxe Migel Barandiaran bezalako antropologoek *herri-jakintza* hitza ere, *etnografia* eta *folklore* bezalako izen jasoen euskal ordain gisa. Eta ildo horretatik garatu dira beste gehiago ere.

2020-12-02

[33]

Elurra *gatzatu* egin liteke?

—Neguarekin batera hotzak eta elurra ere hurbildu zaizkigu. Elurra dela-eta, artean gutxi entzuna zen esapide bat entzuten hasi gara: *elurra gatzatu*.

—*Gatzatu*, aditz bezala ez hainbeste, baina izen bezala, gastronomia-esparruan guztiz ezaguna dugu euskararen sartaldean: *gatzatua*, beste hitz batez *mamia* esaten zaionarentzat ondo ezaguna da, gazt. ‘cuajada’.

Baina morfologiaz eta etorkiz aditza dugu *gatzatu*. ‘Gatz egitea’ edo ‘gatz bihurtzea’ adiera du oinarrian; zehatzago esanda, *gatzagitu* du azpian, *gatzagi egin*.

Gatzatzea edo *mamitzea* berez ez da besterik, isurkari bat, normalean *esnea* edo *odola*, gogortzea baino, solido bihurtzea. Esnea *gatzagiaz* gogortzen da eta *gazta* bihurtzen. Odola ere, behin kanporatu edo haizeratuz gero, gogortu egiten da.

Amaren sabelean hazia gorputz egiten dela, kontzebitzen dela esateko ere erabili izan da *gatzatu* Iparraldeko tradizioan. Jesusen jaiotza-aingeruak Mariari honela iragarri zion, biblia-itzultzaile batzuen esanean: «Huna non zure sabelean *gatzatuko* den haur bat». Eta askoz oraintsuago, Koldo Mitxelena *gorputzu* adiera horrekin, baina *gorputz* hitz markatuagoa erabili orde, honela adierazi zuen: «Lurreko lohiez *gatzatuak* eta *mamituak* daude lurreko gauzak oro».

Elurra, berez bigun eta samur, mara-mara erortzen dena, behin lurrera ezker, gogortu egin dela esateko, badira beste hitz ezberdin batzuk. Gipuzkoa eta Nafarroako alderdi batzuetan esapide eder bat erabiltzen da: *lurra ezarri* dela esanez; gaztelaniaz, ‘cuajar’ esaten denerako.

Gatzatu aditzaren adieretariko bat, elurrari buruzkoa, hori bera da. Erronkari aldeko herri-hizkera zaharra aspaldixko galdua da. Baina ibar horretako herri batean, Uztarrotzen, halaxe bildu zuen Azkuek: «Bigarren abentia eluz geroz elurra obroena *gatzatan* da». *Bigarren abentia* urtearen azken hilari esan izan zaio, *leben abentia* azaroari deitzen zitzaion eremuan. *Elurra obroena gatzatan da*, elurra haboroen, gehien, orduantxe gogortzen omen da.

Hitz zahar hori egoki biziberriturik ikusi dut, irakurri dudanean, *elurra gatzatu* delakoa.

[34]

Gabonzahar eta Urteberri

- Urte zaharra* agortu zorian eta *Urte berriaren* jaiotzaren ateetan gaudela, berbotan artikulua erabili, ez erabili, zalantzak sortzen zaizkigu sarritan...
- Urte zaharrari sartalde zabalean *Gabonzahar* deritzo. Eguna soilik izendatzen denean, mugagabez: —*Ze egun da bihar?* —*Gabonzahar da bihar*. Baina maiztasunez *egun* (edo *gau*) izenaz lagundurik darabilgu: *Gabonzahar-eguna*. *Gabonzahar-gauean*. Eta ziklo modura, jaiaren iraupen osoa batzen dugunean, pluralez: «*Gabonak* etxerako eta *Gabonzaharrak* kalerako», esaldi ezaguna dakar *Labayru Hiztegiak*. Edo: *Gabonzaharretan aurten ez goaz inora*.

Urtezahar dugu erdi eta ekialdean egun horri zaion izena. Usadio zaharrean *Urtezahar* ere mugagabez erabiltzen zen, hurrengo eguna, *Urteberri* bezala. Errefrau batek gogorazten digunez: «*Urteberri, Urtezahar, Martzelino galtzazahar*». Gaur egun, oster, *Urtezaharra*, mugatzaile eta guzti, entzun eta irakurri ere gehiago egiten da.

Jaiegun hauek, biok ere, tradizioz *egun* hitzaz lagundurik erabili izan ditugu gehiago: *Urtezahar-eguna, Urteberri-eguna*.

Urteberri | *Urtebarri* mugagabez izendaturik ageri zaigu errefraueta ere: «*Urteberri, gogo berri*» dio batek. Eta «*Urtebarri, itsuak ere igarri*», beste batek.

Horiekin batera badugu *Urtats* —edo *Urtatse*— izena ere, ekialdeko hizkeretakoa, bai Ipar, bai Hego. Mugagabez erabili izan da *Urtats* ere. Eta *urtatsa*, mugatzaile eta guzti, *Urteberri-egunez* gaztetxoek etxerik etxe egiten zituzten eske-kantu eta ibileretan, sari, opari edo erregaliari esan izan zaio. «*Urtats!, Urtats!*» errezitatuz egiten izan da sari-eske hori ekialdean. «*Urtebarri kari-kari*» erara sartaldean.

Amaitzeko hauxe esan dezadan. *Urteberri-egunaz* hasiera ematen dion egun horrek ezarri dio lehenengo hil honi ere izena: *urtarril* izenaren azpian [*urte + berri + hil*] dugu. Eta berdin gertatu da *urtats* izenaz ere. Haren gainean eraiki izan du ekialdeko euskarak *urtatsil* izena, urtearen lehen hilabete honentzat: [*urte + bats + hil*].

FAKTORIAKO GEZIAK

III ATALA

[2021. urteko testu-bilduma]

[1]

Dibertsoa eta dibertsitatea: anitza?

—Estatu Batuetako gizartearen *dibertsitatea* aipatu zuten lehengo batean lagun batzuek. Gizartea *anitza* dela esan ohi da askotan, hau da, gizartearen *aniztasunaz* hitz egin dezakegu. Baina guztiok dakigu *anitz* hitzak *asko* adierazten duela oro har. Nola eman kontzeptu horiek euskaraz?

—*Anitz urtez, anitz aldiz, anitzetan* esaten da Ekialde eta Iparraldean, Hegoaldeko gehienok *urte askotan* edo *urte askoan* diogunarentzat. *Anitz*, bere esangura propioan, *asko* da, edo *asko eta asko*, baina beti ere zenbatekoaz, zenbatze-neurriaz dihardugula.

Bakarrean zein izenez lagunduta, *anitz* zenbatzaile zehaztugabea da; askotan izen zenbakarriaz dator, beste batzuetan izen zenbakaitzaz. Kokapenari begira, izenaren aurrean ageri da gehienetan (*anitz lore*), baina ondoan ere jar liteke (*esker anitz*). Eta *anitzen* gramatika-kategoriari buruz ari garela, kantitate-adberbioa ere bada, Xalbadorren bertso hauetan bezala: «Oi entzule maittea, / otoi barkamendu, / ez badut bozkarioz / kantaldi hau ondu! / Jostetako gogoa / dautate kendu, / *aunitz* maite duenak / *aunitz* sofritzen du».

Eta esangura horren harira sortuak dira: *anizkoitza* (multiploa), *aniztuna* (plurala), *aniztu* (askotu, gehiagotu) edo *aniztasun* (asko izatea, askotasuna).

Gizarte bat **anitza* dela esatea, dibertsitate handikoa dela esateko, ez du gure tradizioak, ez zaharrak ez modernoagoak, bermatzen. Oro har, onartzen duen mugatzaile nagusia pluralekoa da, *anitzak*: *anitzak direla*; *hainbat*, *hainbeste* direla hau edo hori egiten dutenak adierazteko. Esango bagenu bezala, *askoak*. Bigarren mailako erabilerak ditugu mugatzaileak hauek, baina biak zenbateko neurriaren, eta ez dibertsitatearen adierazle.

Anitza, mugatzaile singularraz ageri den gehienetan, izen edo adjektibo bihurtu dugulako da, *askoa* edo *ugaria* esatea bezala. Dotrina klasiko batetik hautaturiko esaldiaz argiturik: «Dugun aphurra edo *hainitza* zureganik da».

'Dibertsoa' eta *'dibertsitatea'* zehaztasunez euskal ordainez emateko beste hitz hoberik finkatu ezak eraman ditu gaur egungo idazle eta erabiltzaileak *anitza* eta *aniztasuna* bultzatzera.

Zein bide hautatu? Batetik, AEBko gizartea, edo Ameriketan bizi den jendea, populua, *dibertsitate handikoa* dela esateari ez diogu beldurrik izan be-

har, batez ere izen abstraktu bezala erabiltzeko. Nahi eta nahi ez, geuregan-du beharreko mailegutzat jotzen dut.

Eta adjektibo modura zein hobetsi? *Dibertsoa* erabil daiteke dudarik gabe, baina hor aukera gehiago ditugu. Egokiena-edo, eta errazen antzekoa jotzen dudana *askotariko* da. AEBko gizartea *askotarikoa* dela, *askotariko jendea* bizi dela han, batez ere bertako hiri nagusietan.

Hitz horren egitura bereko beste bi hitz ere badira, gogoan hartzekoak. Bata da, *edotarikoa*. Eibarko hizkeran esanda: «Janarixa, *edotarikua* izanda be, ez zetsan ardura» (Toribio Etxebarria, *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*). Bestea, *guztitarikoa*, ‘era guztietakoa’ adierazteko.

Askotariko dela-eta, hari-harira datorkigu, Koldo Mitxelenak hizlauzko idatzietan dakarren hurrengo esaldi hau: «Ez dago inolazko bitasunik zer-baiten alde (...) ari direnen artean, *askotariko* aniztasuna baizik» (MEIG, VII, 162). ‘Era askotako ugaritasuna’, esan nahi du.

Baina «diverso» adjektiboaren kalitatea adierazteko perifrasieta ere jo daiteke, eta guztiz gomendarriak dira erabiltzeko. Hala, *askotariko* adnominalaren sinonimo hurbilak diren bi hitzeko lokuzioak aipatuko ditut. Hurbilena, eta sarri darabilguna: *era askotakoa*. Esan daiteke: *Era askotako* jendea dela Estatu Batuetako gizartean. *Guztitariko* ointzat hartuta, *era guztietakoa* erabil daiteke, eta esan: *Era guztietako jendea* bizi dela Ameriketan. Bigarren hau aurrekoa baino markatuagoa da berez, baina *dibertsitatearen* orokortasuna eta neutro izaera hobeto islatzen ditu beharbada, *era askotakoa* dela esanda baino. *Era askotako jendea* dagoela munduan esaten denean, den-denak ez direla onak ere azpitik adierazi ohi da.

Dibertsitate izen abstraktura itzulita, sinonimo gisa *askotarikotasun* eratorria bultzatzea ez dit buruak agintzen. Baina badira balio beretsua duten sinonimoak, oso-osoan ez arren, hurbilekoak direnak.

- Bat, AEBko gizartearen *berdineza* edo *berdineztasuna* proposa daiteke izen abstraktu gisa.
- Bigarren bat, *askotariko izaera* izen elkartuaren bidez.
- Eta hirugarren bat horren perifrasiatz: *askotarikoa izatea* edota *era askotakoa izatea*.

Eta adjektiboaren kategoria, edo *askotariko* —edo *guztitariko* edo *edotariko*— adnominalak erabiliz, edo euron perifrasiak: *era askotako*, *era guztietako*.

[2]

«Vial»

—Gaztelaniaz «vial» deitzen diote txertoaren sei dosiak biltzen dituen potetxoari. Eta euskaraz?

—Ingelesetik zuzen hartua dugu «vial» delako hori. Greziera zaharrean «phiale» zeritzan eta latinez ere «phiala» zeritzanetik egokituriko mailegua. Europako hizkuntza nagusiak ere eredu horri atxiki zaizkio: frantsesez «fiole», italieraz «fiala», eta alemanez «Phiole».

Txertoa gordetzen duten poto txikiok beirazkoak ohi dira (gaur egun polipropileno deritzan materia berriagoaz ordezkatu badira ere). Eta poto txikinok beira edo kristalezko materiakoak izatetik dator, Ipar Europako hizkuntza batzuk beiraren izenaz baliatzea, «glass» edo «flasche» erroen arabera: «flesje» nederlanderaz, eta «hetteglass» danieraz eta norvegieraz.

Euskaraz ere bi bide ditugu aukeran. Bata, mailegu-hitza onartzea: *biala*, alegia, batez ere maila teknikoan edo zientifikokoan dihardugunean. Arrazoizko bidea.

Baina zergatik bidea ireki ez, euskal hiztegian tradizioan sustraituago dagoen hitz bati? *Ontzia* entzun dut hainbat aldiz, eta zilegi da. Agian orokorregia dela; horixe du izen horrek muga. Baina badira gutxiago erabiliak izanik, «vial» horrentzako ordain egokiak izan daitezkeenak: *flaskoa*, esaterako. Hegoaldean darabilgun *frasko* izenaren Iparraldeko aldaera, eta arauz onartua. Bigarren bat ere ipin daiteke salgai euskararen plazan: *bonbiltxoa* Plazido Mujikak jasorik dakarren izena.

—Bost dosi zirenak sei dosi izatera heldu dira. Azken horri zer izen eman behar diogu: *hondar* edo *kondar*? Ala bestelako izenen bat?

—Bost dosi zirenak sei bihurtzeak ez du erremedio gabe esan nahi seigarrentxo hori *bondarra* edo *kondarra* denik.

Bada euskaraz atzizki bat, -KIN delakoa, sobera gelditzen den horri euskaraz sarri gehitzen dioguna. Hizkera desberdinetako hitz batzuk gogoratu ditugu: *bondakina* (edo *bondarkina*), *soberakina*, *haborokina* (haboro dena), *geldikina* (gelditzen dena) edo *uzkina* (uzten dena), kasurako.

Baina -KIN atzizkia erabiltzeak ez du ezinbestean esan nahi, izen eratorriari 'sobra edo *sobera*, *alferrik*, *ezertarako ez den*' adiera eman behar zaionik. Zeren pentsa lezake, bestela, txertoa hartzera doanak, aurreko beste bostei isuri zaiena baino eskasagoa edo ezdeusagoa dela berari emango dioten azken hondar hori.

Nik hauta nezake -KIN atzizkidun eratorri bat *txerto-hondar* hori izendatzeko, konnotaziorik gutxiena duenen bat, ahal dela; esaterako, *geldikina* edo *haborokina*. Hitz gutxi erabiliak dira, gazt. 'excedente' adierakoak.

Baina -KIN gabeko izen neutroagoa ere erabil dezakegu: *enparatua* edo *gainontzekoa*, esanahiz orokorragoak diren izenak beti ere.

2021-02-02

[3]

Egunsentia

- Udaberria hurbildu ahala, eguraldia ere hobetuz doa. Egunak epelago, eta *egunsentia*k inoiz baino ederrago. Hala ikusten ditugu sare sozialetan eskegitzen dituzten argazki ugarietan. *Egunsentia* esateko era bat baino gehiago izango da, ezta?
- Eguna argitzen hasten denean, argia urratzen duenean —*arturratzean*—, *egunsentia* dela esan, entzun eta irakurri ohi dugu gehienbat. Baina izen desberdinak egotzi izan zaizkio *egunsentiari* han-hor-hemen, beste hizkuntzetan ere gertatzen den antzera. Hala ere, izen bakoitzaren atzean *egunsentia* sentitzeko, ikusteko edo jasotzeko, hainbat era daude, eta esanahia ere pitin bat berezia izan daiteke.

Hitz elkartuak dira horietarik gehienak, eta oin-izentzat *egun*, *argi*, *goiz*, *osti* edo *alba* bezalakoak ohi dituzte, eta bigarren osagaitzat: *senti*, *haste*, *urratze*, *nabar*, *antz*, *xinta*, *ikara*, *tirrinta* eta abar, edota -DIRI atzizkia, Nafarroa beheherko hizkeretan.

Egunsenti hitza, ‘eguna sentitzetik’ jalgiriko izen elkartua dugu. Bitxia da Mogel idazleak, *senti* hitza ez ezik, *usain* izena ere uztarri-lagun hartzen duela, eta behin gutxienez *egun-usaina* darabil bere elkarrizketa-jardunetan: «—Nos jagi zinian bada zeu?», galdegin dio barberuak Peru nekazariari, eta honek erantzun: «—Goizabar edo *egun-usainagaz* batera». *Egunsentia* zabal-ezaguna den bezala, ez hainbeste beste biak, *egun-usaina* eta *goizabarra*.

Goizabar, edo zehatzago esanda, *goiznabar* izen horrek *ilunabar* hitza du aurrez aurre, eta hura dakarkigu gogora. Baina eskumako osagai hori ez da bat-batean akordura datorkigun *abarra*, baizik *nabar* adjektiboa. Egun-hasteari doazkion izenetan, izan ere, emankorra dugu kolore-adjektibo hori. *Nabar* bigarren osagaitzat hartuta, eta *argi*, *goiz* edo *egun* izenak, edota *ilun* aurretik direla, uztartu ditugu izen mordotxoak. Horrexetatik sortuak dira *arginabarra*, *egunabarra* eta *goiznabarra* egunaren hasiera adierazteko, eta *ilunabarra* alegunaren behehitzeari buruz. Eta aldaera ezagunak dira, *goizabar* eta *goiztabarra* batetik, eta *iluntabarra* bestetik.

Argi hitzaren inguruan garatu direnen artean, ezagunenetarikoa *argi-haste* Iparraldeko izena dugu, gutariko askok, hitzez entzunda baino kantu bidez

errazago ikasi genuena, harako xiberutar tradizio-kantu zoragarriari esker: «Goizian *argi-hastian* / ene leiho hegian / xori bat pausatzen da eta / goratik hasten kantan».

Baina *argitze* hitz soilaz ere izendatzen da egunsentia. Oihenart poetak amodio kantu batean dio: «*Argitzean*, eguerditan, / arratsean natzano, / gaua goizak ordaritan / biharamunt dazano, / zuri huts, et(a) ez bertzeri / darraika ene gogoa». Baina goizean goizik *argia* urratu egiten baita, *argiurratze* edo *arturratze* izen poetikoak ere sortu dira fenomeno atmosferiko horren adierazgarriako.

Argi-txinta, edo *argi-xinta* ere baderitzo goizeko lehen errainu edo printzen agerrerari. Orixeek *Euskaldunak* poemategian dio: «*Argi-xinta* sumatuz, ogeari muzin, / jekitzen naiz goizero, bi belaunak arin».

Eta *arginabia* ere esan izan zaio hizkera batzuetan. Karmelo Etxegarai azpeitiarrak esaldi borobil hau idazi zuen XX. mende hasieran: «*Egunsentia* datorrenean lehenbiziko azaltzen dan *arginabi*, iluntasunak urratzen oraindik ez dakion haren antzekoa» (sarrera, Domingo Agirreren *Auñemendiko Lorea*).

Eta Nafarroa Beherean *argidiria* ere deitu izan zaio, -DIRI atzizkiaz, Iparraldeko eremu zabalagoan *goiztiria* deritzanaren forma mugatuagoa, euskararen sartaldean ezagunagoa dugun *alba* edo *goiz-alba* delakoarentzat. Eta *argi* izenaren hariari tenk eginez, oraindik ere hor ditugu *argi-ikara*, *argi-tirrinta* eta beste *argidun* izen elkartu batzuk, gure hizkuntzan hain zabal ez dabiltzanak.

Antz izena bigarren osagaitzat duten eguraldi-fenomenoak ere ezagunak dira. *Euriantza* dagoela esan ohi den antzera garatuak dira *ostantza* eta *eguantza* ere, *ostiaren* | *ortziaren* eta 'egun-argiaren antza' hartzen joatearen pertzepzio bisuala adierazten dutenak.

Goiz izenaren ildoan sorturiko beste batzuk ere badira, aipatu diren *goiz-tiriaz* eta *goiznabarraz* gainera. Irudi poetikoa duen *goiz-ikara*, esaterako.

Eta *alba* mailegu-izena ere geuretua dugunez, *goiz-alba* hitz elkartu geminatua garatu dugu, indar eta esangura berria erantsirik; horrela gardenago bihurtzen dugula. Eta horrelaxe garatu dugu *albakoa* eratorria ere. Lehenago goizetiko orduetan jotzen ziren kanpai-hotsei izena emateko baliatu dugun izena: *albakoa* jotzen zen. Auzo edo herriko emakume edo gizonen batek izan ohi zuen bere gain *albakoa* jotzea. Oilarraren kukurrukua aski ez bazen jendea iratzarteko, formalitate handiagoko hotsak ziren *albakoarenak*, lehenagoko nekazari-gizartean bizimoduari egunean-egunean eustea markatzen zuena. *Albako* kanpai-jotze horri *goiz-ezkila*, *argi-ezkila* edo *argi-kanpaia* ere baze-ritzan beste leku batzuetan.

- Negu gogorraren trazak –elur, izotz eta bisutsa– aldendu ahala, goizaren lehen argi-printzak nolakoak diren, halako eguraldiaren iragarpena dakartela esan ohi da. Hala, argi-urratzea gorri kolorez tindatua ageri zaigu maiztxo sasoi honetan. Eta zein da horren iragarpena? Bermeon ikasitako errefrau baten arabera: «Alba gorri, haize edo euri».
- Egunsentia eta goiz jaikitzea ez dira bat, Faktoriako irratilariok goiz jaikitza behartuak bazaudete ere... Larramendi idazleak edertotxo gogorarazi zigun aspaldi: «*Goiz jaikia ezta egunsentia*». Gaztelaniaz ere badu ordaina: «No por mucho madrugar amanece antes».

2021-02-18

[4]

«Antidisturbios»

—Kataluniako azken asteotako gertakariak hitz bat ekarri digute behin eta berriz mihinera: «antidisturbios» delako polizia-atal berezia. Nola esan zehaztasunez hitz hori euskaraz?

—Gaztelaniaz «cuerpo» eta «unidad» hitzak erabili ohi dira, euskaraz *atal*, *unitate* edo antzekoz izendatuko genituzkeen polizia sail horientzat. *Batasun* hitza ere, berez egokia izan arren, gaur egun urrun dago ‘giza sail, talde’ esanahia hartzetik.

«Antidisturbios» delako hori gazt. «disturbio» hitzetik erakarria da. Fransesez «anti-émeute», «émeute» izenetik egin den antzera. Italieraz ere ANTI-aurrizkira jo izan da «squadra antisommossa» izendapena finkatu denean.

Gaztelaniazko ‘disturbio(s)’ adieraz ditzaketen hainbat izen dira euskeraz, kale artean sortu ohi diren egonezin egoera larri horien izendapenerako: *nabasmenduak*, *nabasteak*, *liskarrak*, *matrakak*, *kalapitak*, *zalapartak*, *iskanbilak*, edota are bortitzago diren *altxamendu* edo *matxinada* bezalako hitzak. Baina *istiluak izan*, *istiluak sortu* edo *istiluak erne* direla esan edo idazteak gardenagoa dirudi hedabideetan. Eta gaur egungo entzuleentzat ere, horrelako gertakariak ulerrarazteko hitzik aiutuentzat *istilu* izena jotzen dugu.

Baina nola bideratu erromantze-hizkuntzetako ANTI- aurrehitz hori? Erromantzeen bidetik jo, euskara enbor horretako hizkuntza ez dela? Zeren ingelesez «riot police», «riot gear», «riot squads», «riot control units» ereduak ditugu. Alemanez, aldiz, bada izen bat, «Bereitschaftspolizei» delakoa, behar den horretarako ‘gertu eta prest dagoen polizia’ gogorarazten diguna, eta beste bat, altxatzen edo matxinatzen direnei ‘borroka egiten dieten unitateak’ seinalatzen dituen: «Aufstandsbekämpfungseinheiten».

Gure hiztegieta, ANTI- delakoarentzat *kontra* eta *aurka* hitzak ikusi ditut. «*Istiluen kontrako polizia*», «*Istiluen aurkako polizia*» eta era horretakoak.

Nik beste bide bati heldu nahiago nuke. *Subiltzaileak* akordatu zaizkit, nola *suak hiltzen*, *itzaltzen* edo *iraungitzen* jarduten duten; eta halaxe, *istiluak*, *nabasmenduak* edo *matrakak* ere, sua bezala, diren lekuan direla, *bil* edo *iraungi* daitezkeela bururatu zait. Eta hari horri tira eginez proposamen bikoitza egitera ausartzen naiz: «*Istilu-hiltzaileak*» edo «*Istilu-iraungitzaileak*» izenda daitezkeela polizia atal, unitate edo gorputz bereziok.

Istilu-biltzaile hitz laburragoa da berez, *istilu-iraungitzaile* baino, eta luze-laburrak ere bere pisua eduki ohi du honelakoetan, ekonomiaren mesedetan: ahal dela, laburrean hobe. Baina, egia ere bada bestalde, *istilu-iraungitzaile* berba belarrietarako *samurragoa*-edo dela... Hortxe, bada, biok; bide egin dezatela.

2021-03-03

[5]

«BAI bakarrik da baietz» eslogana

—Sexu-erasoak direla-eta, gaztelaniaz finkatu zen «NO es NO» delakoa euskaraz emateko hainbeste aukera diferente opetsi dira. Orain baietzaren inguruan beste esamolde bat ezarri da: «Solo sí es sí». Hori euskaraz esateko, zer aukera eskain dezakegu?

—Bost aukera erabili ditut esku artean.

Lehenengoa Faktoriatik heldu zaidana: «*Soilik BAI da baietz*». Ez diot adierazgarritasun garbirik ikusten *soilik* adberbio horrekin, eta gutxiago mezu nagusiaren aurretik dela. Hau bazter utzita, besteei helduko diet.

Beste laurak, *bai*, *baietz* eta *bakarrik* elkarri josita sortu zaizkidan aukerak dira. Kontua da zein ordenatan eta zein hitz-kategoria erabilita gertatzen den mezuaren adierazpenik egokiena:

- a) «*BAI da baietz bakarra*».
- b) «*BAI da bakarrik baietza*».
- c) «*BAI bakarrik da baietza*».
- d) «*BAI esatea da baietz esatea*».

Goiko lau horietatik bi hobetsiko nituzke, galbahetik iragazi ondoren:

- «*BAI da bakarrik baietza*».
- «*BAI bakarrik da baietza*».

Aukeran ematen ditut, erostunik balego...

Egotez, badaude beste aukera batzuk ere. *Besterik* lokailua erabilita, adibidez. Baina *besterik* horrek ezeztapena eskatzen du, eta ezezkako egiturarik ez nuke erabiliko kasu horretan, adierazi nahi den mezuaren giltza *bai* edo *baietza* izanda.

Gramatikaz bideragarriak dira berez: «*BAI besterik ez da baietz*». Edo baita, *baino* lokailutzat hartuta: «*BAI baino ez da baietz*». Baina mezuaren mamia lau-sotu besterik ez du egiten ezezkako adierazpenak. Baiezka emana behar du izan, mezua gardena eta argia gerta dadin.

2021-03-03

[6]

Errege-etxea ala Erregina-etxea?

—Ingalaterrako erreginak bizileku duen jauregiari nola esan behar zaio: *Errege-etxea* ala *Erregina-etxea*?

—Hasteko gogora dezagun, *errege* eta *erregina* izen zaharrak direla euskaraz, ez erromantzeetatik datozenak, baizik eta latin klasikoan erroa murgildurik duten mailegu gardenak: «regem» batetik dator *errege*, eta «reginam» batetik, *erregina*. Orduxetik daukagu beraz sexu-bikoiztasuna izen bion sustraian.

Bide batez gehi dezagun, gazte askok ez dakizkiten bi izen erabili izan zirela XX. mendean, lehen erdian berariaz, erresuma baten buru ziren gizon-emakumeak izendatzeko. Latin-sunda hori uxatu behar eta, euskara garbikotzat, euskal hitz purutzat Sabino Arana Goirik XIX. mendearen hondarrean fundatu zituenak: *bakalduna* batetik, ‘errege’ esateko, eta *bakanderea* edo *bakalemea* bestetik, ‘erregina’ ordeztatzeko, ointzat *bakal* hautaturik, *erreinu* (edo *erresuma*) baino garbiagotzat zuen ustezko izena.

Baina gatozen atzera *errege-erreginetara*.

Errege izena XII. mendean bertan ageri zaigu idatziz, Aymeric Picaud erromesak, Compostelako Donejakuera bidean Pirinio inguruak zeharkatu zituenean ondu zuen latin-euskara glosario labur hartan. Latinez zioen: «‘Regem’ vocant [deitzen diete] *erregia*».

Erdi Aroan, *errege* hitzak *erret-* hitz-osagaiaren mozturorpean ere iraun zuen izen elkartu batzuetan. Gaur egun, lehenagoko *bideberri* edo *kaminoak* izendatzeko darabilgun *errepidea* dugu horren lekuko, *erregebide* gardenagoaren ordeztatu genuen itxura zaharreko hura. Erregeren babespekoak ziren *errege-zubi* zaharrak ere leku-izendegi zaharrean *erretzubi* modura iraunarazi ditugu. Eta Erdi Aroan, hainbat *eibera* baitziren Erregeren zaintzapekoak, *erreteibera* ere lekukoturik ageri zaigu XII. mende goiztiarrean, *errota* darabilgunontzat *errege-errota* litzatekeenaren ekialdeko izendapena.

Beste hitzez esanda: *errege* hitza beste izen batekin elkarturik ageri denean gure tradizio-kulturan eta hizkeran, oin-hitz soila da, oin-hitz neutroa, ar-eme edo gizon-emaztekien arteko sexu-aurkaritzarik markatzen ez duena, aingeruak bezain neutroa. *Erregina* izena bera ere funtsean *errege* izenetik eratorria edo erakarria dugu, *emakume erregea* delakoarentzat.

Baina bizidunen mundu honetan, abereei erreparatzen badiegu, oin-hitz hori sarri eme-sexukoa izan ohi da. Hegaztietan *oiloa* dugu oina, eta *oilarra* eratorria. Ganadurik gehienetan ere emea dugu oinarri: *behia*, *ardia*, *ahuntza*. . . *Zaldi-behorren* arteko sexu-bikoiztasun horretan ere *behorra* dugu oin-izen nagusia. Ez dira berez edo arintasunez sortuak *Beobide*, *Beorburu* edo *Beorlegi* erako leku-izenak, edo ganadu-jabea basora doanean, *behorretara* doala esatea, *behortegi* horretan zaldi bat edo gehiago egonagatik.

Hitz elkartu bizigabeetara etorrira, ez genbiltzake zuzen, *errege*sagarra sagar-motari aldamenean **erreginasagarra* asmatu behar bagenio; ezta ere bide beretik, Isabel erregina *Katolikoa* Gernikarako Foruak zin egiten etorri zenean oinkatu zituen *erregebideak* **erreginabide* bateiatu behar bagenitu.

Gutxi-asko ezagunak ditugu, historiaren joan-etorrian ikasita, *errege-aulkiak*, *errege-legeak*, *errege-kontseiluak*, *errege-tituluak*, *errege-lurrak* edota *errege-makilak*. . ., alferriki errege edo erregina izan aldian-aldiango erreinu- edo erresuma-burua. Karlita-gerrateen patu txarra gogotan zuela, Orixek *Santa Kruz apaiza* kontaeran idatzi zuen: «Karlosek euskaldunetaz baliatu nahi zun *errege-alkian* eseritzeko». Baina *errege-aulki* horretan eseri zena, ez zen Karlos jauna izan, karlostarren ahaleginak gorabehera.

Baina *errege* eta *erregina* pertsona-izenentzat erabili nahi izanez gero, malgutasunez joka daiteke gure iritzian. Zilegi da esatea, *errege- seme*, *errege-alaba*, *erregeorde* edo *erregegai* edota printze-printzesak *erregina-seme* edo *erregina-alaba* bezala izendatzea, are arrazoi gehiagoz euren aita errege ez denean. Baina oro har, sistematikoki izenok bikoizten alfer-ahaleginik ez genuke egingo, arrazoi bereziren bat tartean egon ezik. Baina guraso biek erregetasuna izateko kasuan, *errege* soilaz baliatuko ginатеke.

Eratorkuntzan, beste horrenbeste. Bere horretan utziko genituzke: *errege-tza* edo *erregealdia*, erreinualdiarentzat. Eta *erreginagai* bat *erregina* bihurtu behar bagenu ere, *erregetu* (*'errege | erregina bihurtu'*) esanda ere lasai geratuko nintzateke, *erreginatu* esanda zehaztasun handiagoa jagon arren.

Baina momentuko auzi-puntua, ordea, *errege-etxe* ala *erregina-etxe* behar lukeen dugu, Ingalaterrako burua *erregina* izanik, eta ez erregea. Erreginaren gizona, albo-laguna, ez da errege, dakigula. Zeinen etxean bizi dira? *Erreginarenean*, dirudienez.

Elkarketa libre gisa erabiltzeko eskubidea dugu; elkartzen diren bi izenak izen autonomo gisa elkartzekoa, eta ondorioz, malgutasunez jokatzekoa. Arazo handi gabe onar daiteke esatea, kasurako, Ingalaterrako *erregina-etxean*

kezka edo urduritasun handia eragin dutela Harry eta Meghan senar-emazteen adierazpenek.

Baina *errege-etxea* erabilia ere, ez genuke hutsik egingo, zeren izen neutrotzat erabil daiteke kasu honetan *errege*. Alemanierazko prentsan zalaparta honen gorabeheran *erreginaren etxe* hori izendatzeko *Königsbaus* irakurri dut behin eta berriro, eta ez **Königinsbaus*.

Malgutasun horrezaz baliatuz, esan daiteke baita, *Charles*, Isabel erreginaren semea, eta errege izateko bidean ei dagoena, *erregina-semea* dugula, baina aldiz honen bi semeak, William eta Harry, gaurkoz ez dira *errege-seme*, ez *erregina-seme*, printze-seme soilak baizik.

2021-03-09

[7]

Elurra

—Pandemiaren zurrunbiloan *elurra*, *lainoa* eta eguraldi txarra izan ditugu protagonista lehen-go egunean, orain emeki-emeki bere onera etortzen ari bada ere. Negu gorriari loturiko hitzen aipamena egin nahi genuke gaurkoan.

—*Elurra* abiatu denean, dirauen bitartean, hori esateko era nagusia, hizkera guztietan orokorra da: *elurra da*. *Izan* aditza jokaturik. *Euria da* edo *txingorra da* esan ohi den bezalaxe.

Bigarren era bat da, *ari izan* aditzaz lagundurik. *Elurra ari du* da esapiderik borobilena, *euria ari du* diogun bezala. Baina *elurra ari DA* ere zuzena da guztiz, *euria ari da* den bezala. Guztion ezaguna den gabon-kanta baten lehen hitzak dira: *Elurra mara-mara ari da, zuritu du mendia...*

Baina badira beste aditz batzuk, eremu mugatukoak izanagatik, adierazkortasun berezia dutenak. Sartaldeko hizkeretan, hainbat lekutan, *jardun* aditzaz baliatu izan dira *ari izan* aditzaren ordeaz, baina joko trinkoaren jokoaz: *dihardu*, *zihardu*en adizkiekin. Hau da: *elurra* edo *euria dihardu*, edota izena estalita, *badihardu*, *bazihardu*en. Eta leku batzuetan [*biñardu*] ere bai; *badinardu* era landuan.

Elurrari erauntsi diola, *elurrari eraso diola*, *elurrari eman diola* ere esaten da, egiten hasi dela edo ari dela aditzera emateko. *Elurra* edo *euria ari duen* bitartean, aditz-joko trinkoaz erabiltzen da: *elurrari dirautso*, edo *badirautso* soilik, Aramaio aldean esaten den bezala. Urdaibai aldean *erauntsi* honen aldaera bat erabili izan da, galdu aginean badago ere, *inotsi*; hau ere adizki trinkoaz. Adineko hiztunek badakite oraindik esaten, elurragatik dela, euriagatik dela, [*binotso*], era landuan *badinotso*, baina eguraldi-izena sartuz gero, *elurrari* edo *euriari dinotso*; edo *elurrari* edo *euriari dirautso*.

Eta euskararen sartaldeko alderdian, *eragon* aditzaren jokoaz: *elurrari* | *edurrari daragoio*, *euriari daragoio*, edo, izena estalduta, *badaragoio*.

Baina *elur-* edo *euri-*egitea momentukoa ez denean, lehengo denean eta ez oraingoa, *elurra egin du* diogu, eta gerokoa denean ere *egin* erantsita: *elurra egin behar du* edo *elurra egingo du*. Lazarraga poeta arabarrak, herri-poesiaren baliabidez kantatu zuen bezala: «Mendi altuan *erurra* daidi, / aran baxuan eguzki» (Lazarraga, 1205r.).

Badugu oraindik beste aditz bat ere eguraldi-kontuan, *ekarri*, hau ere adizki trinkoaz, *dakar*, etortzekoa den eguraldiaren iragarpen gisa sarri darabilguna: *elurra dakar*, *euria dakar*, *hotz dakar*.

Hortik gora beste hainbat aditz ezagun ere badira elurrarekin ezkontzen direnak: *erori*, *jausi* eta beste.

—*Elurtza*, *elurtea* eta *elurketa* esaten ari garenean, gauza bera esaten ari al gara?

—*ElurtZA* eta *elurTEA* ez dira gauza berbera; neurri bateraino bai, baina ez bete-betean. Gauza berbera ez diren bezala *euritZAK* eta *euriteAK*, edota egunotan, haizeak gogor jo izan duenean, *haizeTEA* eta *haizeTZA* ez diren bezala.

Madrilgo errepideak, M-40 saihezbidea bereziki, *elurte* bortitzen ondorenez bihurtu dira *elurtza*, eta ondoko *izozte*. *ElurTEA* eta *elurRALDIA* denbora-irautean kideko dira, *elurtZA* eta *elurKETA* neurri, multzo edo pila izatean kide diren bezala.

Irudi gisa darabilgu maiz *elurra*, berariaz haren kolore *zuria*. «Soinekoa *elurra* baino zuriago zan», idatzi zuen Lardizabalek. Eta irudiaz azkena emateko, bada herri-errefrau bat dioena: «*Elurra*, *zuria dela*, *beltza da*». Zuri-beltzen kontrastea, elurraren on-gaitzen adierazle gisa.

2021-03-17

[8]

Flipatu

—Gazteen artean behin eta berriz entzuten den aditza: «Flipatu egiten dut», «Ez flipa!»..., hau edo hori entzunda edo ikusita. Onartzekoa dela, uste duzu, *flipatu* euskaraz?

—*Euskaltzaindiaren Hiztegiak* onartua du aditz hori.

Hauxe dio: «FLIPATU, FLIPA, FLIPATZEN du ad. (nor osagarririk gabe). *Heg. Beh.* ‘Zerbaitekin txunditurik edo miretsirik geratu’. *Flipatu* egin dut behiak ikus-tean bazter tropikal honetan. *Ikusiko* duzu, *flipatu* egingo duzue nire soinekoarekin!».

*Euskaltzaindiaren Hiztegi*an sartu bada, gaur egungo corpusetan indarra hartu duelako da dudarik gabe, eta ez tradizioa duelako gure literaturan. Aurretiaz dakigu tradizioz ez daukana, hitz berria baita euskaraz ere; gaztelaniatik sartua, nolanahi ere.

Diccionario de la Real Academia de la Lengua españolak onartua du «flipar» aditza, eta, baten faltan, bost adiera diferente bereizirik gainera. Baina guztietan «coloq.» marka erantsi diote: hitz arrunt edo lagunartekotzat dago onartua, ez goi-mailako berbatzat. Euskaraz ere berdintsu, «*Beh.*» markaz ohartarazi da behe-hizkerako hitz moduan arautu dela. Eta «*Heg.*» markaz mugatu hitz horren eremua: Pirinioz beheitian erabiltzen dela, ez Iparraldean. Horrek argiro darakus, gaztelaniatik irristatu dela euskarara mailegu hori, eta ez frantsesetik. Nahiz eta, berez hitz hori «flipper» aditza frantsesez ere egon dagoen; ez dakit zenbateko arrakastarekin, baina.

Ingelesean du etorkia hitz honek, «flip out», eta RAEk ere anglizismotzat aitortzen du. Ez dezagun ahanztu ingelesez ere hitz arrunt edo lagunartekotzat ezagutua dela. Esangura horretarako, hiztegieta ageri diren ordain nagusiak beste etorki batekoak dira, osteraz ingelesez «freak out», alemanez «ausrasten» edo italieraz «impazzire».

Berez drogen eraginez begitazioak, irudipenak edo «aluzinazioak» iza-tea edo burua galtzea adieraztea du gaztelaniaz baliorik behinena; adiera horrekin sartu bide da gaztelaniara eta balio hori aitortzen diote oinarritzko adieratzat. Baina begi-bistakoa da, hiztunen erabileran *‘harrituta, miretsita, txunditurik’* esanahia dela nagusi, bai gaztelaniaz eta berdin euskaraz; baina harritze, zurtze edo mireste puntu hori gorago eramanik. Eta drogen eragiaz duen kidetasuna gazt. ‘alucinar’ aditzak ere salatzen du, ordea.

—Beste hitzik ba al dugu *flipatu* esateko?

—*Flipatu* aditz berria da euskaraz, guztiz berria, baina modan jarri eta indarberritu den aditza. Zer dela eta? Lilura berezia duelako hiztun-multzo barentzat, bereziki hiztun gazteentzat. Mailegu-hitza izateak berak ematen dio bizitasuna, adierazkortasuna, berniz berezia.

Euskaraz diren ordainek ez dute, hiztun horientzat, *flipatu* hitzak duen lilura. Diferentziak berak ematen dio indarra, moda berriekin gertatu ohi den antzera.

Esan daiteke bai: *zur eta lur geratu, barri eta zur utzi, zurtuta egon, barriturik gelditu, txundituta utzi, miretsita egon*. . . eta beste gehiago, baina ez dira nahikoak *flipaturen* zale diren hiztunentzat.

—Nola jokutzen da, edo jokatu behar da *flipatu* aditza?

—Aditz deponente gisa sartu da: *Nik flipatzen dut*. Eta ez **flipatzen naiz* gisa. Hau da, *zuk flipatzen duzu*, baina ez dago *zer* edo *nor* bat flipatze horren argumentu osagarritzat. Objektu zuzen gabeko aditz deponente gisa onartu da euskaraz *flipatu*, mailegu gisa gaztelaniatik sartu diren beste batzuen antzera. Hala: *segitu, ernegatu, saltatu, dimititu* eta abar.

Baina estiloaren aldetik hobeto leudeke gure iritziz *flipaturik egon, flipatuta egon* edo *flipaturik utzi* ereduak aditz-lokuzioak, mailegu-aditz honen joko irregularra saihesteko, eta *flipatzen dut esan* ordeaz, holakook esatea kasurako: *flipaturik nago, flipatuta nago* edota *flipaturik utzi nauzu*.

—Aditz trinko gisa esan daiteke *daflipart* edo antzekorik, sareetan irakurri izan dugun bezala?

—Aditz trinko gisa **daflipart* ez da onargarria, txantxa modura ez bada! Gudu aurreko belaunaldiko idazle garbizaleak, gramatikari batzuen eraginez, hasi ziren aurretik tradizioz ez zuten edo taxu berriko adizki trinkoak erabiltzen: *dirakur, dager, dabagit* eta beste hainbat halako. Zaharrak ziren aditz batzuen era trinkoak ere okerreko formaz edo esanguraz berpiztu izan dira: *darrai, dagi, damai* bezalakoak. Baina berez-berez aldendu dira idazleen lumatik. Eta hiztunen ezpainetan egundo sekula ez dira ezagutu izan.

Baina badira beste adizki batzuk, ordea, gaurko hiztunok erabili izan ez arren, edo ia edo osorik galduak egon arren, tradizioa dutenak, batzuk xx.

mendean ere: *dakusat* (*dakust*), *dantzu*, *dazangu* bezalako adizkiak, eta askoz gehiago lehenagoko mendeetan. Hala, Lazarraga poeta arabarrak XVI. mendean, behin, behintzat, darabilen *nirteanean*, ‘*irten nintzen*’ adierarekin. Horrelako adizkiek hizkera jasoan erabilgarri izan daitezke, baina asmo berrikook ez.

—Zer etorkizun ikusten diozu euskaraz *flipatu* bezalako hitz bati?

—Susmoa dut, udaberrian etorri eta udazkenean joan doazen enaren antzera, etorri eta joaneko hitza bihurtuko dela *flipatu*. Euskal hiztunen gazte adineko jendearen artean irabazi duela arrakasta nabarmena, aldi batez *super*, *hiper*, *mega* bezalako graduatzaileek hartu zuten bezala. Baina iritzia daukat, elai-enaren antzera, etorri eta joan egingo duela aditz honek; ez duela luzaroegi iraungo euskara biziaren alorrean.

2021-04-29

[9]

«Temerario»

—Alarma-egoeraren epea bukatzeaz batera, hiriburu eta gune urbanoetan bereziki, guda-egoe-ra batetik atera bagina bezala, prebentzio-neurri guztiak ahaztu eta araurik ez balego legez, jarrera ausartak azaldu dira hainbat lagunengan, gazteriarengan batez ere. Holako-entzat, gaztelaniaz «temerario» hitza erabili dute askok behin eta berriz. Zer izen egokitu dakieke jarrera ausart horiei?

—Aho-mihinera lehenengo datorkidana, *ausart* hitzaren haritik, *ausartegi* konparatzaile gehiegizkoa da, batez ere G. Arestiren «*Egun da Santimamiña*» kantuen koplaz akordaturik: «Esaten dizut egia, hau ez da usategia, erroi artean izan nintzaden, benetan *ausartegia*».

Izan ere, gaztelaniaz «temerario» esaten denean, gaitzesgarri den kualitatea ematen ari gara, eta -EGI atzizki graduatzailea, gehiegizko konparagarria, egoki dator horrelakoetan.

Hari berari tenk eginez, *ozar* Iparralde eta Nafarroako adjektibo zaharrak ere balioko liguke, hitz honek egiazki biltzen baititu giza joera txarrenak bere baitan. Lesakako gutun zahar batean, urliarengatik esaten den legez: «bellako, *ozar*, traidorea» (1609). Edo beste idatzizko pasarte zahar batean ageri den bezala: «Huna aingeruen ogia, ez bedi *ozarrei* izan arthikia». Berez *ozar* izatea pertsonen egozten zaien kualitatea bada ere, balioko liguke, jarren kontuan ere erabilgarri da. Hala esan daiteke jarrera batzuk *ozarregiak* gertatu direla pandemia oste horretan.

Ausarkeria hitza ere erabilgarri da berez, baina ez nuke jarrera bera adierazteko erabiliko: *ausarkeriak* edo *beldurgabekeriak*, jarrera barik, jokabide horren ondorioz egiten diren ekintzak gehiago izan ohi direlako. Baina, *ausarkeriazko* egoera horri zer izen eman? *Ausardia* gehiegiz jokatu duten horien portaera nola izendatu? *Ausartegia* edo *ozarregia* izatearen kualitatea nola adierazi?

Nik, kualitatea adierazteko -TASUN atzizkira joko nuke, -KERIA bazter lagata. *Ausartegia* denaren joera *ausartasuna* izan daiteke. Edota *ozarregia* denarena, *ozartasuna*. Agian bigarren hau «temeritate» jarrera horri hobeto egokitzen zaiola esango nuke. Hitz gutxi erabilia izan arren gaur egun, agian horrexek ematen dio adiera berezi horrentzat gune egoki bat.

Hirugarren aukera bat *azarri* hitz zaharra berreskuratzea genuke. Baina *azarri* izan lokuzioa berez neutroa dugu: *azarri denaren* jarrera onerakoa edo txarrerakoa izan daiteke. XVI. mendeko errefrau zaharrak dio: «Edozein da *azarri*, baia gudura doa gitxi. ‘Cada uno es atrevido, empero a la guerra pocos van’» (*Refranes y Sentencias*, 383). Edo Lazarraga arabarrak bere olerki batean: «—Ene jauna, zer diostazu? / Zer daukazu bularretan? —Zagita bat eben daukat; / *azarri* ez nax tiraetan». Hau da: ‘*ez naiz ausartzen jaurtikitzen*’.

Azarri denaren kalitatea *azarkuntza* genuke berez, baina tradizioan kualitate positibo modura gehiago azaltzen da. Errefrau zaharrak dioen bezala: «*Azarkunzeak* bildurra uza bez, ze ilteko edo biziko gudura goakez. ‘El atrevimiento ahuyente el miedo, que para morir o vivir iremos a la guerra’» (*Refranes y Sentencias*, I65).

Eta amaitzeko, azken proposamen bat esango dut: jarrera batzuk «temerario» tankerakoak direla adierazteko, zergatik ez perifrasi ezagun batera jo? *Beldurra ematekoak* edo *beldurra emateko modukoak*, alegia?

2021-05-II

[10]

«Novato» eta «novatada»

—«Novatada» eta «novato», nola esan litezke euskaraz?

—*Novato* gazt. hitzaren oinean *novo*, *nuevo* adjektiboa eta -ATO atzizkia ditugu, adjektiboaren kualitate edo ezaugarria duen pertsona adieraztekoa.

Sinonimo ugariak ditu gaztelaniaz: «principiante», «bisoño», «primerizo», «principiante», «novel», «inexperto», «inhábil», «neófito», «aprendiz» eta beste gehiago. Eta ezaugarri bera dute ia guztiek: egoera baten aurrean edo jarduera jakin baterako oraindik ez ikasirik, ez jakiterik beregandu ez duena.

Euskaraz ere *berri* hitzetik abia gaitzezke, eta horretatik zertan edo hartan *berri dena*, edo *berri dagoena* seinalatuko genuke. Gehiagoko zehaztasun barik batzuetan: «*Berri dago* hori horrelako kontuetan» esan ohi da orokorrean. Edo: «Oraindino *berri* da *gazte* hori *edozein* langintzetan ere».

Baina aditz batekin ere elkar dezakegu zehaztasun gehiagorako, *jaioberri*, *ezkondu berri* > *ezkonberri* edo *hil berri* sortu izan ziren bide beretik.

Erakunde, elkarte, lanbide edo dena delako jarduera baten *sartzen* denagatik esan ohi da *sartu berria* dela. Lehenagoko bizimoduan, komentuko ereduak ageri da noiz edo behin euskaraz; eta Juan Antonio Mogel idazle klasikoak fraileak eta gatzemaileak (sukaldariak) aipatzen ditu *sartu berri* egiturarekin. Behin dio: «Eztozu enzun iños praille-etxeetan jazoten dana? Praille gatzetxu edo *sartu barriak* daroe nekerik gogorrena. Ezta oneentzat bigungarririk; sendo-sendo, osoz oso daroez agindu guztiak». Eta beste behin, gatzemaile edo sukaldaritzan olagintza batean diharduten gatzetxoengatik: «Alan bada, gatzamailleak bere, izanik *sartu barriak*, ikasten dabe neke andien ta irabazi laburraren bidez, zer itxaraten deutseen, ta geroko obeagoaren pentzudan egonaz, igaroerraza egiten jake daroen bear gogor ta nekatsua».

Dena den, *hasi* aditza dugu beharbada neutro eta orokorrena *berri* adjektiboaz elkartzeko adiera honetarako. Hala esaten da: *hasiberria* (zenbait hizkeratan, *hasberria*). *Hasi berria* izan edo *hasi berri* egon. Larramendik ongi asmatu zuen bere hiztegian: «*Hasiberri*, *hasibbarri*. ‘Principiante’, ‘novicio’, ‘catecúmeno’, ‘novato’, ‘novel’».

Ongi deskribatu zuen Jose Ignazio Arana jesulagunak Inazio donearen ibilbideaz: «Orduan alabaina, Ignazio, *asiberriaren* jakinezarekin [...], zailantzan egondu zan». Eta: «Zaldun *asiberrien* oiturari jarraitzeagatik» (*San Ignacio Loyolacoaren bizitza laburtua euskaraz eta gaztelaniaz*).

E. Erkiagak ongi egokitu zuen irakaskuntza girora hitz hau: «Eskola nagusi honetara [...] era askotako ikasleak dabe jokera. Gazteak batzuk, beste batzuk areago, *asi barriak*, isil-samar egoten dakienak» (*Arranegi*).

Hasiberria izan daiteke bat, lanean dela, ikastetxe batean dela, edo kirol batean edo bestelako edozein jardueretan; lehendik, han bertan beste batzuk luzaroago dabiltzan lekuan, *hasiberri* den hori baino askojakinagoak, esperientzia gehiagokoak diren lekuan.

—Eta «novatada», orduan, nola esango genuke?

—Eta gazte *sartu berri* edo *sarberriei*, edo *hasiberriei* egiten zaizkien «novatada» delakoei nola deritze euskaraz? Aukeran bat baino gehiago ditugu:

— *Hasiberrikeria* hitzaz bataiatu izan dira inoiz halakoei egiten zaizkien gaiztakeriak. *Barrabaskeriak* egiten diren antzera.

— *Hasiberri-saria* ere erabili izan da, modu ironikoz, halakoek jasan behar dituzten okerkeria edo bihurrikeriak izendatzeko. Izan ere, *sariak*, edo *saritzat* ematen direnak ez dira beti pozgarriak izaten...

— Perifراس bat ere erabil daiteke: *Berri izatea ordaindu* edo *ordainarazi* leku horretara etorri, sartu edo bertaratu berriei.

2021-06-02

[11]

Azterketa sasoian: *txuletak*?

—Irakaskuntza munduan, azterketa garaian, sarri entzuten den hitza dugu *txuleta* ikasleen ahotik. Nola esan beste era batera euskaraz?

—Azterketa batera, gai bat buruan ondo menderatuta ez duen batek, *paper-txoan* labur eta letra txikiz idatzita daramanak, azterketara «*txuleta*» batekin doala esan ohi da. Gaztelaniaz, «chuleta», RAEk guztiz onartua duen hitza, bestetik. Eta euskarazko hiztegieta ere, *Heg.* (hegoalde) eta *kolok.* (kolokial) markekin sartua den hitza da. Hala ere, Euskaltzaindiak oraindik bere *Hiztegia*n ez dio sarrerarik eman.

Ikasle-munduan, oker handi barik esan daiteke: *txuleta atera*, *txuleta barra-patu*, *txuleta ondo gordeta eduki* bezalako kontestuetan erabiltzen da. Hitz hori saihesten euskaraz ere ez da erraza, *isileko kopia-paper* hori izendatzeko.

Beste zein aukera eman daiteke, ordea, *ezkutuko apuntea* delako hori izendatzeko? Onar dezagun osagai biko hitza behar duela izan. Bigarren osagaitzat *paper* hitzak balio dezake, lehendik *berri-paperak*, *bertso-paperak*, *kopla-paperak* edo *kantu-paperak* garatu diren antzera. Nahiz paperezkoa ez izan gaur egun sarritan idatz zirriborro hori, balioko luke *paper* hitzak, ingelesez *newspaper* den antzera. Agian -TXO atzizki txikigarriaz ere ondo, neurri txikiari ohar-tuta. Baina *txatal* hitzak ere balio dezake bigarren osagarritzat.

Lehen osagaitzat zein hautatu? Arauz kanpoko eta arauen kontrakoa den *paper* edo *txatala* izanik, *isil* hitza proposa daiteke: *isil-papera* edo *isil-txatala*, eta *isil-idatzia* ere bideratu daiteke. Esanguraz egokia izan daiteke *kopia* izena ere, *paper* horrek betekizun hori duenez gero: *kopia-papera* edo *kopia-txatala*.

Eta intentzio neutroagoa, ez hain maliziatia, eman nahi bazaio papertxo horri, *apunte* izenaz ere balia gintezke: *apunte-papera*. Hala, hizlari batek jendaurrean hitz egin behar duenean, jendeak ez ikusteko moduan zirriborro gisa darabilena.

Nolanahi ere, *txuleta* mailegu-hitza, behin sartu denez gero, luzarorako dugula euskararen errepertorioan esango nuke.

2021-06-02

[12]

Sumendien inguruan hamar hitz

- Astebete da Kanarietako La Palma uharteko Cumbre Vieja mendi-tontorra harri gorri jaurtika hasi zela. Euskaldunok ez dugu geure lurraldean horrelako askorik ezagutu, ezta bizi izan ere, baina euskaraz ere sortu eta garatu dira natura-fenomeno horren inguruko hitzak. Hauta itzazu hamar hitz.
- Hitz asko garatu dira euskaraz ere sumendien inguruan, baina hautua egin beharrez, hara hautatu ditudan hamarrok:

1) *Bolkana*

Bolkanari euskaraz gaur egun ematen zaion izen arrunta *sumendia* dugu. Zientzialariak hala ere, nazioarteko hizkuntza gehienek darabilten «volcan», «Vulcan» edo «volcano» hitzen errokoari eustera daude, zientzia-arloan, behintzat.

Hedabideek, aldiz, *sumendi* herrikoiagoari atxikimendu handiagoa agertu diote. Baina gogora dezagun, neologismo hau hiztegi gileek sortua-edo dela, eta ez hain aspaldi; orain dela mende eta erdi inguru, eta Iparraldean, hain zuzen. Aranatarrek abegi ona egin zioten eta harrezkero idazleren batzuek ere bai.

Gogora dezagun halaber, *sumendi* baino mende bat goiztarragoa dugula *garmendi* izena. XVIII. mendean barrena asmatu zen «volcán» erdarazkoaren euskal ordain gisa, Larramendi eta Harriet lexikografikoen eskutik. Eta *garmendi* izena onartuago egon da aldi batez, *sumendi* baino. Azkuek berak ere azken horri eman zion lehentasuna. Natura-fenomenoaren iruditzen zein hartzen den da geure gakoa: batzuentzat mendia *sutan* edo *su jaurtika* jardutea, eta besteentzat *garretan* edo *garrak jaurtitzen* irautea.

Bolkan mailegua ezinbestekoa dugu euskaraz nolanahi ere, zeren leku batzuk *bolkanikoak* edota *bolkan-lurrak* direla errazago esango baitugu, *sumendi-lurrak* direla baino. Bestalde, *bolkanismoa* eta *bulkanologia* izenak ere beharrezkoak ditugu zientzia-kontzeptu horientzat.

2) *Kraterra* edo *aboa*

Abo bat baino gehiago ditu bolkanak. Eta horietatik ari da, ago gorria beherantz dariola.

3) *Laba*

Mailegu-izen hau da nagusi euskaraz ere. Baina beste izen batzuk ere hartu ditu, ustez garbiagoak. *Harri urtua* deritzan horrek osatzen du *laba* delakoa. Eman izan zaizkio: *barri gorria*, *ur gorria*, *harri gezala* eta *garkina* izenak ere.

«Orduan igikun larriak eta sumendi-zehar *ugoria* egotzi beharra-ta jazotzen dira» zioen *Euzkadi* egunkariak 1929ko ale batean.

Laba delakoa *mehea*, *biguna* izan daiteke, edo *lodia*, *trinkoa*, *sendoa*. Eta ondorioz, *isurkorrago* edo *jariokorrago* batzuetan, *astun-geldoago* beste batzuetan.

4) *Agoa* eta *galda*

Burdinolen langintzatik datozen izen zaharrak ere erabilgarri gerta daitezke mendian behera irristatzen den laba ildoarentzat, gaztelaniazko «colada» delakoarentzat. Maldan behera datozen laba-ildoak bi, hiru edo lau *agoa* direla esan daiteke.

Lope de Isastik jaso zuen hitz hau esakuntza baten barruan 1620 inguruan: «*Agoak*, bero deino, galda. 'La masa mientras es caliente (tiene) calda'». Eta hurrengo mendean Larramendik gogorarazi zigun berriro, *agoa* eta *galda* hitzekin onduriko, aspaldiko burdinoleetako langintzan sustraitua zuen esaera berau, eta gaineratu zuen: «y significa en lo literal, que a la masa de hierro, que llamamos *agoa*, se le han de dar las caldas, antes de dejarla enfriarse: y debe hacerse lo mismo en los negocios, sin dejarlos que se enfríen».

5) *Erupzioa*

Mailegu-izen honen beharra du euskarak ere bolkan-fenomenoarentzat. Baina again, honekin lehian, *jalgitze* edo *jalgidura* izenak ere bideragarri lirateke.

6) *Aurtiki* edo *jaurti* eta *egotzi*

Aurtiki, edo *jaurti*, eta *egotzi* aditz adierazkorak izan daitezke *bota* hedatua goaren sinonimotzat, sumendiak kraterean gora, magma osatzen duten gai solido, isurkari eta gasezkoen irteera bortitza adierazteko. Baina natura-fenomeno hori iraunkorra ohi denez, *urtika* adberbio zaharra datorkigu era-

erara, eta ziurki *botaka* baino askoz irudikorrago eta biziagoa. *Egozka* adberbioak ere balioko liguke. Beti ere, bigarren osagaitzat duten hitz elkartuak guztiz adierazkorrak dira fenomeno bortitz honentzat. Sumendia *barri gori urtika*, *su-*, *gar-* edo *errauts-urtika* ari dela hain zuzen, edo nahi bada, *egozka*.

7) *Jarioa* eta *isuria*

Isuri eta *jario* aditz edo izenak natura-fenomeno honi berez legez datozkion hitzak dira, berdin dio *isuria* edo *jarioa* zaldiaren apatx-urtika bezain bizkorra izan edo barearen pausokoa izan.

Gas-isuriak edo *gasen isurialdiak* aipa ditzakegu gaztelaniazko «emanaciones de gas» delakoentzat. Edota *gas-jarioak*, gura izanez gero.

Jario hitzak *dariola* adizki trinko adberbiotua ere hor du, etengabeko *jarioarentzat*. Esan daiteke: *laba dariola*, *errautsa dariola* edo *garkinak dariola* dagoela sumendia.

8) *Orroa*

Abere-piztien hots izu-eragilearen antzera, berdin esan daiteke *orroa egin duela* berriz ere bolkanak. Eta jarraiko, etengabeko *su-*, *txinpart-* eta *gar-urtika* ari denean *orroka* | *orroaka* ari dela.

9) *Euri azidoa*

Bere horretan utziko dugu euskaraz ere gaztelaniazko «lluvia ácida» delakoaren ordainez.

10) *Errautsak*

Hauts erreak, zehaztasun gehiagoko hitza dugu euskaraz, *hauts* soila baino. Uharte osora eta urrunagora ere hedatzen ari direla errautsok esan daiteke. Eta hurreko parajeetan *errauts-euria* ari duela ere bai.

Amaitzeko, gogora dezagun, zenbat jenderi gertatu zaion euren *etxeetatik atera beharra*, *etxeak bustea*, zorigaiztoko *ebakuazioa*. Eta *errautsen* irudi berberaz esan daiteke, *etxeak*, *auzoak*, herria *errautsu zaizkiela*; *suntsitu*, *birrindu*, *triskatu*.

2021-09-28

[13]

Gaztainak

—Gaztaina sasoian gaude... Zein hitz nabarmenduko zenituzke gai-arlo horretatik?

—Ondoko hitzak gogoraraziko nituzke.

Gaztaina erreak eta *gaztainak erre*, lehenik. *Gaztainak erre*ta jan izan dira batez ere. *Egosi* ere bai, baina gutxiagotan oro har. *Gaztainak erre*, danbolinean egiten ziren, metalezko ontzi biribil luzenga batean. Beheko su edo supazterreko laratzean eskegitzen zen. Danbolinaren kirtenari geldiro-geldiro eragin ahala, azpiko txingar edo su baxuaren beroan, erretzen ziren gaztainok goi eta behe, kiskali gabe ahal dela. Zartaginean, labean, txapa gainean-eta ere erretzen dira han edo bestean.

Gorringoa, arrautzenari ez ezik, gaztainena ere baderitzo. Sartalde-hizkeretan entzuten da berariaz: *gaztaina-gorringoa*, hitz elkartu gisa. Baina Nafarroa aldean ere ezaguna da. *Gaztaina-gorringoa*, azal kiskalia kendu ondoren, jateko moduan dagoen gaztaina-aleak *hori-gorriska* kolorea hartzen duelako ematen zaio irudi-izen hori.

Gaztaina-garauak biltzen dituen inguru-azal arantzadunari era askotara deitzen zaio euskararen eremu zabalean. Euskaltzaindiaren EHA bilduman, mapa eta guzti bildurik dator, zer izen eman izan zaion euskal hizkeretan barrena.

Erdialdetik ekialdera, Gipuzkoa-Nafarroetan, zabalen dabilen izena, *morkotsa* da. Iztueta zaldibiarrek dioen bezala: «*Morkots* mardul ale gizenez ondo beteak» (*Condaira*).

Lakatza ere izen ezaguna dugu, batez ere Bizkai ekialdetik Gipuzkoan barrena eremu nahiko zabalean: *gaztaina-lakatza*, hitz elkartu gisa sarri.

Oskola eta *kirikinoa* dira sartaldean dituen beste bi izen nagusiak. Bigarren hau gaztelaniaz pizti txiki arantzadun batek, «erizo» delakoak duen izen berberaz. *Gaztaina* morkotsaren *kirikino* izenetik garatua da, oraindik ere Nerbioi haranean bizi den *kirikinausia*, '*kirikino-besia*' gordairu-izena.

Altsikatu, *gaztainak altsikatu* egiten direla esaten dute, azal zatitxo kentzen zaienean, hobeto erre edo egosi daitezen.

Gaztainak erretzeko ontziari *danbolina* | *tanbolina* esaten zaio leku askotan, herri-kantuak gogorarazten digun bezala: «Eragiok, mutil, aurreko tanbolinari!». Baina *maskelua* esaten diote Anbotopeko Atxondo aldean. Hala ziurtatu digu Jesus Eguskitza arrazolatarrak. Izendapen zaharra, edozela ere.

—Zenbaterainoko garrantzia izan dute gaztained gure gastronomian?

—Neguko janari sendoa, *sendaria* izan da gaztaina gure herrietan, Ipar eta Hego, nekazari-munduan berariaz. Kale artean ere negutean esker onez jan ohi da *gaztaina errea*. *Jakitza* gorde eta iraunarazi izan zaio gaztainari, haragia edo arraina bezainbatean, eta ez bazkalondo edo afalondoko osagarri arintzat, beste fruitu batzuk bezala.

Neguk luze jotzen zuen lehenago ere, eta luzarorako janaria behar zen, txerriki, txahalki, hegazti eta enparatuak. Gaztaina neguko jaki sendo elikatzaileen artean sartu izan da. Gaztainondoen ale ugariak estimatuak izan dira, udazkenean hasi eta negua igaro arte. Eta gaztaina-arbolak gaixoak jotzen zuenean, ezbehar garratza ohi zen etxekoentzat.

—Nola iraunarazi gaztaina-aleei?

—Nola kontserbatu gaztaina-aleak gogor eta trinko, *ikoldu* (*txikoldu*) gabe? Ondoen-ondoen morkots edo oskol barruan.

Ezagunak dira Bizkai erdialdean *kirikinausiak* deritzen egiturak, gaztaina-dietan eraikitzen zirenak. Gerri ingururainoko harrizko hesia biribilean. Barrura botatzen ziren *kirikinoak*, *morkotsak*, eta hantxe iraunarazten zitzairen luzaroago, hezetasunetik gordeta, *ikoldu* edo *zimurtu* gabe.

—Gaztainen ongarrantasunaz zer esan liteke?

—Janaritze aldetik balio handiko propietateak onartzen zaizkie gaztainedi, tradizioan baino are ugariago eta hobeak.

Kaloria gutxikoak izanik, gizentzeko beldurrik ez dago gaztaina-janaren ondorioz. Mineralak eta bitamina asko (C eta D batez ere) dituzte. Jaki trinko eta gihartsuak dira. Behin jandakoan sabelean halako *betetasuna* sentiarazten digutenak. Kontrapuntua ere badu, ordea. *Haizetsuak* omen dira, barruan *haizeak* eragiten dituzte, euren ondorioekin...

—Gastronomian gaztainak lehen izan zuen erabilera eta gaurkoa alderatuz gero...

—Gaztainak nekez jaten dira *gordinik*. Eta hala izatera ere, ondo heldurik edo ondurik. *Gaztaina erreak* aipatu ditugu arestian. Eta *egosi* ere egiten direla, *erre* ez ezik. Etxekoandre batzuek anis apur batez eta kanelaz hobetu izan dute euren zaporea.

Aparteko indarra irabazi dute gaztainedu gaur egungo gastronomian, gainbalioa erantsi zaie, tradiziokoarekin zerikusi gutxi duena. Gozo-gauzak edo janondokoak ontzeko berariaz: krema edo zukuak, mermeladak, izozkiak, turroiak eta beste. Iringintzarako ere indarra hartu du gaztaingintzak azkenaldion.

—Gaztaina-mota asko al dago gurean?

—Handi samarrak diren batzuei ematen zaizkien izenen artean bi aipatuko ditut: *ataloa* [*atalue*] esaten diote Atxondo partean gaztaina-ale handi samarrari. Nafarroa aldean Azkuek *mentolatza* bildu zuen. Damaso Intzak Larraulen-edo bilduriko esaera batek dio: «*Gaztain mentolatza*ren mokadua, arraultze gorringoaren pare» (*Esaera Zaarrak*, 23 I). Adierazgarria da «*arraultze gorringoaren pare*» dela esanez egiten den konparantza.

—Gaztainen irudia gizakion beste ezaugarri batzuetarako ere erabili izango zen, ezta?

—Badira lokuzio eta konparantza dotoreak, gaztainen giroari atxikiak.

Damaso Intzak Tolosa aldean bildu zuen esaera bat: «*Morkotsetan hazia zera zu*», biguintxo-edo hazia izan dela aditzera emateko (*Esaera Zaarrak*, 150). Azkenik, baita konparantza-esapide hau ere bildu zuen berorrek Nafarroako esaera zaharren artean: «*Errazkingo gaztaina* gorringo baten pare», gaztaina-alea arrautza-gorringoaz berdinkatuz.

Gabon-kanta ezaguna dugu harako «*Hator, hator, mutil, etxera...*» hasten dena. Eta lehen ahapaldian aipatzen dira *gabonak* batetik, eta *gaztaina zimelak jatera* bestetik. Eta hurrengoan: «*gaztainak erre artean, gaztainak erre artean, txipli, txapla, pun!*».

[14]

Hotz handia

—Hotz handiak daude iragarrita egunotarako. Euskaraz zein beste izen daukagu *hotz handia* egiten duela esateko?

—Egunotan etortzen ari den *haize hotzaren harira*, gaztelaniazko «chorro polar» entzuten ari gara, ingelesez «jet stream» deritzana izendatzeko. *Hotz* edo *haize mina* denean hotz edo haize horren *errio*, *olatu* edo *erauntsi* bortitz hori, Ipar polotik hegoalderantz burrustan datorkigun horri nola esan? *Isuri polarra?*

Hotzaren hotza adierazteko era desberdinak ditugu euskaraz. Oinarritzkoena, *hotz* izena adjektibo edo izenlagun egoki batez laguntzea da. *Hotz handia* dugu funtsezkoena, agian. *Hotzaren handiz dar-dar egon garela* ere esaten dugu. Baina entzunak dira ere, *hotz itzela*, *hotz izugarria*, *hotz bizia*, *hotz galanta* eta beste gehiago.

Hotz mina ere esaten da, hotz hori bizi sarkorra denean. Edo *hotz mingorra* leku batzuetan. *Hozmin* adjektibo modura ere erabiltzen dugu, batez ere *haize hozmina dagoela* esateko.

Tradizio idatzira bagoaz, *hotz gogorra* irakurriko dugu maiz gure klasikoan artean. Eta ildo horretan *hotzak gogortu* esapidea: «*Hotzak gogortuko zaitu hor kanpoan*». Bakanago ageri dira tradizioan, *hotz kruela* (Gazteluzar), *hotz bortitza* (Laphitz) eta halakoak.

Adnominalen artean: *egundoko hotza*, *sekulako hotza*, *itzelezko hotza*, *izugarritzko hotza* eta beste gehiago.

Errepika-egituraz ere maiz baliatzen gara: *Hotzaren hotzaz egon ere ezin!*

Eguraldiaren alderik okerreana aipatzeko, sarri jotzen dugu *-te* atzizkidun izenetara. *Elurteak*, *izozte* edo *jelateak*, *haizeteak* edo *harriteak* ohi diren antzean, *hozteak* ere badira berez, nahiz *hozte* izena gutxiago entzuna den.

Hotza haizeaz batera ageri zaigu sarri: *haize hotza*. Edo *ipar-haizea* izan ohi da hotza, herri-hizkera batzuetan *norte-haizea* ere deritzana. *Haize gorriaren* izena ere ematen zaio leku batzuetan.

Bisutsa esaten dute elurra hurretik ezagutu duten parajeetan, elur finaren eta haizearen erauntsi bortitza gertatzen denean; euri-haizeen erasoari deritzate beste inguru batzuetan.

—Hotzaren sentsazioa, hau da, hotz garela esateko, esamodu bat baino gehiago dago. Zeintzuk dira horiek?

—*Hotz* mugagabez erabiltzeko joera zaharra dugu euskaraz, *bero* izenaren kasu bera. *Hotz dago, hotz gara, hotz duzu* eta halakoak egitura zaharrak ditugu.

Hotz izena aditzaz elkartzen denean, honelako uztardurak gertatzen dira: *Hotzak hil* behar gaituela, edo *hotzak hilik gaudela* entzuten da maiz; edo *hotzak akabatzen gaudela*.

Baina hotzak zer egiten gaitu *biltzeaz* aparte? Beste zein aditzekin darabilgu? *Hotzak igaro behar gaituela* edo *hotzak pasaturik gaudela* esaten da inguru batzuetan. «Dakutsunean pobre, bilos, gose, *otzak igaro* bat» idatzi zuen Frai Bartolome idazleak (*Ikasikizunak*, I).

Hotzak gogorturik edo *gogortuak gaudela* ere maiztasunez esaten dugu.

Hotzak hartu izatea bat ere zabal erabilia da: «Kanpotik luzaroan bazabiltza, *hotzak hartuko* zaitu».

Hotzak jan ere egin dezake norbait, edo sarriago, *hotzak janda* egon daiteke bat; edo, *hotzak jaten egon*: «*Hotzak janda* zaude, sartu barrura!».

Hotzak harritu ere egin dezakeela idatzi zuen aspaldi Larramendik.

Hotzak kikilduta, hotzak kikel-kikel eginda edo *hotzak kil-kil(-kil) eginda* ere egon gaitezke. «Aurtxo zoragarri bat / or portalean / *otzak kil kil kil* datza / lasto gairnean» idatzi zuen XVIII. mendean Peñafloridako kondeak *Gabon Sariak* poeman.

Hotzak bihurturik edo *hotzak bihurriturik* ere gerta daiteke bat, soineko sendoz soinekotzen ez bada.

Eta azkenez, *hotzak sortuak* ere izan gaitezke, Larramendik idatzi zuen bezala; hau da, hotzak *sor eta lor* utzi dezake pertsona baten gorputza.

—Hotzaren inguruko esaerarik?

—Errefrauetan badira hotzaren inguruko batzuk, guztiz sustrai sakonekoak direnak. XIX. mende hasieran Mogel idazle klasikoak bildu zuen hau dugu alagalakoa: «*Otz larregia, zarren ilgarria*» (*PAb*).

Eta azaroaren azkenetan gaudenez, iragarpen antzeko hau ere eraz dator, iragarten dena ziurrenik beteko ez bada ere: «Hazila hotz, negua motz; hazila bero, negua gero» (Gotzon Garate, *Atsotitzak*, I.730). Eta aurreko horren kide dugu beste bat ere, *hotza* eta *elurra* elkartzen dituen: «*Hotza ta illune, badator elurre*» (Gotzon Garate, *Atsotitzak*, II.124). Batek jakin hala gertatuko den!

[15]

Ajea

—Gabonetan jan-edanean, batez ere, egin ohi diren *gehiegikeriek* ondorena ekartzen omen diote norbere gorputzari. *Ajea* esaten diogu leku askotan jai osteko hurrengo eguneko gorputzaldi txarrari. *Ajea* esaten al zaio leku guztietan?

—Hasteko esan dezagun irudi-izenez aipatzen dugula euskaraz ere, gehiegi edanaren ondoriozko gorputzaldi txarra.

Gaztelaniaz ere «resaca», itsas olatuek beherantzean egitean duten indarrari esaten zaio; kontuz ibiltzekoa ondartzetan. Eta bigarren adieran hartzen du gorputzaldi txarraren esangura. Alemanez eta nederlanderaz katua-
ren izenaz izendatzen da: «Kater». Euskaraz ere, *katuak hartuta* dagoela esan ohi da hordituta dagoenagatik.

Euskaraz *ajea* da beharbada hiztunen artean zabalen dabilen hitza: hasi Bizkai ekialdetik eta Nafarroaraino. Hegoaldean batez ere.

Jan-edanean neurritz eta mehe dabilenak nekez izaten du gehiegi edanak eragiten duen *ajerik*. *Ajea* gaztelaniazko mailegu hitza dugu berez: «aje, achaque» esan ohi zaio. Esanguraz, ‘gorputzaren akatsak, minak, ondoezak, ezintasuna, sortasuna’. Sarri entzun ohi da: «Zahartzaroko *ajeak* dira horiek».

Azkuek Baztanen beste adiera batez jaso zuen, esaldi honekin batera: «Nahi duzun bezin gizon ona da; bainan tanta laket duelakotz menosten da: *ajea* du edanera». Hots, *joera*, *lera*, *jita* edanera.

Justo Mokoroak bere lokuzioen artean jasorik dakarren esaldia da: «Jai-bigaramuneko *ajeaz* begiak ere txiki eginda zegoan».

Toribio Etxebarria eibartarra dugu, bere hiztegian *ajearen* azalpenik politenatarikoa damaiguna. Hauxe dio: «Mal cuerpo y mal gusto de boca que sigue a los excesos báquicos». Esaldi honen bidez on egiten du argibide hori: «Ajia osatzeko berriz edan ezkeror, “ajian ajia”, esaten daben letz, “ajerik txarrena”» (Toribio Etxebarria, *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*). «*Ajearen ajea*, *ajerik txarrena*», hartara.

Aje izenaren indarra eta emankortasuna, hitz horren inguruan garatu diren eratorri eta elkarkuntzetan ageri da. Eratorri bat: *ajedun* adjektiboa: «Patxarra, *ajedun* edarixa». Izen elkartu bat: *aje-egun*: «Jai-egunaren biharamuna, *aje-eguna*».

Aje-umeak ere ba omen dira. Azpeitiko Loiola inguruan jasoa da *aje-ume* hitza. Informatzaileak halaxe esplikatu ei zuen beronen zentzua: «*Hauek dira gure “aje-umeak”, ingelesek dioten ‘los hijos del sábado’, alkobolez ondo beteta sortuak*». Iruñean «*ferminikoak*» ohi deritzen berberak.

—Beste izenik bai jai osteko gorputzaren egoera berezi horri euskaraz esateko?

—*Bibaramuna* | *biharamona*, eta [*bihamona*] ahoskatuta askok. Hau ere zabal entzuten den hitza dugu. *Bibaramuna eduki*, esan ohi da. Azkuek hara nola definitu zuen: «Malestar del cuerpo o desmadejamiento después de un día de extraordinario».

Hitzaren bigarren adiera dugu hau ere, *ajearena* bezala. *Bibaramun* izenaren oinarritzko esanahia, lehenengoa, '*burrengo eguna*' dugu. Urteko egun seinala-tuekin erabiltzen da batez ere. *Eguberri biharamuna* edo *Gabonzahar biharamuna* | *biharamona* aipa daitezke aldi honetan. Edo klasiko moderno baten hitzetan: «Egun hartan, *Santiago biharamona*, auzoerri bateko erromeria izaten da» (Eusebio Erkiaga, *Arranegi*). Hitz horren jatorria, [*bihar* + *eguna*], Koldo Mitxelenak aspaldi seinalatua.

Eta irudizko esanguraz, parranda osteko hurrengo egun horretako gorputzaldi txarra adierazteko, *biharamuna eduki* esan ohi dela esan dugu hasieran. Ekar ditzadan adibide bi. Lehenengoa, Toribio Etxebarria eibartarraren hitzez: «Egun zoruen ondoria, *biaramona* eta korputzaldi zatarra». Eta bigarrena, Juan San Martinen idatziz: «*Zorioneko bixamona*, gau guztikua bota eben plaentxiatar biena» (*Zirikadak*).

Balentin Enbeita bertsolaria dugu bere bertso batean *biharamun* izenaren esangura biak ondo josi dituen: «*Biharamonian* / sendo gorputzian. / Nahiz biamona euki / polita aldian, / edanaren kezkarik / ez da bihotzian» (*Nere apurrak*).

—Eta ematen zaio beste izenik parranda egin ondoko egun horri?

—*Ostea* esaten zaio Bizkai erdi eta sartaldean. *Ostea*, denbora eremuan, *osteko eguna* da, hurrengo eguna. Azkuek Plentziako berbetan bildu zuen adiera hau, argibidetuz: «Mal cuerpo al día siguiente de una francachela». Baina Bizkai erdialdean ere *ostea* esaten da: *ostea eduki*, *ostearekin egon*, *ostea kendu ezinik*

egon eta abar. *Labayru Hiztegiak* esaldi batez girotu du hitzaren adiera hau: «Atzo asko edan eta gaur *osteagaz*».

Bestondoa —hau da, *festondoa*— esaten diote Nafarroan eta Iparraldean leku anitzetan: *bestaren ondoa*, funtsean. Mariano Izeta idazle baztandarrak esaldi batez lekukotu du adiera hau, gazte batengan pertsonifikaturik: «Gazteak, astelehenero bezala, *bestondo* pixka bat ere bazuen» (*Dirua galgarri*).

Mozkorrondoa hitza ere erabiltzen da leku batzuetan gorputzaren edan osteko egoera horrentzat.

Amaiatzeko, *iltzea* | *untzea* ere aipa ditzagun, gaztelaniazko «(tener) un clavo» deritzanaren bidetik egokitua.

—Eta osagarririk ba ote da, *ajearen* gaitzari erremedioa emateko?

—*Ajea* kentzeko erremedioak asko dira beharbada. Baina bat, J. Martin Elexpuru idazleak Bergaran aspaldi bildu zuen harakoa: «Ajia pasatzeko dagonik onena berakatz-saldia» gomendatu zion lekuko batek. Hala ote da?!

2021-12-27

FAKTORIAKO GEZIAK

IV ATALA

[2022. urteko testu-bilduma]

[1]

«Otsaila, katu-hila»

—Katuak miauka hasiak daude urtarilaren azkeneruntz edo otsailaren ateetan. Katu-emeak katarrari deiez bezala jarduten du sexu-harremanetarako gogo duenean. Zer izen dugu euskaraz horri esateko?

—Katuak *miauka*, *marmar* edo *marraka* | *marraoka* hasten direnean, eta lorik egiten uzten ez digutenean, erdal hitzez «zeloan» daudela iragartzen dute. Katarrari deiez.

Urtearen bigarren hila, otsaila, animalia-izenekin lotura estuena duen hila da. *Katuila*, edo *kataila*, ez da hilaren izenik ezagunena, baina bai *otsaila* esaten dutenek, zein *zezeila* esaten dugunok, *katuaren* aipua hitzetik hortzera darabilgu hil hau dela-eta. Euskaltzaindiaren EHHA atlasetik bilduak dira: «*Zezeila katuen hilla*», Berrizen. «*Otsailla kato hilla*», Zestoan. Beizaman jasoa da beste hau: «*Febreron katarran ixkanbilla: febreron izaten dala horreen festa*». Eta Nafarroa Behereko Gamarten hau bildu zen: «Otsaila gati en ilabatia da, eta emaztena ere erraiten dute: urtharrila gizonena, otsaila emaztena».

Katua arreske edo umeske dagoenerako, hitz espezifikorik ez dugu erabiltzen euskaldunik gehienok. Hegoaldeko euskaldun bati galdetu, eta normalean hitz generiko batekin erantzungo dizu: *bero* dela, edota *arreske* edo *umeske* dela.

Iparraldeko barnealdean aiseago erantzungo dizute katua *ohara dela*, edo aldaera bidez *ogara*, edo laburturik, *oga dela*. Nafarroan ere gorde da hitz zahar hori. Eta Bizkaiko hizkera batzuetan ere bai. Azkuek Orozkon, Gernikan eta beste herri batzuetan jaso zuen, katua *ogara* izatearena. Baina hizkera horietan, *txakur-emea* bero denean ere berdintsu esaten da, *ohara*, *ogara* dela.

Susma daiteke, *ohara* —edo *ogara*— hitz eratorri horren azpian *ora* hitza dagoela: [*ora* + -ARA]. Hala bada, katuarenetik barik, txakurraren beroalditik sortua dateke hitz hau.

Baina katu-emea dela eta, bada beste hitz gardenago bat, Nafarroaren ekialdean —Jaurrietan— gorde izan dena: *katakara*, -KARA atzizki eta guzti. Nafarroako beste leku batzuetan *katakera*, -ERA atzizkiaz.

—Eta beste animalien beroaldiari nola esaten zaio?

—*Txakur-emearen* egoerarako izen bat baino gehiago ditugu euskaran barrena. Bizkaiko Arratia aldean gorde izan den bat, txakurra *agi* dela esaten da. Baina *agi izan* edo *agi egon*, hainbat lekutan beste animalia batzuentzat ere erabilia da; katuentzat ere bai. Baina oro har, Azkuek esangura zabalagoa aitortu zion *agi* hitzari bere hiztegian: «(V-arr), celo de la yegua, burra, per-
rra y gata».

Txakur-emearen kontura, *ozal dela* edo *ozal dagoela* ere esaten da —*otzal dela* aldaeraz—. *Obara* edo *ogara* hitza, txakurrentzat, Iparraldean ez ezik, Nafarroa aldean ere guztiz ezaguna da: *obara* edo *ogara* *dabilela* txakurra. Zuber-
beroan bildua da hurrengo esaldi hau: «*Hogara diik bo borin*» (Larrasket).

Ardien beroaldia dugu, behienarekin batera, ezagunenetarikoa. Ardia euskaldunen bizimodu zaharraren lekuko ziurra dugu, Neolito garaitik gu-
txienez gure artean dugun giberria delako batez ere. Ardien gorabeheran, hitzik ezagunena, ongi dokumentatua eta idatziz ere oparo erabili izan dena, *arkara*, edo *arkera* dugu: *arkara* ekialdean, *arkera* erdi eta sartaldean. Egoera ho-
rretan jartzen denean, *arkaratu* egin dela esaten da.

Zehaztasun jakingarriak dira, M. Elexpuruk Bergara aldean artzain ofi-
zioko lekuko bati jasoriko esanak, ardiak *arkara jartzen* direnerako. Behin
dio: «Lelengo bat bakarrik botatzen dot ardixetara, ezta? Baiña geo ardirak
mordua dabizela *arkera* ikusittakuan ba bi botatzeittut». Eta beste behin:
«Agostuan amarrian, olaxe lagatzeotsat aarixai ardixetara, da orduantxe as-
ten die *arkerak*».

Hitz hori *abuntzak* direla eta ere erabiltzen da, *abunzkara* askoz urriagoa
delako erabileraz. Ondorioz, lekurik askotan *arkara* eta *arkaratu* hitzekin es-
taltzen da ahuntzen gorabehera ere.

Behorren eta *astoen* gorabeheran, *ibel* edo *igel* dugu euskara eremurik zabale-
nean ageri den hitza, Gipuzkoan eta Nafarroan. Baina Iparraldera bagoaz,
aldiz, *giri* dela edo *giritu* dela behorra, esan ohi da. Eta Bizkairik gehienez,
alta dagoela.

Zuberoa aldean Larrasketek bildu zuen hitz elkartu eder bat: *arkharagi*,
arkara eta *agi*, geminatu semantiko gisa hitz elkartu bakarrean bilduta.

Oñati aldean gorde da hitz zahar polit bat behorren kontura: *uxal* dagoela
behorra esaten da. Leku batean baino gehiagotan esaten dute, astoari *alta*
dagoenean erraz antzematen zaiola, baina behorrari ez omen zaio hain erraz
igartzen. Getxo aldean generiko batekin bildu izan da: «*Zaldigana* dauzela,
zaldiguran dauzela...»; *zaldigura(n) egon*, horixe da lokuzioa.

Behiena da, hiztunik gehienentzat, ezagunena baserritarren artean. Behia, edo biga —edo bigantxa— gaztea, *susara dela*, edo *susara jarri dela*, edo *susaldu* egin dela, edo *susaratu*. Hitz hau ganadu-eremu zehatzagoan darabilgu, ez hitz orokor gisa. Hala aitortu zigun aspaldi Iztueta idazleak: «*Susara* dago esaten bada, gauza jakina da abelgorria dala» (*Condaira*).

Zelan antzematen den behia *susara dela*? Behia edo biga gaztea landan beste bati *gainka hasten denean*, ezagun da *susara dela*. Beste ezaugarri bat ere izaten dute behiek. Bits moduko isurgai likina botatzen dute atzetik: «*Sitsak botatzen dituela*» esaten zaio horri Atxondon, berbarako.

Txerri-eme baten kontuan, *urdama* edo *txerrama irausi dela* esan ohi da, eta sartaldean *irusi dela*. Kasu honetan ere izen berezia du txerrien beroaldiak. *Txerri-makera irastu* edo *irustu* egin dela esaten da arreske sumatzen denean.

Antonio Zavalak *Auspoako* bertso-liburuetariko batean honako bertsoa dakar jasorik: «Nere etxian beia susa da, / txerria berriz *irausi*; / astua ere arrantzaz dago, / igeltzen ote dan asi. / Zakurra ere alta zegon da / joana degu igesi» (*Noeren ontzia*).

—Izen generikoak...

—Animalia bat baino gehiagorentzat, edo era orokorragoan erabiltzen diren hitzen artean aipa daitezke honako batzuk. Hitz hauek, eratorriak edo elkartuak oro har, adverbio kategoriakoak izan ohi dira, izen kategoriakoak baino askoz sarriago. Aipa ditzagun hurrengoak:

- Atzizki bat dugu euskaraz, ia eremu honetarako espezifiko modura gorde dena, eta animalia diferenteen oin-izenei erantsirik ageri ohi dena, beroaldi-egoera hau aditzera emateko: -ARA atzizkia, Hegoalderik gehienez -ERA bezala darabilguna. Horrela eraikiak dira gorago aipatu diren *arkara*, *abunzkara*, *ohara*, *susara* eta *katakara* hitzak.

- *Eske* bigarren osagaitzat dutenak, berariaz *ar* eta *ume* bigarren osagaitzat dutela: *arreske* eta *umeske*.

- *Bero* adjektiboa, baina aditzarekin multzo eginez, zabal eta animalia askorentzat erabiliak dira, *bero egon* edota *berotuta egon* bezalakoetan. *Ardi beroa* esaten diote Nafarroako herri batzuetan *arkara* dagoen ardiari. Orixek *Euskaldunak* poeman dioen bezala: «Iges, elkarren billa doaz utzi-aala, / *ardi-arkera* (ardi-beroa) alboan baleuke bezala».

- *Gori* adjektiboaz eraikirik, *gori izan* multzoa ere bildu da Nafarroako Jaurrietan. Eta Iparraldean eremu hedatuan esaten den *giri izan* aditz-lokuzioa ere etorki berekoa ote den nago.

- *Altan izan, altan egon* edo *altan jarri* aditz-lokuzioak hainbat lekutan asto eta zaldien beroaldirako erabiltzen direnak ere, berez orokorragoak dira. Toribio Etxebarriak Eibarko hizkeran txakurrentzat aipatu zuen zehazki: «*Altan egon*. ‘Se dice de los animales que están en la época de celo’. *Ataiko txakur-emia altan dago, eta barruan lotu biarko dogu*: “La perra de la puerta está en celo”». «*Altan jarri*. ‘Entrar en período de celo’. *Gure Argitxo, altan jarri da laugarren umegintzarako*: “Nuestra Argitxo ha entrado en celo para su cuarta criadera”».

- *Gura* edo *guran* abere-izenari atzean erantsita, aurrekoa baino askoz murriztagoa eremuz eta erabileraz. Lehen osagaitzat *ar* eta *zaldi* edo *asto* dutela eraikiak dira: *argura* eta *zaldigura* edo *astogura* (*egon*).

- *Gose* bigarren osagaitzat hartuta sortua da *argose* hitza ere, Bizkai-Gipuzkoako leku batzuetan erabilia.

- Geminatu semantiko modura taxaturiko izen-elkarketak gogoratuko ditugu azkenez, berariaz Iparraldeko hizkeretan ezagun izan direnak. Haue-tariko gehienok *arkara* dute lehen osagaitzat, bigarrena aldatzen delarik. Goian aipatu dugun *arkaragi* hitzaz gainera, lerroka daitezke haue-tariko batzuk ere: *arkhara-beusi*, beste era batera esanda, *arkara-irusi*. Eta horren ildoan garatu diren besteok: *arkhara-hogara*, hau da, *arkara-obara* —eta honen aldaera den *arkara-ollaka*—, eta *arkara-susa*, *arkara-susara* delakoaren era laburra.

—Idazleen lekukotasunik bai?

—Bat aipatzekotan, Iztueta zaldibiarrek pasarte bakarrean, animalia «umeske» egotearena lau hitz printzipalez bildu digu: «“*Arkera*”, “*susara*”, “*yel*”, “*irausi*”, *lau izen bakar oetatik dakite euskaldunak, ardia, beia, beorra, edo zerria dan ume-eske da-goena*» (Condaira).

[2]

Azanoria

- Inguruko hizkuntzetan zer izen ematen zaio *azanoriari*?
- Latinetik hartua dute inguru-hizkuntzarik gehienek izena. Grezieraz «karo-to(n)» zen eta latinez «carota». Hortatik datoz frantsesez «carotte», italianeraz «carota» edo alemanez «die Karotte». Baina Penintsulako izenek beste etorki bat dute, euskararekin batera: gaztelaniaz «zanahoria», galegoz «cenoria» eta portugesez «cenoura». Katalanaren «pastanaga» ere beste erro batekoa dugu. Eta alemanak eta nederlanderak euren sustraiko hitzez ere baliatzen dira: «Wurzel» eta «Wortel», hurrenez hurren.
- Euskaraz izen diferenteak eman zaizkio, *azenario* ezagunaz gainera, ezta?
- Mailegu-izenez baliatu da euskara batez ere. Iparraldean frantses etorkiko maileguak erabili izan dira: *karota*, *karrota*. Sukaldaritzan: «Xeha zatzu hirur tipula, hirur *karrota* [...]» (*ECocin*, II). *Pastana* ere bai: «Ez da harritzeko Gaztanbideren baratzeak hoin aza, *pastan*, biper, porru eder eta finak ekartzen baditu!» (*Gatzitegi Herria*, 1957-09-19). *Pastanagrea*: «Egosarazazu ongi *pastanagre* eta phorruekin» (*Ecocin*, 9). Eta zenbait aldaera gehiago.
- Hegoaldean *azenarioa* dugu era nagusia, han-hemengo aldaerekin. Bergaran adibide hau jaso zuen M. Elexpuruk: «*Azenaixia* oso ona ei da bistarako». Baina seinalagarri dira beste izendapen batzuk ere. Deigarri egiten da, Arabako Lautadako euskara zaharrean (xvi. mendea), Landuttiok jaso zuen *txafaiñoria* ere. Azkuek Uribe Kostako berbatzat lekukotu zuen *arbi gorria* izena; ustez *azenarioa* izendatzeko. Eta Orozkoko hitz bezala *txiribiria*, argibide honekin: «‘cerafollo’, cierta hierba que se come en ensalada, parecida a la zanahoria», baina argiro oharturik ez dela gauza bera. *Dauko* izena ere jaso zuen Londresko eskuizkributik, azalpentsat ‘zanahoria silvestre’ ematen zuela. Eta azkenik, *erregina-belarra* Kortezubin: «*Erregin-bedarra*, umbelífera parecida a la zanahoria».

—Zein dugu beraz *azenario* izenaren etorkia?

—Hegoaldeko euskarak gaztelania zaharreko «çahanoria» hitzetik hartu zuen izena, eta hark Penintsulako arabiera zaharragotik: «safunn‘rjah».

Oihenart eta Larramendi garbizale handiak izan ziren, hitz honen jatorria euskararen ur gardenetan bilatzen eta sustraitzen leihatu zirenak: «Zanahoria (H[ispanice]), ‘radix pastinacæ’, quæ plerumque lutei est coloris: (V[asconice]) *zan-boria*, ‘radix lutea’» (Oihenart, *Notitia*). Iztuetak ere bide horri ekin zion: «Tomate leun mamitsuak, *zainbori* bikain lodiak» (*Condaira*). Hala bada, azenarioaren koloreari antz emanez, euskararen ukitua eman zaio hitzaren aldaeretariko batzuetan *bori* finkatuz. Hara, sukaldaritzaren errezeta baten aspaldiko hitzak: «Salsa zuria mantekan prejitutako tipula, baratzuri ale bat eta *zabori* pixka batekin egiten da» (*Cocinan*, 7). Halaxe hedatu dela dirudi, *azenario* izenaren osagai zaharrak *zain* eta *bori* direlako ustea, eta sarri gertatu ohi den bezala, usteak erdia ustel. «Zerbitzari» lapurtar idazle bikaina ere sinetsirik zegoen horrezaz, idatzi zuelarik: «Norbeitek erran daukunaz, pastenagriari *zainboria* erraten omen diote. Segur bagine, ez da den gutieneko dudarik izen hori hautatuko ginukela landare hunentzat. Ezen eskuara othe da pastenagria? Nekhez» (*Gure Herria*, 1932, 520).

2022-02-17

[3]

Neba

—Isabel Ayuso Madrilgo presidentea dela-eta, «*Isabel Ayusoren anaia*» izan da berbagai lehengo astean. Eta zenbait entzuleren kexua: *anaia* ala *neba*?

—Aspalditik datorren auzia dugu *neba* bezalako hitzarena. Antzeko auzia da *atzamar* eta *behatz* izenen artekoa ere. Eta beste gehiagorena.

Gurasoen azpi-belaunaldikoen izenak, goitik ikusita *seme-alabak* dira.

Baina zelan izendatzen dira azpi-belaunaldiko odolsideak euren artean? Sartaldeko hizkeretan, Bizkaikoetan, *neba-arrebak* direla esango lukete, eta hortik ekialderantz, *anaia-arrebak* direla esaten dute gehienek. Baina sexua bereizi barik, izen orokorrago, neutroago batez ere izendatu izan dira. Hizkera batzuetan, *senideak* direla esan ohi dute. Gogoratzen al duzue X. Letek aspaldi kantatzen zuen harako: «*Zazpi senideko* famili batean arotza zen gure aita», Oiartzungo herri-kantu bateko hitzak? Eta Iparraldeko hizkeretan zabal dabil *haurride* hitza ere, anaiak zein arrebak batera biltzen dituen hitza. «*Aurbide* biren alhor artean ungi dago zedarria» jaso zuen *Proverbs* erretraubildumako aleetariko batean Oihenartek (*Proverbs*, 55).

Sartaldeko hizkeretan sexu-banaketaren araberrako izenak xeheago markatuak direla dirudi: *anaia*, *arriba*, *abizpa* | *abizta* eta *neba*. Lehenengo hirurak ezagunak eta berdintsuak dira euskararen eremu osoan. Baina bizkaieraren eremuan gertatzen da *anaia* / *neba* partiketa edo bereizkuntza.

Eta izen bi direnean, jeneralean, esanahi-diferentziaren bat dagoelako gertatzen da, eta ez kapritxo hutsez. *Neba* darabilgunontzat ez dute eremu bera betetzen *neba* eta *anaia* hitzek. Biak dagozkio sexuz *arra* den odolsideari, *arriba* eta *abizpa* emea den bati dagozkion bezalaxe.

Izenon arteko diferentzia non datza? Zein sexukoren ikuspegitik egiten den izendapena, bata edo bestea izango da. Gizonezko batek sexu bereko senide odolekoari *anaia* deituko dio, eta beste sexukoari, emaztekiari, *arriba*. Emakumeak, aldiz, odolekoa duen emaztekiari *abizpa* | *abizta* esango dio, eta gizonezkoa denari *neba*.

Neba esaten ez den eremuan *anaia* hitzak beregandu ditu eremu biak: bai emakumeak, bai gizasemeak, odolekoa duten gizonezkoari *anaia* deitzen diote.

Non esaten da *neba* gaur egun? Bizkaia osoan, Ondarroa kenduta. Baina denboran atzera joanez gero, eremu zabalagoa hartzen izan duela *neba* izenak nabaria da: Aramaion eta Oñatin, esaterako. Eta gaur transmisio-eus-kara galdua den Arabako goi Llautadan ere halaxe zen. Lazarraga poeta Salbaterra-Agurain aldekoa zen, eta halaxe zerabilen: «Emaiten dau firmadurik / konklusioz: “zerzera berzerea, / *nebeaz* bear dala terzerea”» (Lazarraga, II85vb.). Eta Otxandio-Oleta-Legutio inguru horretako arabar hizkera bizian ere bizirik iraun du *neba* hitzak.

Bizkaierazko klasikoen artean ere *neba*, *anaia* eta *arreba* ondo bereizi izan dira. Hara Frai Bartolome idazleak: «Moisen *arrebeak*, emakumearen burutazinoe arinak, aizetsuak ta zelotsuakgaiti gaizki juzgau [eban] bere *neba* karidadetsua ta zuzena» (*Ikasikizunak*, II).

Baina gipuzkera garbia izan duten idazle moderno batzuek ere atxiki diote *neba* hitzari. Nemesio Etxaniz idazle bikainak, adibidez.

Pluralez aspaldi zaharretik esan izan da *neba-arrebak*. XVI. mende goiztiarrean Frai Juan Zumarragako fraide durangoarra honela zuzendu zion bere Muntsarazko jauregian bizi zuen arrebari: «Orain bada, ene *arrebea*, fraideon ostatuori, zure alabaen etse jauxi orri urgatzi bear deusagu; eregi bear dogu zuk eta nik *neba-arrebaok*».

Elizetan, sermoi edo prediku hasieran deia edo agurra beti egiten da: *anaia-arrebak*, *anaia-arreba maiteak* eta abar, baina ez da ahaztu behar, gizona izan dela predikua zuzendu izan duena. Emakumea balitz, eskubide osoz esan ahal izango luke: *abizpa-neba maiteak*.

—Bada kezka bat, dirudienez, bizkaierazko hainbat hitz edo esapide galtzen edo lausotzen ari ote diren eredu estandarren erabileran. Zer da kontuan hartu beharrekoa, albo- edo bazter- hizkeretako baliabideak eredu jasoan aintzat hartuak izan daitezen? *Bizkaiera* horretakoak, adibidez?

—Hizkera landuan sarrera ematea, hiztun naturalen artean maiztasun handikoak diren hitz eta esapideei. *Bizkaiera* hitza ez dut gogokoegi. Nahiago izaten dut gure euskal hizkera nagusiak izendatzeko *sartaldea*, *erdialdea* eta *ekialdea* erabili, azken batean euskararen hiru hizkera multzo nagusiak horiek direlako, eta gaurko errealitateari hobeto doazkionak.

Juan San Martin euskaltzaina eibartarra zen, eta kexu agertzen zen orain dela aspaldi, sartaldeko euskalkiari *bizkaiera* deitu beharraz. Bera eibartarra

baitzen, eta ez bizkaitarra beraz, baina bai sartaldeko hizkera bateko seme eta erabiltzaile.

Badira kazetari eta idazleak gaur egun, euskara molde diferenteen ardura eta kezka bere gain hartua dutenak, eta euren jardunean sartaldeko hitzak erabiltzen ahalegintzen direnak. Ez dut izenik emango, baina txalotzekoa da egiten duten ahalegina.

Zeintzuk eta zelakoak izan daitezke, sartaldeko hizkeretatik hizkera jasoa erabiltzea merezi duten hitz eta esamoldeak? Ez da hau lekurik egokiena, errosario luze bat kordatzten hasteko, baina adibide gutxi batzuk emango ditut, burura etorri ahala, erdi sailkatuta:

- Aditzetan: *jausi* (erori); *ailegatu*, *heldu* (iritsi); *gura izan* (nahi izan); *apurtu* (puskatu); *jardun*, *dibardu*...; *ibili*, *dabil*... (ari izan); *berba egin* (hitz egin); *izartu* (esnatu).
- Adberbioetan: *hur* (hurbil, gertu); *zelan* (nola) > *zelako* (nolako).
- Adizlagunetan: *alboan* (aldamenean); *baren alboan*...
- Perpaus adberbioetan: *Jakina!* (noski).
- Atzizki berezi batzuk: -RREN (*lotsarren*, *pozarren*, *bildurrarren*); -RO (*geldiro*, *astiro*); -TO (*ederto*, *polito*); -BAKO (*ardurabakoa*); -GINEN (*egurginen*, *etxeginen*, *hormaginen*).
- Postposizio batzuk: *barik* (*ardura barik*); *bara* / *eta bara* (*jan eta bara*, *etorri eta bara*); *lez* / *lako* (*betiko lez*, *esandako lez*, *gura den lez*, *zeurea lakoa*); *eran* (*komeni den eran*).
- Gizaki-izenak: *aitita-amamak* (aiton-amonak), *neba*.
- Eguraldi-izenak: *leia* (izotza, jela).
- Neurri-izenak: *apur bat* (pixka bat).
- Elikagaiak: *berakatza* (baratxuria), *mailukia* (marrubia), *indiabak* (babarrunak).

2022-02-25

[4]

Tipi-tapa

—*Tipi-tapa, tipi-tapa*, oin-hotsen errepika-hitz sonatua...

—*Tipi-tapa* edo *ttipi-ttapa* eta beste errepika-hitz mordoa oinez ibiltzean darabagun erritmoa, pausoen neurria edota oinez dabilen hori nagusia edo haurra den hobeto zehaztu nahian sortutako hots-hitzak dira. Ibilian doanak oinekin behea jotzean, oin-hotsaren indar eta erritmoaren arau, oin-hotsen imitazioz hitzunok sortutako hitzak, hots-hitzak.

Tipi-tapa dugu, beste hainbat soinu-jokoren artean, *Korrikak* aspaldi beregin zuena. Bustiduraz ere ahoskatua: *ttipi-ttapa*.

Oinez ibiltzearen adierazgarri diren hots-hitzok hiru edo lau ezaugarri nagusi izan ohi dituzte orokorrean:

1) Kontsonanteen bitasun-jokoa batetik; bokal diferenteen dantza, bes-tetik. Kontsonanteak T eta K; bokaletan, ia beti, I-A bokal alternantzia: *tipi-tapa, tiki-taka*...

2) Hainbatetan bokal beraren errepika, kontsonanteak bereiziak direla. Gehienetan: A-A errepikaturik: *tapa-tapa, taka-taka*. Baina A ez ezik, I, O edo U bokalena ere bai hizkeretan barrena: *txiri-txiri, txoko-txoko, ttuku-ttuku*.

3) Silaba eta hotsek, errepikatzean, elkar dirudite; bata bestearen oihartzun izan ohi dira.

4) Hots bustien, kontsonante bustien joko adierazkorra, berariaz txikinen pausoak direnean, edo pauso bizkorra adierazi nahi denean, edo bestelako adierazkortasun-puntua erantsi nahi zaionean ibilian ibiltzeari. Batzuetan ume txikienak, beste batzuetan nagusienak, pauso labur bizkorrak sarri.

Kontsonante bustiekin egiten den joko honetan gradu bi dira. Lehena TT bustiarena. Hots, hitzaren lehen silaba *tta, tti, tto* edo *ttu* izan ohi da; nekez ageri da *tte*, ordea. Hala ehoak dira, bokal bereko diren hauek: *tapa-ttapa, ttanpa-ttanpa, ttuku-ttuku* edo *ttoko-ttoko*. Edo bokal bikoitzaz jokatzan duten *ttipi-ttapa* eta kidekoak.

Bigarren gradua, bustidura bortitzagoaz markatua da: *txa*, *txi*, *txo*. . . Umeen hizkeran jazotzen da berariaz bustidura-puntua urrunago eramate hori hiltunen berbeta-mintzoan. Hala garatuak dira: *txaka-txaka*, *txiri-txiri*, *txoko-txoko* edo *txapa-txapa*. . . Iparraldean: *totxi-totxi* guztiz ezaguna dugu, batez ere Nafarroa Beherean.

Tapa-tapa dela-eta Azkuek dio: «Onomat. de la acción de andar a paso corto y ligero», erritmo bizian ibiltzea. *Egan* aldizkaritik harturiko esaldia: «Goizean-goiz oe beroa utzirik, *tapa-tapa* ibilian jarri zan» (*Egan*, 1958).

Tiki-taka eta *taka-taka* ere, pauso bizkorraz ibiltzeari lotuak daude. «*Tiki-taka*, *tiki-taka* saltzera zijoala» (Azpeitia). Pertsonena ez ezik, zamarien pausoari ere aplikatu izan zaio sarri, astoen ibilerari berariaz: «Arre, arre, astoa! *Ta tiki-taka*, *tiki-taka* laster egoan trabenako atietan» (Felix Bilbao, *Ipuin Barreka*).

Txiri-txiri sartaldeko hots-hitza dugu bereziki, emeki-emeki baina eten-gabe ibilian edo zerbaitetan jardutea adierazteko. Eibarren Toribio Etxebarriak behinola bilduriko aho-korapilo bat eraz datorkigu. Hala dio: «Banoia *txiri-txiri*, txara txikira txoritara» (Toribio Etxebarria, *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*).

—Eta hots-hitzetatik hitz gardenetara-edo joanda sortu ote ziren *korrika* eta halako hitzak?

—Hala da, bai. Ibileran pausoa bizkortuz doan heinean, hots-hitzetatik hitz gardenetara igarotzen da gure erregistroa. Hala finkatu dira, besteak beste, euskararen erdialdean nagusi diren *korrika* eta *korrikan* —edo *korri* soilik— adberbio tankerakoak. Ez bakarrik erdialdean. Bermeon ere *korrian* entzuten da, eta Iparraldeko Lapurdi aldean ere *kurri*, *kurritu* aditzaz baliatzen dira anitz.

Erdialdean ezker-eskuin, hitz nagusi biren inguruan josten dira kontzeptu honentzat garatu diren formulak. Sartaldean *arin* eta sortaldean, ekialdean, *laster*.

Sartaldeko formulen artean aipa daitezke: *arin*, *arin egin*, *arineketan*, *aringa* edo errepikaz *arin-aringa* eta *arin onean*.

Bizkaitik Gipuzkoara jauzi egin ahala, Deba eta Urolako parte batean, *antxintxika* dugu hitzik ezagunena. Ume-jolas baten sorrera duen hitza: *atxi-atxika*, nork zein harrapatu.

Ekialdeko partean, bai Nafarroan, bai Iparraldean, *laster* adjektiboaren inguruan bilbaturiko hitzak ditugu: *laster egin*, *lasterka*, *lasterkatu*.

Sartalderengo hizkeretan badira beste erro bateko hitzak ere: *karraderan* edota *karran* dira Uribe Kostan, Txorierrin eta Nerbioi aldean oraindik ere entzun daitezkeenak; oinarrian *karreran* joatea datza. Eta Arratian, *galapaka* (<*galopaka*) edo *galapan*, eta *galapaka* egin edo *galapan* egin dira erabiltzen direnak.

Debarbarrean eta Urola aldeko hizkera batzuetan *saltoka*/*saltaka* entzuten da *korrika* joatea aditzera emateko.

—Aste Santuko prozesioetakoei ere *pausoak* esaten zaie.

—*Prozesio-pausoak* esan izan zaie batez ere. Izango dira beste izenen batzuk ere, baina *pauso* mailegu-izenaz aipatu izan da, batez ere. Hiztegiren baten irakurri dut: *Pasio-irudiak* deitzen zaiela ere, baina tradizio laburreko izena da, nolanahi ere.

Oina ere erabili izan da *pausoa* aditzera emateko: *oinak* eta *oin-hotsak*. Eraz dator harako Lizardiren bertso ahapaldi ezaguna, lelo gisa erabilia: «*Hots! hots!*, bizioin oinok!».

Gehitu daiteke ere, *pauso* geldoak izaten direla Garizuman Guruzbideko prozesiokoak, *pauso* labur-baratzak; geralditik geraldira egiten den oinbidea *baratxe*, *emeki*, *ezarian*, *geldi-geldi*, *poliki-poliki*, *astiro-astiro* egiten delako.

2022-04-07

[5]

Putero ala putazalea?

—Prostituzioaren legea aldatzeko urratsak egin dira Madrilgo Parlamentuan. Eta horren harira agerira etorri den hitza «putero» dugu, hau da, putetara bezero bezala doanari ematen zaion izena. Euskaraz *putazale* izan daiteke?

—Konplexurik gabe erabiltzeko moduko eta erabili beharreko hitza dugu *puta*, batez ere izen-kategoriaz darabilgunean, baina baita adjektibo gaitzesgarri gisa darabilgunean ere.

*Put*a hitzak tradizio zahar eta ondo sustraitua du euskaraz, inguru-hizkuntzetan duen bezala. Ez beharbada erlijio generoko saio eta idatzietan; ugariagoa da, jakina, literatura profanoan. Hala nola, Oihenarten *Atsotitzak* bilduman, besteak beste, honako testigantzak aurkitu ditugu: «448. Tusto du irabazten, jokoa eta *putak* dituenak ahazten»; «484. Ama, aitzint zazkio ‘puta’ deitzera. “Hori erraiten zion *puta-alaba* batek bere amari, ama berze emazte bateki aharratzean”».

Herri-hizkeran, hizkera arruntean erabilera askoz ugariagoa izan du *puta* hitzak, edo bere soilean, edo elkarkuntza-eratorikuntza bidez erabilia. Garakuntza horren lekuko diren hitz elkartu eta eratorri batzuk gogora ditzagun.

Izen elkartuen artean, guztiz ezagunak dira: *puta-seme*, *puta-alaba*, *putakume*, *puta zahar*, *putetxe* bezalakoak, eta ez hain ezagunak, beharbada: *puta saldu* edo *puta-estalki* bezalakoak, gure literaturan erabili izan direnak.

Eradorrien artean, ohikoa da: *putakeria* hitza, maizago pluralez darabilguna: *putakeriak* (*egin*), *putakerietan* (*ibili*). Ezaguna da *putanga* hitza ere, izen edo adjektibo modura emakumeei buruz modu gaitzesgarrian erabilia. Atzizki txikigarri hori, -NGA delakoa, beste eratorri batzuetan ere ezaguna da genero femeninoan: *zoranga*, *urdanga* eta beste batzuk ohi diren bezala.

Ildo horri jarraiki, putetxeko bezero ohikoa *putazale* dela esatea era gardena eta ulergarria da. Eta ildo beretik, *putazain* izatea dela esango genuke, puten babesle (edo jagole) denaren ofizioa.

—Euskararen sustraiko hitz gardenagoak ere izango dira, ezta?

—Euskara batuaren aurreko hiztegietan ageri diren hitz batzuk gogoratuko ditut. Guztiak dira gaitzespenez beteriko izen gordinak.

- *Eme* hitz elkartu barruan *ema-* bihurturiko bi izen: *emagaldua* eta *ematarra*. Lehenengoa, *emagaldua*, ezagunago egiten zaigu, XX. mendeko idatzietan dezente erabili izan delako. *Ematxar* hitza, kutsu moralez are kargatuagoa, gutxiago erabilia izan da bederen.

- *Urde* izenaren eratorri femeninoari ere itsatsi izan zaio adiera hori bera, berariaz *urdanga* eratorriaren bidez, baina baita *urdaska* hitzaren bidez ere. Bi-biak, atzizki txikigarri batez hornituak: -NGA eta -SKA. Atzizki femenino gisa erabili izan dira biak, -NDA bezala (*oilanda*), goian azaldu diren hitzen eredura.

2022-05-23

[6]

Hondartzara!

- Hondartza-denboraldian sartu berri gara. Baina hondartzara goazenean, zenbait izen erdaraz esan eta entzuten ditugu, euskaraz baino gehiago. Pentsa daiteke, behin hondartzara joanez gero, gaztelaniaz edo frantsesez mozarrotzen dela geure mundua!
- Euskaraz mozarrotzeko ahalegin apur bat egin dezagun, horrela gure haurrek eta gazteek ere, etxe, kale, auzo edo herrian aho-minean darabilgun hizkuntzari uko egin ez diezaioten.

Hondartzan etzaten den guztiak, eguraldi eguzkitsua bada behintzat, aukera bi ditu: edo *eguzkitan* edo *gerizpetan* egotea.

- «Sombrero». Gerizpetan egon nahi duenak *gerizagarriren* bat behar du nolanahi ere, burua estalpean izateko. Gaztelaniazko «sombrero» delakoaren ordain zaharra dugu *kerizgarri* hitza, Juan Antonio Mogel idazleak aspaldi proposatu zuena: «Obeto egingo zenduan, kendu bazendu buruko *kerizgarri*, zuen aoan sonbreilua deritxona, guk kenduten dogun legez buru-txapela». Gaztelaniaz ere *gerizatan* egoteko kapela dela aditzera ematen du.

Bada beste hitz zahar bat ere adiera honetarako: *ginbaila*. Hara: «Badirudi, kokotzian bizarra eta *ginbailla* edo kasketia buruban jantzi ezkeroz, euskeraz itz egitiaz lotsatu egiten dirala euskaldun asko» idatzi zuten Tolosako *Euzkel Egutegiyan* orain mende bat (1921-07-29). Eta Agustin Anabitartek aldi beretsuan: «Japoniar jantzian, beren lastozko *ginbail* zabalakin» (*Donostia*, 131).

Izan ditu beste izen lehiakide batzuk ere: *buruestalkia*, *lasto-kapela*, *lastozko zapela* bezalakoak.

- «Sombrilla». Gaztelaniaz «sombrilla» delakoaren ordaintzat *itzalkin* ematea bitxi eta arraro egiten zait. Geure erreperertoriotik ia uxatu dugun *aterkina* dakarkit gogora. Egia da, hala ere, -KIN atzizki horrekin erabili izan dela behin edo behin izen hori adiera horrentzat: «Bere emazteetarik hirurek *itzalkin* zabal batez iguzkitik geritzatzen zuten» (*Fedearen propagazioneke*, 1900, 25).

Lehenago joko nuke *eguzkitakoa* esatera, *euritakoa* egokitu dugun bide beretik.

- «Tumbona». Gaztelaniaz «tumbona» deritzanaren euskal ordainak ez du misterio handirik. Gure hiztegietan hedatuen dagoen hitza *etzaulkia* dugu; zuzena eta laburra. Erabili izan dira lehenago *etzan-aukia*, *etzalekua* eta beste batzuk ere, baina gaur bazter uztekoak, agian.

- «Toldo». Gaztelaniaz «toldo» deritzanari euskaraz ere *toldoa* mailegu-izena ematea ontzat joko genuke. Gure hiztegietan ageri da mailegu hori. *Ola-na* ere esaten zaio, aintzat hartzeko izena hau ere. Baina izen garbiagoetara jo nahi izanez gero, *itzal-oihala* edo *itzalkia* guztiz egokitzen ditut. Beste batzuek, hiztegi batzuek, hala ere, nahiago dute *eguzki* izenaz jokatu, eta *eguzki-oihala* izena eman «toldoari».

- «Nevera». Edari-janariak eguzki-galdatan gehiegi berotu ez daitezen, ona izaten da *bozkailutxoa* eramatea ere, eta elur- edo izotz-harri batzuk barruan, denak hotzetan edo freskotan iraun dezan.

2022-06-30

